

DROGA-MENDEKOTASUNAK  
DROGODEPENDENCIAS

**2 0 1 2**

# **Euskadi eta Drogak**

**Euskadi y Drogas**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

# EUSKADI ETA DROGAK EUSKADI Y DROGAS 2012

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco: <<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.

**Argitaraldia:**

Edición:

**1.a, 2013ko azaroa**

1.ª noviembre 2013

**Ale kopurura:**

Tirada:

**1.000**

1.000 ejemplares

©

**Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa**

**Osasun Saila**

Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco  
Departamento de Salud

**Egileak/Autores:**

**SIIS Centro de Documentación y Estudios**

**Zuzendaritza eta Koordinazioa:**

Dirección y Coordinación:

**Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**

Dirección de Salud Pública y Adicciones

**Itzulpena euskarara:**

Traducción al euskera:

**IZO**

**Internet:**

**[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)**

**Argitaratzailea:**

Edita:

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Fotokonposaketa:**

Fotocomposición:

SACAL

Barratxi, 2 - 01013 VITORIA-GASTEIZ  
Tel. 945 128 154 - [comercial@imprentasacal.com](mailto:comercial@imprentasacal.com)

**Inprimaketa:**

Impresión:

SACAL

Barratxi, 2 - 01013 VITORIA-GASTEIZ  
Tel. 945 128 154 - [comercial@imprentasacal.com](mailto:comercial@imprentasacal.com)

**ISBN:**

978-84-457-3314-1

**L.G./D.L.:**

VI 811-2013

**AURKEZPENA**

---

**PRESENTACIÓN**



## AURKEZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoan 2012an egindako *Euskadi eta drogak* inkestaren emaitzak jasotzen ditu txosten honek. Euskal herritarrek hainbat substantzia psikoaktiboren kontsumoaren aurrean duten egoeraren eta hura azaltzeko faktore batzuen gaineko ikuspegi bat ematen du azterlanak. Horretaz gain, gure erkidegoan droga-kontsumoak azken 20 urteetan izandako bilakaeraren berri ere ematen du. *Euskadi eta drogak* azterlana bereziki egokia da kontsumo jakin batzuek eta/edo mendetasuna sortzen duten zenbait portaerak gure gizartearen eragina ezagutzeko; halaber, biziki baliagarria da droga-mendetasunen arloko politiken diseinua edo ebaluazioa orientatzeko.

Era berean, azpimarratzekoa da argitalpen honekin hogei urte betetzen direla Eusko Jaurlaritzaren Droga-mendekotasunen Idazkaritza Nagusiak lehen aldiz *Euskadi eta drogak* azterlana argitaratu zuenetik. Orduan, *Euskadi drogen aurrean, 92. Tabakoaren, alkoholaren eta gainerako drogen kontsumoak azken hamar urteetan izan duen bilakaerari eta kontsumoaren aurrean hartutako jarrerari buruzko txosten soziologikoa* izenarekin argitaratu zuen. Harrez geroztik –eta droga-mendetasunen alorreko autonomia-araudia betez, zeinak aldizkako inkestak eta azterlan epidemiologikoak, ekonomikoak eta sozialak sustatzeko ardura ematen baitio droga-mendetasunen eragina, prebalentzia eta problematika ezagutzeko–, Eusko Jaurlaritzak etxetik etxeko hamaika inkesta egin ditu guztira, bi urtean behin; batetik, substantzia guztien kontsumoaren EAEko hedapena ezagutzeko, kontsumo-eredu nagusiak identifikatzeko eta haien bilakaera baloratzeko, eta bestetik, euskal herritarrek drogen fenomenoaren eta droga-mendetasunen arloan aplikatutako politika publikoak nola hautematen dituzten ebaluatzeko.

## PRESENTACIÓN

Este informe recoge los resultados de la Encuesta Euskadi y Drogas realizada en la Comunidad Autónoma del País Vasco en verano de 2012. El estudio proporciona una panorámica de la situación de la ciudadanía vasca frente al consumo de diversas sustancias psicoactivas y de algunos de sus factores explicativos. Adicionalmente, ofrece también la evolución en los últimos 20 años de los consumos de drogas en nuestra comunidad. Merece especial consideración el papel que Euskadi y Drogas desempeña para conocer la incidencia que determinados consumos y/o comportamientos adictivos tienen en nuestra sociedad, así como su indudable utilidad a la hora de orientar el diseño o la evaluación de las políticas en materia de drogodependencias.

Resulta asimismo del máximo interés destacar que con esta publicación se cumplen ahora veinte años desde la primera edición del estudio Euskadi y drogas, publicado por la Secretaría General de Drogodependencias del Gobierno Vasco, bajo el nombre *Euskadi ante las drogas 92. Informe sociológico sobre la evolución y actitudes ante el consumo de tabaco, alcohol y demás drogas en los últimos diez años*. A partir de ese momento –y en cumplimiento de la normativa autonómica en materia de drogodependencias, que le asigna la responsabilidad de promover encuestas periódicas y estudios epidemiológicos, económicos y sociales para conocer la incidencia, prevalencia y problemática de las drogodependencias–, el Gobierno Vasco ha realizado un total de once encuestas domiciliarias, una cada dos años, con el objetivo tanto de conocer la extensión del consumo de las diversas sustancias en la CAPV, identificar las principales pautas de consumo y valorar su evolución, como de evaluar la percepción de la ciudadanía vasca respecto al fenómeno de las drogas y respecto a las políticas públicas aplicadas en materia de drogodependencias.



**AURKIBIDEA**

---

**ÍNDICE**



# ÍNDICE

<b>PRESENTACIÓN</b> .....	5
<b>1. OBJETIVOS, ESTRUCTURA Y METODOLOGÍA DEL ESTUDIO</b> .....	17
1.1. Objetivos .....	17
1.2. Estructura .....	18
1.3. Metodología .....	20
1.3.1. El cuestionario .....	20
1.3.2. Diseño muestral .....	22
1.3.3. Trabajo de campo .....	25
1.3.4. Elevación de resultados .....	27
1.3.5. La serie temporal de datos de Euskadi y Drogas .....	27
1.4. Las variables utilizadas .....	29
1.4.1. Las variables explicativas .....	29
1.4.2. Las variables dependientes .....	33
1.5. Los métodos utilizados para el análisis de las variables .....	45
<b>2. PRINCIPALES RESULTADOS DE EUSKADI Y DROGAS 2012</b> .....	49
2.1. Introducción .....	49
2.2. Los consumos de alcohol en la CAPV .....	50
2.2.1. Disminuyen ligeramente los indicadores generales de consumo de alcohol .....	50
2.2.2. El tipo de bebidas consumidas, la intensidad de los consumos y los consumos excesivos .....	58
2.2.3. La valoración de los consumos, los beneficios atribuidos al alcohol, las situaciones de riesgo de adicción y los procesos de abandono o reducción del consumo .....	65
2.2.4. Hábitos de consumo de alcohol por parte de la población juvenil .....	75
2.2.5. La situación de la CAPV en perspectiva comparada .....	79
2.3. El consumo de tabaco en la CAPV .....	83
2.3.1. Disminuye ligeramente el consumo de tabaco tras la promulgación de la normativa reguladora del consumo .....	83
2.3.2. La intensidad de los consumos y su valoración por parte de las personas consumidoras .....	87
2.3.3. Se mantiene la edad media de inicio en el consumo de tabaco, pero se reduce la proporción de fumadores que se iniciaron en el consumo antes de los 15 años .....	90
2.3.4. Crece ligeramente la tasa de abandono del consumo de tabaco .....	91
2.3.5. La situación de la CAPV en perspectiva comparada .....	94

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	5
<b>1. AZTERLANAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA</b> .....	17
1.1. Helburuak .....	17
1.2. Egitura .....	18
1.3. Metodologia .....	20
1.3.1. Galdesorta .....	20
1.3.2. Laginen diseinua .....	22
1.3.3. Landa-lana .....	25
1.3.4. Emaizten gorapena .....	27
1.3.5. <i>Euskadi eta drogak</i> azterlaneko datuen denbora-seriea .....	27
1.4. Erabilitako aldagaiak .....	29
1.4.1. Azalpen-aldagaiak .....	29
1.4.2. Mendeko aldagaiak .....	33
1.5. Aldagaiak aztertzeko erabilitako metodoak .....	45
<b>2. EUSKADI ETA DROGAK 2012 AZTERLANAREN EMAITZA NAGUSIAK</b> .....	49
2.1. Sarrera .....	49
2.2. Alkohol-kontsumoa EAEn .....	50
2.2.1. Alkohol kontsumoaren adierazle orokorrak apur bat murriztu dira .....	50
2.2.2. Kontsumituriko edari motak, kontsumoaren intentsitatea eta gehiegizko kontsumoa .....	58
2.2.3. Kontsumoaren balorazioa, alkoholari egotzitako onurak, mendetasun-arriskuko egoerak eta kontsumoa uzteko edo murrizteko prozesuak .....	65
2.2.4. Gazteen alkohol-kontsumoaren ohiturak .....	75
2.2.5. EAĒko egoeraren ikuspegi konparatua .....	79
2.3. Tabako-kontsumoa EAEn .....	83
2.3.1. Tabako-kontsumoa apur bat murriztu da kontsumoa arautzeko araudia promulgatu ondoren .....	83
2.3.2. Kontsumoen intentsitatea eta kontsumitzaileek egindako balorazioa .....	87
2.3.3. Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina mantendu egin da, baina 15 urteak bete aurretik erretzen hasi direnen proportzioa murriztu egin da .....	90
2.3.4. Tabakoa kontsumitzen uzteari buruzko tasa apur bat igo da .....	91
2.3.5. EAĒko egoeraren ikuspegi konparatua .....	94

2.4. El consumo de cannabis en la CAPV . . . . .	98
2.4.1. Descenso notable de todos los indicadores relativos al consumo de cannabis. . . . .	98
2.4.2. Se mantienen las frecuencias y la intensidad de los consumo entre las personas consumidoras . . . . .	101
2.4.3. Se mantiene la edad media de inicio y se reducen las tasas de continuidad en el consumo . . . . .	105
2.4.4. La valoración de los consumos de cannabis por parte de los consumidores . . . . .	107
2.4.5. La situación de la CAPV en perspectiva comparada . . . . .	109
2.5. El consumo de otras drogas ilegales . . . . .	117
2.5.1. Desciende de forma clara el uso de sustancias ilegales en Euskadi . . . . .	117
2.5.2. Cocaína y anfetaminas siguen siendo las drogas ilegales más consumidas . . . . .	120
2.5.3. Se mantiene la edad de inicio y crece la tasa de abandono de las diversas sustancias. . . . .	123
2.5.4. El policonsumo de drogas . . . . .	126
2.5.5. El consumo de drogas ilegales en la CAPV en perspectiva comparada . . . . .	130
2.6. Las otras adicciones: consumo de psicofármacos, sustancias dopantes, uso abusivo de internet y juego patológico . . . . .	136
2.6.1. Introducción . . . . .	136
2.6.2. Desciende el consumo de psicofármacos bajo prescripción médica, mientras aumenta su uso sin receta. . . . .	136
2.6.3. Reducida prevalencia de las sustancias dopantes que, en cualquier caso, crece entre 2010 y 2012 . . . . .	139
2.6.4. Prevalencia de los juegos de azar y comportamientos problemáticos en relación al juego. . . . .	140
2.6.5. El uso problemático de internet. . . . .	145
2.7. La posición de la ciudadanía frente a los consumos de drogas y las políticas sobre drogodependencias. . . . .	147
2.7.1. La valoración de los problemas y la percepción del riesgo . . . . .	147
2.7.2. La accesibilidad de las sustancias, la valoración respecto a la evolución de los consumos y la normalización de las drogas . . . . .	154
2.7.3. La valoración de las políticas en relación a las drogas y las drogodependencias . . . . .	165
<b>3. CONSUMOS DE DROGAS Y DIFERENCIAS GENERACIONALES . . . . .</b>	<b>175</b>
3.1. Introducción . . . . .	175
3.2. Diferencias generacionales en los consumos de drogas: situación actual y evolución de los principales indicadores . . . . .	177
3.2.1. Los consumos experimentales y la edad de inicio en los consumos . . . . .	177
3.2.2. Los consumos recientes. . . . .	182
3.2.3. Los consumos frecuentes o habituales. . . . .	189
3.2.4. Los consumos intensos y problemáticos. . . . .	195
3.2.5. La continuidad y el abandono de los consumos y la atribución de perjuicios y beneficios a los diversos consumos . . . . .	200
3.2.6. La percepción del riesgo, la valoración de las políticas y el grado de cercanía a las drogas ilegales. . . . .	202
3.3. Relación estadística entre el consumo de drogas y las personas jóvenes. . . . .	206

2.4.	Kanabisaren kontsumoa EAEn . . . . .	98
2.4.1.	Kanabisaren kontsumoari buruzko adierazle guztien beherakada nabarmena . . . . .	98
2.4.2.	Kontsumoaren maiztasuna eta intentsitatea mantendu egin dira kontsumitzaileen artean . . . . .	101
2.4.3.	Hasteko batez besteko adina mantendu egin da eta kontsumoarekin jarraitzeko tasak murriztu egin dira . . . . .	105
2.4.4.	Kontsumitzaileek kanabisaren kontsumoari buruz egindako balorazioa . . . . .	107
2.4.5.	EAEko egoeraren ikuspegi konparatua . . . . .	109
2.5.	Legez kanpoko beste droga batzuen kontsumoa . . . . .	117
2.5.1.	Legez kanpoko substantzien erabilerak beherakada argia izan du Euskadin . . . . .	117
2.5.2.	Kokaina eta anfetaminak gehien kontsumitutako legez kanpoko drogak dira oraindik. . . . .	120
2.5.3.	Hasteko adina mantendu egin da eta substantziak uzteko tasa hazi egin da . . . . .	123
2.5.4.	Drogen polikontsumoa . . . . .	126
2.5.5.	Legez kanpoko drogen EAEko kontsumoaren ikuspegi konparatua . . . . .	130
2.6.	Beste mendetasun batzuk: psikofarmakoen kontsumoa eta dopin-substantzien kontsumoa, Interneten gehiegizko erabilera eta joko patologikoa . . . . .	136
2.6.1.	Sarrera . . . . .	136
2.6.2.	Medikuak agindutako psikofarmakoen kontsumoa murriztu da, eta errezetarik gabeko erabilera handitu . . . . .	136
2.6.3.	Dopin-substantzien prebalentzia txikia; nolana ere, hazi egin da 2010 eta 2012 bitartean . . . . .	139
2.6.4.	Ausazko jokoen eta jokoarekin lotutako portaera problematikoen prebalentzia . . . . .	140
2.6.5.	Interneten erabilera problematikoa . . . . .	145
2.7.	Herritarren jarrera droga-kontsumoaren eta mendetasunei buruzko politiken aurrean . . . . .	147
2.7.1.	Arazoen balorazioa eta arriskuaren pertzepzioa . . . . .	147
2.7.2.	Substantzien eskuragarritasuna, kontsumo-bilakaerari eta drogen normalizazioari buruzko balorazioa . . . . .	154
2.7.3.	Drogei eta droga-mendetasunei buruzko politiken balorazioa . . . . .	165
<b>3.</b>	<b>DROGEN KONTSUMOA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ALDEAK . . . . .</b>	<b>175</b>
3.1.	Sarrera . . . . .	175
3.2.	Belaunaldien arteko aldeak droga-kontsumoari dagokionez: egungo egoera eta adierazle nagusien bilakaera . . . . .	177
3.2.1.	Kontsumo esperimentalak eta kontsumitzen hasteko adina . . . . .	177
3.2.2.	Azkenaldiko kontsumoak . . . . .	182
3.2.3.	Ohiko edo maizko kontsumoak . . . . .	189
3.2.4.	Kontsumo intentsuak eta problematikoak . . . . .	195
3.2.5.	Kontsumoa jarraitzea eta uztea, eta kalteen eta onuren balorazioa . . . . .	200
3.2.6.	Arriskua hautematea, politiken balorazioa eta legez kanpoko drogetarako hurbiltasun-maila . . . . .	202
3.3.	Droga-kontsumoaren eta gazteen arteko lotura estatistikoa . . . . .	206

<b>4. CONSUMOS DE DROGAS Y GÉNERO</b> .....	213
4.1. Introducción .....	213
4.2. El impacto de las diferencias de género en los consumos de drogas y en los comportamientos problemáticos relacionados con las adicciones: situación actual y datos de evolución .....	214
4.2.1. Los consumos experimentales y la edad de inicio .....	214
4.2.2. Los consumos recientes .....	221
4.2.3. Los consumos frecuentes o habituales .....	224
4.2.4. Los consumos de riesgo o problemáticos .....	233
4.2.5. La continuidad y el abandono de los consumos y la atribución de perjuicios y beneficios a los diversos consumos .....	237
4.2.6. La percepción del riesgo, la valoración de las políticas y el grado de cercanía a las drogas ilegales .....	241
4.2.7. Relación estadística entre el consumo de drogas y el sexo de las personas consumidoras .....	245
<b>5. DETERMINANTES SOCIOECONÓMICOS, EDUCATIVOS Y DE SALUD RESPECTO AL CONSUMO DE DROGAS EN LA CAPV</b> .....	253
5.1. Introducción .....	253
5.2. El impacto de las diferencias socioeconómicas en los consumos de drogas y en los comportamientos problemáticos relacionados con las adicciones .....	253
5.2.1. Los consumos experimentales y la edad de inicio .....	253
5.2.2. Los consumos frecuentes o habituales .....	256
5.2.3. Los consumos intensos y problemáticos .....	259
5.2.4. La valoración de los perjuicios y beneficios y el abandono de los consumos .....	265
5.2.5. La percepción del riesgo, la valoración de las políticas y el grado de cercanía a las drogas ilegales .....	268
5.3. La relación entre el nivel educativo y los niveles de consumo .....	271
5.3.1. Los consumos experimentales .....	271
5.3.2. Los consumos frecuentes o habituales .....	272
5.3.3. Los consumos problemáticos o intensos .....	273
5.3.4. Los índices de continuidad .....	274
5.4. La relación entre estado de salud y consumo drogas .....	276
5.5. Relación estadística entre el consumo de drogas y las variables socio-económica, de autovaloración de la salud y nivel de estudios .....	281
5.5.1. Introducción .....	281
5.5.2. Relación entre las variables de consumo y grupo socioeconómico bajo .....	282
5.5.3. Relación entre las variables de consumo y nivel de estudios bajo .....	286
5.5.4. Relación entre las variables de consumo y autovaloración de la salud como regular, mala o muy mala .....	290
5.5.5. Relación entre las variables de consumo y percepción del riesgo .....	294
<b>ANEXO I. CUESTIONARIO DE LA OPERACIÓN</b> .....	303
<b>ANEXO II. RELACIÓN ESTADÍSTICA ENTRE VARIABLES</b> .....	363

<b>4. DROGEN KONTSUMOA ETA GENEROA</b> .....	213
4.1. Sarrera .....	213
4.2. Genero-ezberdintasunen eragina drogen kontsumoan eta mendetasunekin lotutako portaera problematikoetan: egungo egoera eta bilakaeraren datuak .....	214
4.2.1. Kontsumo esperimentalak eta kontsumitzen hasteko adina .....	214
4.2.2. Azkenaldiko kontsumoak .....	221
4.2.3. Ohiko edo maizko kontsumoak .....	224
4.2.4. Kontsumo arriskutsuak edo problematikoak .....	233
4.2.5. Kontsumoa jarraitzea eta uztea, eta kontsumoei kalteak edo onurak egoztea .....	237
4.2.6. Arriskua hautematea, politiken balorazioa eta legez kanpoko drogetarako hurbiltasun-maila .....	241
4.2.7. Droga-kontsumoaren eta kontsumitzaileen sexuaren arteko lotura estatistikoa .....	245
<b>5. EAE-KO DROGA KONTSUMOARI BURUZKO BALDINTZAZAILE SOZIOEKONOMIKOAK, ETA HEZKUNTZAKO ETA OSASUNEO BALDINTZATZAILAK</b> .....	253
5.1. Sarrera .....	253
5.2. Ezberdintasun sozioekonomikoen eragina droga-kontsumoetan eta mendetasunekin lotutako portaera problematikoetan .....	253
5.2.1. Kontsumo esperimentalak eta kontsumitzen hasteko adina .....	253
5.2.2. Ohiko edo maizko kontsumoak .....	256
5.2.3. Kontsumo intentsuak eta problematikoak .....	259
5.2.4. Kalteen eta onuren balorazioa eta kontsumoa uztea .....	265
5.2.5. Arriskua hautematea, politiken balorazioa eta legez kanpoko drogetarako hurbiltasun-maila .....	268
5.3. Hezkuntza mailaren eta kontsumo mailen arteko lotura .....	271
5.3.1. Kontsumo esperimentalak .....	271
5.3.2. Ohiko edo maizko kontsumoak .....	272
5.3.3. Kontsumo problematikoak edo intentsuak .....	273
5.3.4. Jarraitutasun-indizeak .....	274
5.4. Osasun-egoeraren eta droga-kontsumoaren arteko lotura .....	276
5.5. Droga-kontsumoaren eta aldagai sozioekonomikoaren, osasunaren autobalorazioko aldagaiaren eta ikasketa-mailaren aldagaiaren arteko lotura estatistikoa .....	281
5.5.1. Sarrera .....	281
5.5.2. Kontsumo aldagaiaren eta talde sozioekonomiko baxuari buruzko aldagaiaren arteko lotura .....	282
5.5.3. Kontsumo aldagaiaren eta ikasketa-maila baxuari buruzko aldagaiaren arteko lotura ..	286
5.5.4. Kontsumoko eta osasunaren autobalorazioko (hala-holakoa, txarra edo oso txarra) aldagaien arteko lotura .....	290
5.5.5. Kontsumo aldagaiaren eta arriskua hautemateari buruzko aldagaien arteko lotura .....	294
<b>I. ERANSKINA. ERAGIKETAREN GALDESORTA</b> .....	303
<b>II. ERANSKINA. ALDAGAIEN ARTEKO LOTURA ESTATISTIKOA</b> .....	363



# **1. AZTERLANAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA**

---

## **1. OBJETIVOS, ESTRUCTURA Y METODOLOGÍA DEL ESTUDIO**





## 1. AZTERLANAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

### 1.1. Helburuak

Inkesta honen helburu nagusia, eta, ondorioz, emaitza nagusiak modu antolatu batean deskribatzera eta azaltzera zuzendutako azterlan honena, informazio baliagarria lortzea da, batetik, une jakin batean drogen prebalentzia eta erabilera-eredua zein den jakiteko, eta, bestetik, duela hogeitun urtetik hona gure gizartean ikusten diren joera nagusiak ezagutzeko (eskuragarri dugun inkesten serie zabala dela-eta).

Zehazki, hauexek izan dira *Euskadi eta drogak* azterlanaren serie osoaren helburu espezifikoak eta komunak:

- Substantzia psikoaktibo nagusien (legezkoen zein legez kanpokoan) kontsumoaren prebalentzia ezagutzea; hau da, drogen erabilera zer neurritan dagoen zabaldua ikertzea. Helburu horri apustu eta ausazko jokoen eta Interneten erabilerarekin lotutako hainbat portaeraren hedapena ezagutzea ere gehitu zaio 2012tik aurrera.
- Drogen kontsumoaren ereduak nolakoak diren ezagutzea, hala haren maiztasunari eta intentsitateari dagokienez nola jarraitutasunari dagokienez eta, hainbat ereduren barruan, arrisku-tuenak zehaztea eta kuantifikatzea.
- Droga-kontsumitzaileen ezaugarri soziodemografiko nagusiak zein diren ezagutzea, eta kontsumoaren hedapena eta praktikak azaltzeko orduan zer neurritan eragiten duten aztertzea.

## 1. OBJETIVOS, ESTRUCTURA Y METODOLOGÍA DEL ESTUDIO

### 1.1. Objetivos

El objetivo principal de esta encuesta y, por lo tanto, de este estudio dirigido a describir y analizar de forma ordenada sus principales resultados es obtener información útil para conocer tanto la prevalencia y pautas de uso de las distintas drogas en un momento concreto, como las principales tendencias que –dado lo dilatada de la serie de encuestas disponibles–, se observan en nuestra sociedad desde hace veinte años a ahora.

Concretamente, los objetivos específicos y comunes a toda la serie Euskadi y Drogas han sido los siguientes:

- Conocer la prevalencia de consumo de las principales sustancias psicoactivas, tanto legales como ilegales, es decir, averiguar en qué medida se encuentra extendido el uso de drogas. A partir de 2012 a este objetivo se le añade el de conocer la extensión de diversos comportamientos ligados a la utilización de los juegos de apuestas y azar y a internet.
- Conocer cómo son las pautas de consumo de drogas, tanto en lo que respecta a su frecuencia e intensidad como a su continuidad y, dentro de las diversas pautas, identificar y cuantificar aquellas que entrañan un mayor riesgo.
- Conocer cuáles son las principales características sociodemográficas de las personas que consumen drogas y analizar en qué medida se muestran influyentes a la hora de explicar la extensión y prácticas concretas de consumo.

- Herritarrek drogen kontsumoarekin, kontsumo jakin batzuek dakartzaten arriskuekin eta drogen eskuragarritasunarekin lotutako arazoei zer garrantzi ematen dieten ezagutzea.
- Herritarrek droga-mendetasunen arloan plazaratutako neurri edo proposamen nagusiekin lotuta zer iritzi duten ezagutzea.
- Kontsumoen bilakaerari dagokionez ikusitako joera nagusia deskribatzea eta aztertzea, bai eta erabilera-ereduetan zein kontsumitzaileen osaera sozialean ikusitako aldaketak ere.
- Conocer la percepción de la ciudadanía sobre la importancia de los problemas asociados al consumo de drogas, los riesgos que implican determinados consumos y la accesibilidad de las drogas.
- Conocer la opinión de la ciudadanía en relación a las principales medidas o propuestas planteadas en materia de drogodependencias.
- Describir y analizar las principales tendencias observadas en lo relativo a la evolución de los consumos y los cambios observados tanto en las pautas de uso como en la composición social de las personas que realizan esos consumos.

## 1.2. Egitura

Seriearen hasieratik, *Euskadi eta drogak* txostenak aztertu beharreko substantzia nagusien arabera egituratu dira, kasu gehienetan kapitulu bana eskainiz iritzi publikoa eta herritarrek drogen aurrean duten pertzepzioa aztertzeari edo estatistika-metodo aurreratuetan oinarriturik kontsumoak aztertzeari. Zentzu horretan, txosten honek funtsezko aldaketa bat dakar aurreko edizioekiko; izan ere, ohiko analisia baztertu gabe, substantzia guztiei zeharka heltzea erabaki dugu, batez ere bi dimentsioren uztarketan oinarrituriko ikuspegi batetik abiatuta: batetik, kontsumoak azaltzen dituzten faktore soziodemografikoetako batzuei buruzkoa eta, bestetik, kontsumo motak maiztasunaren, intentsitatearen eta jarraitutasunaren arabera sailkatzen dituzten adierazle esparru egituratu bati dagokiona. Nolanahi ere, ez dugu aurreko azterlanekiko jarraitutasunik hautsi nahi izan; horregatik, 2012ko inkestaren emaitza nagusiak substantziaz substantzia azaltzeko eta aztertzeko hasierako kapitulu bat egin dugu, 1992tik ohikoa izan denez.

Berritasun horiek aintzat hartuta, txosten honek bost kapitulu ditu:

- Lehen kapitulu sarrera moduko bat da; hala, txostena aurkezteaz gain, egiteko erabilitako

## 1.2. Estructura

Desde el principio de la serie, los sucesivos informes de Euskadi y Drogas se han estructurado en función de las principales sustancias objeto de análisis, reservando en la mayoría de los casos sendos capítulos al estudio de la opinión pública y la percepción de la ciudadanía frente a las drogas o bien al análisis de los consumos a partir de métodos estadísticos avanzados. En este sentido, el presente informe supone un cambio sustancial con respecto a sus ediciones anteriores en la medida en que se ha optado, sin prescindir del análisis habitual, por un abordaje transversal a todas las sustancias a partir de un enfoque basado, fundamentalmente, en la combinación de dos dimensiones: por una parte, la relativa a algunos de los factores sociodemográficos explicativos de los distintos consumos y, por otra, la correspondiente a un marco estructurado de indicadores que clasifican los distintos tipos de consumo en función de su frecuencia, su intensidad y su continuidad. Se ha procurado, con todo, no romper la continuidad con estudios anteriores y por tal motivo se ha optado por la redacción de un capítulo inicial destinado a describir y analizar, sustancia por sustancia, como viene siendo habitual desde 1992, los principales resultados de la encuesta correspondiente a 2012.

Considerando estas novedades, el presente informe se divide en cinco capítulos:

- Este primer capítulo, de carácter introductorio, presenta el informe y recoge de manera detalla-

metodologia, aldagai nagusien definizioa eta haiek aztertze erabilitako metodoak zehatz-mehatz biltzen ditu.

- Bigarren kapitulan, galdesortan jasota ko substantzia psikoaktiboen eta portaera mendetasun-sortzaileen arabera, azterlanak ekarritako emaitza nagusiak daude jasota. Kapitulu horretan, halaber, EAEko droga-kontsumoaren pertzepzio sozialarekin eta haren gaineko politikek duten balorazio sozialarekin lotutako hainbat kontu ere aztertu dira.
  - Hirugarren kapitulan droga-kontsumoaren ereduak eta adinaren arabera portaera mendetasun-sortzaile batzuk aztertu ditugu; aldagai horrek, izan ere, funtsezko eragina duela erakutsi du orain arte egindako azterlan guztietan. Kapitulu honetan substantzia psikoaktiboen hainbat kontsumo motari (esperimentalak, maizkoa edo ohikoa eta bizia edo problematikoa) buruzko datuak ageri dira, biztanleak hiru adin-taldetan banatuta. Hiru adin-talde horietatik abiatuta –15 eta 34 urte arteko pertsonak (gazteak), 35 eta 54 urte artekoak (helduak) eta 54 urtetik gorakoak (adinekoak)–, kapitulu honetan belaunaldien arteko aldeek droga-kontsumoaren errealitatea ezagutzeko zer-nolako eragina duten aztertu dugu.
  - Laugarren kapitulan, hirugarrenaren oso antzekoa egiturari dagokionez, genero-ikuspegitik aztertuko da drogen kontsumoa. Zehazki, genero-aldeek aztertutako droga-kontsumo motetan eta mendetasuna sortzen duten portaera jakin batzuetan zer-nolako eragina duten aztertuko da. Hirugarren kapitulan bezalaxe, egindako azterketa ez da 2012ko emaitzetan bakarrik oinarritzen, azken hogeitarteotan ikusitako joera nagusietan baizik.
  - Bosgarren eta azken kapitulan azterlanean zehaztutako kontsumo motak eta jarraitze eta uzteko ereduak aztertu dira, hiru faktoretan oinarriturik ikusitako ezberdintasunen arabera:
- da la metodología empleada en su elaboración, la definición de las principales variables utilizadas y los métodos empleados para su análisis.
- En el segundo capítulo se analizan, en función de las sustancias psicoactivas y comportamientos adictivos que recoge el cuestionario, los principales resultados que pueden extraerse del estudio. Se examinan también en este capítulo diversas cuestiones relacionadas con la percepción social del consumo de drogas en la CAPV y con la valoración social que suscitan las políticas desarrolladas al respecto.
  - El tercer capítulo está destinado al análisis de diferentes pautas de consumo de drogas y de diversas conductas adictivas en función de la edad, una de las variables que en todos los estudios realizados hasta el momento ha demostrado tener una influencia trascendental. En este capítulo se presentan los datos correspondientes a diversos tipos de consumo (experimentales, frecuentes o habituales e intensos o problemáticos) de sustancias psicoactivas en función de la división de la población en tres cohortes de edad. A partir de estos tres grupos –personas de entre 15 y 34 años (jóvenes), de 35 a 54 años (adultas) y de más de 54 años (mayores)– se examinan en este capítulo hasta qué punto las diferencias generacionales resultan esenciales para conocer la realidad de los consumos de drogas.
  - En el capítulo cuarto, muy similar al tercero en lo que respecta a su estructura, el análisis se centra en el consumo de drogas desde una perspectiva de género. Concretamente se examina el impacto de las diferencias de género en los diferentes tipos de consumo de droga analizados así como en ciertas conductas de carácter adictivo. Al igual que en el tercer capítulo, el análisis realizado no se basa exclusivamente en los resultados de 2012, sino en las principales tendencias observadas a lo largo de los últimos veinte años.
  - El quinto y último capítulo se centra en el análisis de los diferentes tipos de consumo y pautas de continuidad y abandono que han sido definidas en este estudio, en función de las dife-

herritarren egoera sozioekonomikoa, hezkuntza-maila eta osasun-egoera.

Azkenik, nabarmendu ere egin behar dugu *Euskadi eta drogak 2012* inkesta eta aurreko hamar edizioak ez direla txosten hau idazteko bakarrik erabiltzen; hala, seriearen adierazle nagusiak eta datu-baseak eskuragarri daude euskal herritarren eta drogen arteko azken bi hamarkadetako lotura ikertu nahi duten guztientzat.

### 1.3. Metodologia

#### 1.3.1. Galdesorta

*Euskadi eta drogak* azterlanaren 2012ko edizioan erabilitako galdesorta Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunen Zuzendaritzako lantaldeak diseinatu du. Oraingoan ohiko galderen multzoak ia aldatarik izan ez badu ere, galdera ugari, baita atal oso batzuk ere, gehitu dira; jokoari edo Interneten erabilerari buruzkoak, esate baterako. txosten honen I. eranskinean inkestaren oraingo edizioan erabilitako galdesorta ageri da.

Galdesorta 2004tik egindako modu berean egituratu da; alegia, hiru multzo handitan antolatu da eta, guztira, 95 galdera ditu, gehienak itxiak. Lehen multzoan 7 galdera daude, euskal herritarrek drogen kontsumoa nola hautematen duten eta arlo horretan jarduteko hartutako neurri eta politiken gainean zer-nolako iritzia duten ezagutzeko diseinatuak. Bigarren multzoa eta galdesortaren nukleoa 71 galderak osatuta dago; gehienbat tabako, alkohol, psikofarmako, dopin-substantzia eta legez kanpoko droga nagusien kontsumoaren hedapena eta ereduak ezagutzeko, baita jokoarekin eta Internetekin lotutako portaera problematiko jakin batzuen eraginaren berri jasotzeko ere. Galdesorta amaitzeko hirugarren galdera-multzo bat dago, 17 dira orotara, elkarrizketatutako lagunen ezaugarri soziodemografiko, sozioekonomiko eta osasuneko ezaugarri nagusiak biltzeko.

rencias observadas en base a tres factores: la situación socioeconómica, el nivel de instrucción y el estado de salud de la población.

Resulta importante subrayar para finalizar que el uso de la encuesta Euskadi y Drogas 2012 y de sus diez ediciones previas, no se agota en la redacción del presente informe y que los principales indicadores de la serie, así como sus bases de datos. están disponibles para todas aquellas personas interesadas en investigar la relación de la ciudadanía vasca con las drogas a lo largo de estas dos últimas décadas.

### 1.3. Metodología

#### 1.3.1. El cuestionario

El cuestionario utilizado en la edición de 2012 de Euskadi y Drogas ha sido diseñado por el equipo técnico de la Dirección de Drogodependencias del Gobierno Vasco. En esta ocasión, si bien el cuerpo de preguntas habituales no ha sufrido prácticamente cambios, se ha incluido un número significativo de preguntas e, incluso, secciones enteras como son las referidas al juego o al uso de internet. En el Anexo I de este informe se aporta el cuestionario utilizado en la actual edición de la encuesta.

El cuestionario se estructura de igual modo que viene haciéndose desde 2004, se organiza en tres grandes bloques y contiene, en total 95 preguntas, la mayoría de ellas cerradas. El primer bloque consta de 7 preguntas diseñadas con el objetivo de conocer la percepción que la ciudadanía vasca tiene sobre el consumo de drogas y su opinión sobre las políticas y principales medidas de actuación adoptadas en esta materia. El segundo bloque y núcleo central del cuestionario está compuesto de 71 preguntas, dirigidas en su mayoría a conocer la extensión y las pautas de consumo de tabaco, alcohol, psicofármacos, sustancias dopantes y principales drogas ilegales y la incidencia de ciertas conductas problemáticas asociadas al juego e internet. El cuestionario concluye con un tercer bloque de preguntas, 17 en total, que recogen las principales características sociodemográficas, socioeconómicas y de salud de las personas entrevistadas.

Edizio honetan erabilitako galdesortak hainbat aldaketa ditu 2010ean erabilitakoaren aldean, batez ere galdera berri asko gehitu baitira. Honako hauek dira aldaketa nagusiak:

- Alkohol-kontsumoarekin lotutako galderen moduluaren barruan galdera bat gehitu da, edozer edari alkoholdun motarekiko lehen harremana ezagutzeko galderaren ostean, alkoholaren ohiko kontsumoan hasteko adinari buruzkoa. Modulu horretan, EAEko Osasunaren Inkestak egiten duen moduan, CAGE testa (Mayfield D) osatzen duten lau galderak ere jaso dira; *screening* metodo labur bat da, alkoholarekiko mendetasuna duten pertsonak identifikatzeko.
  - Galdesortaren bigarren multzoan galdera gehigarriko bi modulu gehiago sartu dira; bata ausazko edo apustuko jokoen erabilerarekin lotutako sei galderak osatua, eta bestea Interneten erabilerarekin lotutako bost galderak osatua. Kasu batean zein bestean beste azterlan batzuetan ebaluatu eta erabilitako tresnak sartu dira modulu bakoitzean, gehiegizko erabilerak eta/edo problematikoak dituzten pertsonak identifikatu ahal izateko. Ausazko edo apustuko jokoen erabilerari dagokionez, Gehiegizko Jokoen Kanadar Indizea (ICJE) erabili da. Bederatzi item ditu, ausazko edo apustuetako jokoei dagokienez lau kategoria bereiztea ahalbidetzen dutenak: arriskurik gabekoa, arrisku txikikoa, arrisku apalekoa eta gehiegizko jokalaria. Sarearen erabilerari dagokionez, Ormanek diseinaturiko Internetetikiko mendetasunaren testa erabili da, zeinak hiru erabiltzailetalde bereizten dituen adierazitako galdera sortan lortutako puntuazioaren arabera: arazorik gabe, arriskua eta erabilera problematikoa.
  - Bigarren multzoaren barruan, orobat, hiru galdera espezifiko sartu dira dopin-substantzien kontsumoa edo errendimendu fisiko hobetzeko eta/edo gihar-masa handitzeko asmoz dopin-metodoak erabiltzen dituzten aztertzeko. Zehazki, hauexek galtzen ziren, besteak beste:
- El cuestionario empleado en la presente edición introduce ciertas modificaciones respecto al utilizado en el año 2010, debido fundamentalmente a la introducción de un número importante de preguntas nuevas. Las principales modificaciones se resumen a continuación:
- Dentro del módulo de preguntas relacionadas con el consumo de alcohol, se ha añadido una pregunta, inmediatamente después de la dirigida a conocer la edad del primer contacto con cualquier clase de bebida alcohólica, sobre la edad de inicio en el consumo habitual de alcohol. En este módulo se han incluido también, tal y como hace la Encuesta de Salud de la CAPV, las cuatro preguntas que integran el test CAGE (Mayfield D), un método breve de *screening* para identificar a aquellas personas con una dependencia respecto al alcohol.
  - Se han incluido en el segundo bloque del cuestionario dos módulos de preguntas adicionales, uno compuesto por seis preguntas relacionadas con la utilización de los juegos de azar o de apuestas, y otro conformado por cinco cuestiones relacionadas con el uso de internet. Tanto en uno como en otro caso, se han integrado en cada módulo instrumentos evaluados y utilizados en otros estudios para identificar a aquellas personas que realizan usos excesivos y/o de carácter problemático. En relación a la utilización de los juegos de azar o de apuestas, se ha empleado el Índice Canadiense de Juego Excesivo (ICJE) integrado por nueve ítems y que permite diferenciar cuatro categorías en relación a los juegos de azar o de apuestas: sin riesgo, de bajo riesgo, de riesgo moderado y jugador excesivo. En lo que respecta a la utilización de la red se ha utilizado el test de adicción a internet diseñado por Orman, que permite diferenciar tres grupos de personas usuarias según la puntuación alcanzada a partir de la batería de preguntas señalada: sin problemas, riesgo y uso problemático.
  - También, dentro del bloque segundo, se han incluido tres preguntas específicas sobre el consumo de sustancias dopantes o la utilización de métodos de dopaje con el propósito de mejorar el rendimiento físico y/o aumentar la masa muscular. Concretamente, se preguntaba por

substantzia horien kontsumoa eta/edo erabilera (noiz edo noiz, azken 12 hilabeteetan eta azken hiru egunetan), lehen kontaktuaren adina eta, substantzia horiek kontsumitu dituzten pertsonen artean, haien eraginkortasunaren balorazioa kalteen eta onuren arteko loturari dagokionez. *Euskadi eta drogak* azterlanaren galdetegiek dopinari buruzko galderak ere izan dituzte 2004tik aurrera; halere, edizio honetan kontsumo horiek legez kanpoko drogen gaineko kontsumoetatik bereizi dira (legez kanpoko drogen kontsumoarekin lotutako galderetan dopin-substantzien erabilera kanabis edo ketaminarekin batera ageri zen), dopina legez kanpoko drogen kontsumoaren guztiz bestelako praktika bat dela iritzita.

- Amaitzeko, galderen azken multzoan 9 galdera izatetik 17 izatera igaro direla adierazi beharra dago, elkarriketatutako pertsonen egoera sozioekonomikoari eta osasun-egoerari buruzko hainbat galdera jaso baitira.

Bestetik, 2010eko galdesortarekin alderatuta, bi galdera baino ez direla ezabatu adierazi behar dugu (2008ko eta 2010eko galdetegietan bakarrik jaso ziren); galdera haien bitartez ingurune hurbilean legez kanpoko drogen erabilerarekin lotutako egoerak aztertzen ziren.

### 1.3.2 Laginen diseinua

*Euskadi eta drogak* inkestaren edizio honetan erabiliko lagina Eustatek diseinatu zuen 2012ko udan, Eusko Jaurlaritzako Droga-mendekotasunen Zuzendaritzak eskatuta. Laginen diseinuari dagokionez, edizio honetako berritasun nagusia hauxe da: lehendabiziko aldiz diseinu probabilitistiko bat aukeratu da, aurreko edizioetan kuoten bidezko bat erabili baitzen. Horrenbestez, esan dezakegu laginak adierazgarritasun handiagoa duela; izan ere, lagina ausazko hautaketa batean oinarritzen da, eta bertan populazioko elementu bakoitzak hautatua izateko aukera jakin bat du.

el consumo y/o utilización de esas sustancias (alguna vez, en los últimos 12 meses y, en los últimos tres días), la edad del primer contacto y la valoración, entre las personas que habían consumido estas sustancias, de su eficacia en términos de la relación existente entre los perjuicios y sus beneficios. Aunque ya desde el año 2004 los sucesivos cuestionarios de Euskadi y Drogas incluían preguntas relacionadas con el dopaje, en esta edición se decidió desligar estos consumos del resto de consumos de drogas ilegales (en las preguntas relacionadas con el consumo de drogas ilegales, el uso de sustancias dopantes estaba incluido en el mismo listado que el cannabis o la ketamina) al considerar el dopaje una práctica claramente diferenciada de los consumos de drogas ilegales.

- Para finalizar, se debe señalar que el último bloque de preguntas ha pasado de 9 a 17 preguntas, debido a que se han incluido preguntas específicas relacionadas con la situación socioeconómica de las personas entrevistadas y con su estado de salud.

En relación al cuestionario de 2010, cabe por último señalar que han sido suprimidas únicamente dos preguntas (sólo incluidas en los cuestionarios de 2008 y 2010) sobre la visibilidad en el entorno cercano de situaciones relacionadas con el uso de drogas ilegales.

### 1.3.2. Diseño muestral

La muestra utilizada en la presente edición de la encuesta Euskadi y Drogas fue diseñada por Eustat a petición de la Dirección de Drogodependencias del Gobierno Vasco en verano de 2012. En cuanto a su diseño muestral, la principal novedad de esta edición radica en que por primera vez se ha optado por un diseño de tipo probabilístico, frente a ediciones anteriores en el que se realizó por cuotas. Puede decirse por tanto que la muestra ha ganado en representatividad en la medida en que la muestra se basa en una selección aleatoria en la que cada elemento de la población tiene una probabilidad conocida de ser seleccionado.



## Laginen esparrua

*Euskadi eta drogak 2012* inkestaren laginen esparruan Euskal Autonomia Erkidegoko familia-etxebizitzetan bizi diren 15 urtetik 74 urtera arteko biztanleak sartzen dira.

Esparrua finkatzeko Eustatek Etxebizitzen Direktorioaren bitartez hautatu zituen familia-etxebizitzak eta, Biztanleriako Estatistika Erregistroaren arabera, haietan bizi diren pertsonak, betiere 15 urtetik 74 urtera artekoak.

## Laginen diseinua

Laginen diseinuari dagokionez, etapa bakar bateko lagin estratifikatua da, eta orekatua osasun-eskualdeagatik zein sexu, udalerrri-tamaina eta naziotasunagatik (nazionala edo etorkina).

## Laginen unitateak

Euskal Autonomia Erkidegoko familia-etxebizitzetan bizi diren 15 urtetik 74 urtera arteko biztanleak.

## Laginaren tamaina

Lagin teorikoaren diseinuan 2007 gizabanako titular hautatu ziren, eta beste horrenbeste ordezkari eta erreserba. Laginaren tamaina erreala: 2007 gizabanako.

## Estratifikazioa

Laginketa egiteko bizitokiko Lurralde Historikoa eta adina aldagaiak gurutzatu ziren hurrengo taulan ikusitako banaketaren arabera:

## Marco de la muestra

El marco de la muestra de la encuesta Euskadi y Drogas 2012 lo compone la población de 15 a 74 años más residentes en viviendas familiares de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Para fijar el marco, Eustat seleccionó a partir del Directorio de Viviendas las viviendas familiares, y aquellas personas que, según el Registro Estadístico de Población, residen en ellas, y cuya edad está entre los 15-74 más años.

## Diseño muestral

Por lo que se refiere al diseño muestral, se trata de una muestra estratificada de una sola etapa y equilibrada tanto por comarca sanitaria como por sexo, tamaño de municipio y nacionalidad (nacional e inmigrante).

## Unidades muestrales

Población de 15 a 74 años residente en viviendas familiares de la Comunidad Autónoma de Euskadi

## Tamaño de la muestra

En el diseño de la muestra teórica se seleccionaron 2007 individuos titulares, y otros tantos suplementos y reservas. El tamaño real de la muestra ha sido de 2007 individuos.

## Estratificación

El muestreo se realizó por el cruce de las variables Territorio Histórico de residencia y edad, según la distribución que se observa en la siguiente tabla:



## 1. taula / Tabla 1

**Laginaren esparruko biztanleriaren banaketa, Lurralde Historikoaren eta adin-taldearen arabera**  
**Distribución de la población del marco de la muestra, por Territorio Histórico y grupos de edad**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira / Total
15-24	26.730	92.389	59.179	178.298
25-34	44.591	148.975	88.090	281.656
35-44	55.212	189.079	116.613	360.904
45-54	49.618	181.958	108.603	340.179
55-64	40.268	148.960	91.188	280.416
65-74	29.050	109.956	68.483	207.489
<b>Guztira / Total</b>	<b>245.469</b>	<b>871.317</b>	<b>532.156</b>	<b>1.648.942</b>

**Esleipena**

Irizpide hauek finkatu ziren estratifikazio-maila bakoitzarentzat: lehenik eta behin, banaketa Lurralde Historiko bakoitzeko gizabanako kopurua-  
ren erro karratuarekiko proportzionala izan zen. Horretaz gain, lurralde bakoitzean, adin-talde gazte-  
teenen esleipena (15-24 urte, 25-34 urte eta 35-44 urte) bikoitza izan zen, aurreko urteetako laginen  
diseinuetan egin zen moduan.

Hauxe da esleipenaren emaitza:

**Afijación**

Para cada uno de los niveles de estratificación los criterios fijados fueron los siguientes. En primer lugar, el reparto fue proporcional a la raíz cuadrada del número de individuos por Territorio Histórico. Además, en cada territorio, la afijación en los grupos de edad más jóvenes (15-24 años, 25-34 años y 35 a 44 años) fue del doble, tal y como ya se hacía en los diseños muestrales de años anteriores.

Este es el resultado de la afijación fue el siguiente:

## 2. taula. / Tabla 2.

**Laginaren esleipena, Lurralde Historikoaren eta adin-taldearen arabera**  
**Afijación de la muestra, por Territorio Histórico y grupos de edad**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira / Total
15-24	102	194	150	446
25-34	102	194	150	446
35-44	102	194	150	446
45-54	51	97	75	223
55-64	51	97	75	223
65-74	51	97	75	223
<b>Guztira / Total</b>	<b>459</b>	<b>873</b>	<b>675</b>	<b>2.007</b>

### Zozketa

Banaketa teorikoa lortutakoan, estratuetan ausazko zozketa simple bana egin zen.

### Oreka

Lagina Kuboaren Metodoa erabiliz hautatu zen. Metodo horrek jatorrizko biztanleriaren proportzioei eusten die laginean oreka-aldagai batzuetan, diseinuaren partekotasun-aukerak aintzat hartuta. Lagina aldagai hauen gainean orekatu zen:

- 15 eta 74 urte bitarteko gizabanakoen kopurua EAeko zazpi osasun-eskualdeetako bakoitzean: Araba, Gipuzkoa mendebaldea, Gipuzkoa ekialdea eta Bizkaiko barnealdea, Ezkerraldea-Enkarterri, Uribe eta Bilbo.
- Udalerrietako 15 eta 74 urte bitarteko gizabanako kopurua, haien biztanle kopuruaren arabera: hiriburuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrak, 25.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrak, 10.001 eta 25.000 biztanle bitarteko udalerrak eta 10.000 biztanle arteko udalerrak.
- Espainiako eta atzerriko naziotasuna duten biztanleak.

### Ordezkoak

Lagina osatzeko, ordezko eta erreserba bana aukeratu zen hautatutako gizabanako titularrentzat. Ordezkoak eta erreserbak eskuratzeko jatorrizko laginean erabilitako estratuen arabera lagin-banaketa bera erabili zen, esparrutik lehendik hautatutako gizabanakoak kenduta. Ordezko unitateen laginak Kuboaren Metodoarekin orekatu ziren lagin nagusirako erabilitako aldagai berberen gainean.

#### 1.3.3. Landa-lana

Ikertaldekin egin zuen landa-lana. *Euskadi eta drogak 2012* inkestari buruzko informazioa 2012ko uztailaren 3tik 27ra bitartean bildu zen; landa-lanak lau asteko iraupena izan zuen, hortaz.

### Sorteo

Una vez obtenido el reparto teórico, se realizó un sorteo aleatorio simple en cada estrato.

### Equilibrio

La muestra fue seleccionada utilizando el Método del Cubo. Este método mantiene las proporciones de la población original en la muestra en unas variables de equilibrio, teniendo en cuenta las probabilidades de inclusión del diseño. La muestra se equilibró sobre las siguientes variables:

- Número de individuos de 15 a 74 años en cada una de las siete comarcas sanitarias que componen la CAPV: Álava, Gipuzkoa Oeste, Gipuzkoa Este y las vizcaínas Interior, Ezkerraldea-Enkarterri, Uribe y Bilbao.
- Número de individuos de 15 a 74 años en los municipios, según su tamaño de población: Capitales, municipios de 50.001 a 100.000 habitantes, municipios de 25.001 a 50.000 habitantes, municipios de 10.001 a 25.000 habitantes y municipios hasta 10.000 habitantes.
- Número de población con nacionalidad española y extranjera

### Sustitutos

Para completar la muestra, se procedió a la selección de un suplente y un reserva para cada uno de los individuos titulares seleccionados. Tanto los suplentes como los reservas fueron extraídos respetando el mismo reparto muestral por estratos utilizado en la muestra original y eliminando del marco los individuos ya seleccionados. Las muestras de unidades sustitutas fueron equilibradas con el Método del Cubo sobre las mismas variables que la muestra principal.

#### 1.3.3. Trabajo de campo

El trabajo de campo fue desarrollado por Ikertalde. La recogida de la información relativa a la encuesta Euskadi y Drogas 2012 comenzó el 3 de Julio de 2012 y finalizó el día 27 del mismo mes, teniendo el trabajo de campo una duración de cuatro semanas.

Hauexek osatu dute landa-lana: eragiketaren arduradun bat, landa-laneko prozesuaren koordinatzaile bat, landa-laneko 4 buru, 2 bisita-ikuskatzaile eta 35 inkestatzaile: 9 Araban, 15 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan.

Landa-lana egiteko, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetako galdesortez gain, material hauek erabili dira nagusiki:

- Aurkezteko gutuna: inkestatutako pertsona guztiei emandako gutun horretan Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren izena, landa-lana egin behar zuen enpresa, 900 zenbakidun linea bat eta datuak babestearen bermea jaso ziren.
- Inkestatzailearen txartela: dokumentu horrek egiaztatzen du eramaileak Ikertalde enpresarentzat lan egiten duela.
- Kodeen eskuliburua: inkestatzaileek erabiltzen dute inkestatutako pertsonaren eta familia-buruaren lanbidea kodetzeko, 87. galderan.
- Ibilbide-orria: inkestatzaileek erabili zuten ibilbideko inkesta bakoitza egin aurretiko gorabeherak jasotzeko, hala nola: etxean ez daudela, inkesta egiteari uko egin diotela edo inkesta hasi ondoren bertan behera utzi dutela erregistratzea.
Tras las caídas que se venían experimentando desde 2004 en el porcentaje de bebedores excesivos y de riesgo en fin de semana, en 2012 se produce un pequeño repunte en relación a 2010, lo que no impide que las tasas de consumo excesivo y de riesgo sigan considerándose, en términos evolutivos, intermedias (es decir, alejadas tanto de los mínimos registrados a finales de los 90 y principios de los 2000 como de los máximos registrados a principios de los 90 y a mediados de la primera década de este siglo).

### 8. grafikoa / Gráfico 8

#### Gutxi edaten duen eta asteburuetan gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa egiten duen biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 1992-2012

#### Evolución del porcentaje de la población poco bebedora y con consumos excesivos o de riesgo en fines de semana. 1992-2012



Azken urtean alkohola edan duten pertsonen % 75 ez dira inoiz mozkortu. Alkohola kontsumitu duten pertsonen % 3 –biztanleriaren % 2,2 eta 36.000 pertsona, alegia– hamabi aldiz baino gehiago mozkortu dira azken urtean.

El 75% de las personas que han bebido alcohol en el último año no se han emborrachado en ninguna ocasión. El 3% de las personas con consumos de alcohol –que equivalen al 2,2% de la población y a unas 36.000 personas– se han emborrachado más de doce veces durante el último año.

## 12. taula / Tabla 12

**Biztanleriaren banaketa azken urteko mozkorraldi kopuruaren arabera. 2012**  
**Distribución de la población en función del número de borracheras en el último año. 2012**

	<b>Abs.</b>	<b>Biztanleria- ren %-a % de la población</b>	<b>Alkohola kontsumituriko pertsoneen %-a % de las personas con consumos de alcohol</b>
1-5 aldiz urtean / De 1 a 5 veces al año	196.256	11,9	16,5
6-12 aldiz urtean / De 6 a 12 veces al año	50.688	3,1	4,2
12tan baino gehiagotan urtean / Más de 12 veces al año	36.149	2,2	3,0
Alkohola kontsumitu du baina mozkortu gabe Ha consumido alcohol pero sin emborracharse	903.229	54,8	76,1
Ez du alkoholik kontsumitu / No ha consumido alcohol	221.902	13,5	-
Ez du inoiz alkoholik probatu No ha probado nunca el alcohol	215.626	13,1	-
ED/EE / NS/NC	25.091	1,5	-
Guztira / Total	1.648.942	100,0	100,0


Bilakaerari dagokionez, inoiz mozkortu ez direla dioten biztanleen ehunekoa egonkortu dela dirudi; izan ere, inkestan galdera hau egiten hasi zenetik nabarmen egin du gora. Edozelan ere, garrantzitsua da aipatzea urtean behin gutxienez mozkortu direla diotenen kopurua nabarmen murriztu dela –2004 eta 2012 bitartean % 29,6tik % 17,2ra igaro dira–, baita hilean behin gutxienez egin dutela diotenak ere (% 9tik % 2ra).

En términos evolutivos, parece haberse estabilizado el porcentaje de la población que señala no haberse emborrachado en ninguna ocasión, tras crecer de forma notable desde que se empezara a plantear esta pregunta en la encuesta. Lo importante en cualquier caso es que quienes dicen haberse emborrachado al menos una vez al mes se han reducido de forma clara –entre 2004 y 2012 han pasado del 29,6% al 17,2%–, así como quienes señalan emborracharse al menos una vez al mes (que han pasado del 9% al 2%).



## 9. grafikoa / Gráfico 9

**Biztanleriaren banaketaren bilakaera azken urteko mozkorraldi kopuruaren arabera. 2004-2012**  
**Evolución de la distribución de la población en función del número de borracheras**  
**en el último año. 2004-2012**



*Euskadi eta drogak* txostenaren 2012ko edizio honetan erabilitako galdesortaren bidez alkohola kontsumitzen dutenek kontsumo intentsiboak egiten dituzten ere azter dezakegu (hots, gutxienez bost edari alkoholdun bi ordu baino gutxiagoan). Bildutako datuen arabera, biztanleriaren % 4,6k egin dute era horretako kontsumorik azken hilean –azken hilean alkohola kontsumitu dutenen % 7,3 eta 75.000 pertsona baino gehixeago–. Orotara, edaleen ia heren batek egin du era horretako kontsumorik behin gutxienez azkeneko 30 egunetan –300.000 pertsona inguru–.

El cuestionario utilizado en esta edición de *Euskadi y Drogas 2012* también permite analizar en qué medida los consumidores de alcohol realizan consumos intensivos, definidos como el consumo de cinco o más bebidas alcohólicas en un periodo inferior a dos horas. De acuerdo a los datos recogidos, el 4,6% de la población –que suponen el 7,3% de las personas que han consumido alcohol durante el último mes y algo más de 75.000 personas– habrían realizado este tipo de consumos en el último mes. En total, casi un tercio de las personas bebedoras –en torno a 300.000 personas– habría realizado al menos en alguna ocasión consumos intensivos de este tipo en los últimos 30 días.

## 13. taula / Tabla 13

**Biztanleriaren banaketa azken 30 egunetan izandako kontsumo intentsiboen maiztasunaren arabera. 2012****Distribución de la población por la frecuencia episodios de consumo intensivo a lo largo de los últimos 30 días. 2012**

	<b>Abs.</b>	<b>Biztanleriaren %-a % de población</b>	<b>Alkohola kontsumitu dutenen %-a % de consumidores de alcohol</b>
1-2 aldiz hilean / Entre 1 y 2 veces al mes	165.319	10,0	15,7
3-4 aldiz hilean / Entre 3 y 4 veces al mes	87.164	5,3	8,3
Gutxienez 5 aldiz hilean / 5 o más veces al mes	76.629	4,6	7,3
Ez du kontsumo intentsiborik egin No ha tenido episodios de consumo intensivo	723.645	43,9	68,7
Ez du edan azken 30 egunetan No ha bebido en los últimos 30 días	360.121	21,9	-
ED/EE / NS/NC	20.437	1,2	-
Ez du alkoholik probatu / No ha probado el alcohol	215.626	13,1	-
Guztira / Total	1.648.942	100,0	-

2.2.3. Kontsumoaren balorazioa, alkoholari egotzitako onurak, mendetasun-arriskuko egoerak eta kontsumoa uzteko edo murrizteko prozesuak

2.2.3. La valoración de los consumos, los beneficios atribuidos al alcohol, las situaciones de riesgo de adicción y los procesos de abandono o reducción del consumo

a) *Kontsumoen balorazioa*

Azken 30 egunetan alkohola kontsumitu duten biztanleen % 78k uste dute gutxi edaten dutela, % 10ek dezente edaten dutela eta % 0,9k, azkenik, asko edaten dutela diote –10.000 pertsona inguru–. Balorazio pertsonala, baina, ez dator bat pertsona haiek adierazitako kontsumoen ondoriozko sailkapenarekin: lanegunetako gehiegizko edo arriskuaren barruko edaletzat hartutako % 47k eta asteburuetan egoera horretan daudenen % 63k gutxi edaten dutela esaten dute. Pertsona horien % 6,8k eta % 3,8k baino ez dute uste asko edaten dutela, hurrenez hurren. Desadostasuna hori gerta daiteke kontsumo-tipologia desegokia erabiltzeagatik edo nork bere kontsumoari behar baino balorazio txikiagoa emateagatik. Bigarren aukera delakoan gaude, azken urtean 12 aldiz baino gehiagotan mozkortu direla diotenen % 49k gutxi edaten dutela baitiote,

a) *Valoración de los consumos*

El 78% de la población que ha consumido alcohol en los últimos 30 días considera que bebe poco, el 10% considera que bebe bastante y el 0,9% –unas 10.000 personas– señalan que beben mucho. La valoración personal no coincide sin embargo con la clasificación que se deriva de los consumos declarados por esas personas: el 47% de las personas consideradas bebedoras excesivas o de riesgo en días laborales y el 63% de quienes están en esa situación en fin de semana aseguran beber poco. Apenas el 6,8% y el 3,8%, respectivamente, de esas personas consideran beber mucho. La explicación a esta divergencia puede radicar tanto en la utilización de una tipología de consumos inadecuada como en una infravaloración del nivel de los respectivos consumos por parte de las personas consumidoras. La segunda de las opciones parece ser la más verosímil

eta haietako % 9,8k baino ez baitute onartzen asko edaten dutela.

si se tiene en cuenta que el 49% de quienes señalan haberse emborrachado más de 12 veces en el último año dicen beber poco y que sólo el 9,8% de ellos reconoce beber mucho.

#### 14. taula / Tabla 14

### Alkohola kontsumitu duen biztanleriaren banaketa norberaren kontsumoaren balorazioaren arabera. 2012

#### Distribución de la población que ha consumido alcohol en función de la valoración del propio consumo. 2012

	Kontsumitzaileak guztira Total de consumidores	Gehiegizko eta arriskuaren barruko kontsumitzaileak Consumidores excesivos y de riesgo		12 mozkorraldi baino gehiago urtean Más de 12 borracheras al año
		Lanegunetan Días laborables	Asteburuan Fin de semana	
Batere ez / Nada	9,4	0,0	2,7	0,0
Gutxi / Poco	78,4	47,0	63,6	49,8
Dezente / Bastante	10,5	46,2	28,6	39,1
Askok / Mucho	0,9	6,8	3,8	9,8
ED/EE / NS/NC	0,8	0,0	1,4	1,2
Guztira / Total	100,0	100,0	100,0	100,0

#### b) Alkoholari egotzitako onurak eta kalteak

Azken hilabeteetan alkohola edan duten pertsona guztien artean, % 9,3k uste dute alkoholak kalteak baino ez dizkiela eragiten, eta % 19,6k kalte gehiago eragiten dizkiela onura baino. Kontsumitzaileen % 39,6k kalte adina onura eragiten dituela uste dute. Edaleen % 15,5en iritziz kontsumoak kalte gehiago sortzen ditu onura baino, eta % 6,4k onurak baino ez dizkiote egozten alkoholaren kontsumoari –69.000 lagun–.

#### b) Beneficios y perjuicios atribuidos al alcohol

Del total de las personas que han bebido alcohol en el último mes, el 9,3% consideran que el alcohol sólo le genera perjuicios y el 19,6% que ocasiona más perjuicios que beneficios. El 39,6% de los consumidores creen que ocasiona tantos perjuicios como beneficio. El 15,5% de los bebedores creen que el consumo ocasiona más beneficios que perjuicios y el 6,4% -unas 69.000 personas- sólo atribuyen beneficios al consumo de alcohol.

## 15. taula / Tabla 15

**Azken hilabeteen alkohola kontsumitu duen biztanleriari alkoholaren kontsumoari egotzitako kalteak eta onurak. 2012****Atribución de perjuicios y beneficios al consumo de alcohol por parte de la población con consumos de alcohol en el último mes. 2012**

	<b>Kopuru absolutuak</b> Absolutos	<b>Biztanleriaren %-a</b> % de la población	<b>Alkohola kontsumitu dutenak aintzat hartuta</b> % con consumos de alcohol
Kalteak bakarrik / Sólo perjuicios	99.247	6,0	9,3
Kalte gehiago onura baino Más perjuicios que beneficios	209.348	12,7	19,6
Kalte adina onura Tantos perjuicios como beneficios	423.803	25,7	39,6
Onura gehiago kalte baino Más beneficios que perjuicios	166.271	10,1	15,5
Onurak bakarrik / Sólo beneficios	68.884	4,2	6,4
ED/EE / NS/NC	102.465	6,2	9,6
Guztira / Total	1.070.018	64,9	100,0

Alkoholaren kontsumoak kalteak bakarrik edo onurak baino kalte gehiago eragiten dituela uste duten edaleen ehunekoa % 33tik % 28ra murriztu da 2010etik, baita kalte baino onura gehiago edo onurak bakarrik sortzen dituela uste dutenena ere (% 27tik % 22ra). Alkoholaren kontsumoak kalte adina onura eragiten dituela uste duten edaleen (zehazki azken hilabeteen edan duten pertsonen) ehunekoak, aitzitik, gora egin du (% 32tik % 39ra).

c) *Mendetasun-arriskua*

CAGE testeko galderak jaso dira lehen aldiz *Euskadi eta drogak* txostenaren 2012ko galdesortan. Test hori *screening* metodo oso labur eta erraz bat da alkoholarekiko mendetasuna duten gizabanakoak bereizteko; metodo eraginkorra da oso, alkoholaren gehiegizko kontsumo-kasuak hautemateko. Test horren arabera, alkoholismoaren susmopekotzat hartzen dira testaren hurrengo galdera hauetako bitan edo gehiagotan bai erantzun dutenak:

Desde 2010, el porcentaje de los bebedores que creen que el consumo de alcohol ocasiona sólo perjuicios o más perjuicios que beneficios se ha reducido del 33% al 28%, así como el de quienes creen que ocasiona más beneficios que perjuicios o, incluso, sólo beneficios (del 27% al 22%). Ha crecido, por el contrario, el porcentaje de personas bebedoras (más concretamente, personas que han bebido en el último mes) que consideran que el consumo de alcohol tiene tantos perjuicios como beneficios (del 32% al 39%).

c) *Riesgo de adicción*

El cuestionario de Euskadi y Drogas correspondiente a 2012 ha incorporado por primera vez en su cuestionario las preguntas del test CAGE. Este test consiste en un método de *screening* muy breve y sencillo para discriminar sujetos con una dependencia respecto al alcohol, y se considera un método eficaz para detectar posibles casos de abuso de alcohol. De acuerdo con este test, se consideran personas sospechosas de alcoholismo aquellas que registran dos o más respuestas afirmativas a las siguientes cuatro preguntas:

- Inoiz pentsatu duzu gutxiago edan beharko zenukeela?
- Molestatu zaitu zure edateko modua dela-eta jendeak kritikak egin izanak?
- Gaizki edo errudun sentitu zara zure edateko modua dela-eta?
- Inoiz edan duzu goizean goiz, nerbioak lasaitzeko edo biharamunekoa kentzeko?
- ¿Ha pensado alguna vez que debería beber menos?
- ¿Le ha molestado que la gente le haya criticado su forma de beber?
- ¿Se ha sentido mal o culpable por su forma de beber?
- ¿Ha bebido alguna vez a primera hora de la mañana para calmar los nervios o evitar resaca?

Zenbat eta puntuazio handiagoa lortu, orduan eta mendetasun handiagoa dagoela jotzen da oro har; hori aintzat hartuta, baremo hau aplikatzen da:

- Baiezko erantzunik ez edo bakar bat: edale soziala.
- Baiezko bi erantzun: arriskuaren barruko kontsumoa.
- Baiezko hiru erantzun: kontsumo kaltegarria.
- Baiezko lau erantzun: alkoholarekiko mendetasuna.

CAGE testa aplikatu ondoren, euskal biztanleen % 3,5, gutxienez, arriskuaren barruko kontsumitzaileak dira (57.000 bat), eta % 72,1 edale sozialak.

En general se considera que cuanto mayor es la puntuación obtenida, mayor es la dependencia, de forma que se aplica el siguiente baremo:

- Ninguna o una respuesta positiva: bebedor social;
- Dos respuestas positivas: consumo de riesgo;
- Tres respuestas positivas: consumo perjudicial;
- Cuatro respuestas positivas: dependencia alcohólica.

Tras aplicar el test CAGE, se ha determinado que un 3,5% de la población vasca, unas 57.000 personas, serían al menos consumidoras de riesgo, mientras que el 72,1% podría considerarse en la categoría de bebedor social.

#### 16. taula / Tabla 16

### Biztanleriaren banaketa CAGE testaren emaitzen arabera. 2012 Distribución de la población en función de los resultados del test CAGE. 2012

	Abs.	Biztanleriaren %-a % de la población	Alkohola kontsumitu dutenak aintzat hartuta % con consumos de alcohol
Ez du alkoholik probatu edo abstemia da No ha probado el alcohol o es abstemio/a	403.069	24,4	--
Edale soziala / Bebedor/a social	1.188.160	72,1	95,4
Arriskuaren barruko kontsumoa / Consumo de riesgo	27.125	1,6	2,2
Kontsumo kaltegarria / Consumo perjudicial	23.560	1,4	1,9
Alkoholarekiko mendetasuna / Dependencia alcohólica	7.029	0,4	0,6
Guztira / Total	1.648.942	100,0	100,0

*Screening* hori aintzat hartuta, biztanleriaren % 1,8k kontsumo kaltegarria edo alkoholarekiko mendetasuna du. Eusko Jaurlaritzak egindako EAEko Osasun Inkestak alkoholismoaren susmopeko pertsonak (arriskuaren barruko kontsumoa eta kontsumo kaltegarria eta alkoholarekiko mendetasuna) biztanleriaren % 4,2 zirela adierazi zuen 2007an –76.000 pertsona baino gehixeago–; hortaz, egoera horiek nolabait murriztu direla esan dezakegu.

Talde horietako edaleek –edale sozialek, arriskuaren barrukoek eta kontsumo kaltegarria edo mendetasuna dutenek–, logikoa denez, oso bestelako kontsumo-ereduak dituzte. Hala, kontsumitzaile sozialen % 2,4k baino ez dute gehiegizko kontsumorik asteburuan, baina kontsumo kaltegarriak dituzten pertsonen artean ehuneko hori % 23koa da. Halaber, nabarmendu beharra dago CAGE testean kontsumo handia izan duten edaleen ia erdiak kontsumo oso moderatua izaten dutela asteburuan (abstemioak edo ia abstemioak). Lanegunetako kontsumoari dagokionez, handiagoa da mendetasun-arriskuarekin duen lotura, egun horietan gehiegi edo arriskuaren barruan edaten dutenen % 50ek positibo eman baitute CAGE testean.

Sólo un 1,8% de la población, de acuerdo a este *screening*, estaría en una situación de consumo perjudicial o dependencia alcohólica. En 2007, la Encuesta de Salud de la CAPV realizada por el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco cifraba en un 4,2% de la población –algo más de 76.000 personas– las personas consideradas sospechosas de alcoholismo (consumo de riesgo y consumo perjudicial y dependencia alcohólica), con lo que podría hablarse de una cierta reducción en la incidencia de estas situaciones.

Lógicamente, los bebedores de cada uno de esos grupos –bebedores sociales, de riesgo y con consumos perjudiciales o dependencia– mantienen pautas de consumo muy diferentes. Así, mientras sólo el 2,4% de los consumidores sociales tienen consumos excesivos en fin de semana, entre las personas con consumos perjudiciales el porcentaje es del 23%. También es importante destacar, en cualquier caso, que casi la mitad de los bebedores que han registrado un consumo elevado en el test CAGE mantienen durante el fin de semana consumos muy moderados (abstemios o casi abstemios). En el caso del consumo en días laborables, la asociación con el riesgo de dependencia o adicción es mayor, dado que el 50% de quienes beben de forma excesiva o de riesgo en esos días dan un resultado positivo en el test CAGE.

#### 17. taula / Tabla 17

### Alkohol-kontsumoaren hainbat ereduren eragina CAGE testaren bidez sailkatutako kontsumitzaileen artean. 2012 (Ehuneko bertikalak)

#### Incidencia de diversas pautas de consumo de alcohol entre las personas consumidoras clasificadas a partir del test CAGE. 2012 (Porcentajes verticales)

		Soziala Bebedor/a social	Arriskua Consumo de riesgo	Kaltegarria edo mendetasuna Consumo perjudicial o dependencia alcohólica	Abstemioa Abstemio	Guztira Total
Egungo alkohol-kontsumoaren maiztasuna	Inoiz ez / Nunca	0,0	0,0	0,0	100,0	24,4
	Noizbehinka Ocasionalmente	59,1	0,0	0,0	0,0	42,6
Ocasiones y frecuencia de consumo de alcohol en la actualidad	Jaiegun eta asteburu gehienetan La mayoría de festivos y fines de semana	22,4	60,5	52,9	0,0	18,1
	Egun gehienetan La mayoría de los días	18,1	39,5	47,1	0,0	14,6
	ED/EE / NS/NC	0,4	0,0	0,0	0,0	0,3

... / ...

... / ...

		Soziala Bebedor/a social	Arriskua Consumo de riesgo	Kaltegarria edo mendetasuna Consumo perjudicial o dependencia alcohólica	Abstemioa Abstemio	Guztira Total
Hasteko adina Edad de inicio	Ez du inoiz probatu No se ha iniciado	0,0	0,0	0,0	53,5	13,1
	16 urte baino lehen Antes de los 16 años	58,4	71,9	79,8	21,4	49,9
	17 eta 18 urte bitartean Entre los 17 y 18 años	25,1	12,1	14,7	14,8	22,2
	18 urte eta gero Después de los 18 años	13,3	6,0	2,2	9,3	12,0
Kontsumoa lanegunetan Consumo en días laborables	Abstemioa edo ia abstemioa / Abstemio o casi abstemio	57,8	16,4	21,0	100,0	66,7
	Gutxi edaten du Poco bebedor	28,7	40,6	28,6	0,0	21,9
	Gehiegizko eta arriskuaren barruko edalea Bebedor excesivo y de riesgo	13,5	43,0	50,4	0,0	11,4
Kontsumoa asteburuetan Consumo en finde de semana	Abstemioa edo ia abstemioa / Abstemio o casi abstemio	88,1	62,8	49,3	100,0	89,9
	Gutxi edaten du Poco bebedor	9,5	21,6	27,5	0,0	7,7
	Gehiegizko eta arriskuaren barruko edalea Bebedor excesivo y de riesgo	2,4	15,6	23,3	0,0	2,4
Mozkorraldien maiztasuna azken urtean Frecuencia de borracheras en el último año	Bat ere ez / Ninguna	77,1	43,2	30,5	100,0	81,3
	1-12 aldiz urtean De 1 a 12 veces al año	18,8	30,8	51,1	0,0	15,0
	12tan baino gehiagotan urtean Más de 12 veces al año	2,3	18,1	13,2	0,0	2,2
Guztira / Total		72,1	1,6	1,4	0,4	24,4

Egoera are argiago ikusten da banaketa kontsumitzaile moten arrisku-mailaren arabera aztertzen badugu. Esate baterako, kontsumitzaile guztien % 95en aurrean, asteburuan gehiegi edaten duten pertsonen % 85 edo lanegunetan gehiegi edaten dutenen % 71 baino ez dira edale sozialak. Hala, erabili izan dugun sailkapenaren arabera, lanegunetako gehiegizko kontsumitzaileak edo arriskuaren barrukoak diren hamar pertsonetatik zazpik alkoholismo-arriskurik ez badute ere, haien arrisku-maila (% 29) alkohola kontsumitzen duen biztanleriaren halako sei dela nabarmendu beharra dago. Gauza

La situación se observa de forma más clara si se analiza la distribución de acuerdo al nivel de riesgo de los diversos tipos de consumidores. Así por ejemplo, frente al 95% del conjunto de los consumidores, sólo el 85% de las personas que consumen en exceso los fines de semana o el 71% de los que consumen en exceso durante los días laborables son bebedores sociales. Así, si bien es cierto que siete de cada diez personas que, de acuerdo a la clasificación que se viene utilizando, son consumidores excesivos o de riesgo en días laborales no presentarían riesgo alguno de alcoholismo, también es cierto que su ni-

bera esan dezakegu hilean behin mozkortzen diren pertsonen buruz: % 75 edale sozialak dira, CAGE testaren arabera, baina haien arrisku-tasa (ia % 25) alkohola kontsumitzen duten pertsona guztiena baino askoz handiagoa da.

vel de riesgo (29%) multiplica por seis el del conjunto de la población que consume alcohol. Lo mismo puede decirse de quienes se emborrachan una vez al mes: si bien el 75% de todos ellos sería bebedor social de acuerdo al test CAGE, su tasa de riesgo (casi del 25%) es muy superior a la del conjunto de las personas que consumen alcohol.

18. taula / Tabla 18

**Alkohol-kontsumoaren hainbat ereduren banaketa CAGE testean oinarriturik egindako alkohol-kontsumoaren tipologiaren arabera. 2012 (Ehuneko horizontalak)**  
**Distribución de diversas pautas de consumo de alcohol en función de la tipología de consumo de alcohol elaborada a partir del test CAGE. 2012 (Porcentajes horizontales)**

		<b>Edale soziala Bebedor/a social</b>	<b>Arriskuaren barruko kontsumoa Consumo de riesgo</b>	<b>Kontsumo kaltegarria edo alkoholarekiko mendetasuna Consumo perjudicial o dependencia alcohólica</b>
Kontsumoaren maiztasuna	Noizbehinkako kontsumoa Consumo ocasional	100,0	0,0	0,0
Frecuencia de consumo	Alkoholaren eguneroko kontsumoa Consumo diario de alcohol	89,6	4,5	6,0
	Kontsumoa jaiegun eta asteburu gehienetan Consumo mayoría de festivos y fines de semana	89,1	5,5	5,4
Hasteko adina Edad de inicio	16 urte baino lehenago Edad de inicio antes de 16	94,2	2,3	3,5
	18 urte eta gero Edad de inicio después de 18	98,6	1,0	0,4
Kontsumoaren intentsitatea Intensidad de consumo	Gutxi edaten du lanegunetan Poco bebedor en días laborables	88,8	4,6	6,6
	Gutxi edaten du asteburuetan Poco bebedor en fines de semana	94,5	3,0	2,4
	Gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa lanegunetan Excesivo o de riesgo en días laborables	71,4	10,7	17,9
	Gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa asteburuetan Excesivo o de riesgo en fines de semana	85,6	6,2	8,2
Mozkorraldiak Borracheras	Bat ere ez / Ninguna borrachera	97,8	1,2	1,0
	12 mozkorraldi baino gehiago urtean Más de 12 borracheras al año	75,3	13,6	11,2
Guztira / Total		95,4	2,2	2,5



d) *Kontsumoaren jarraitutasun-indizeak*

Euskadi eta drogak txostenak, *screening* honekin batera, kontsumoaren jarraitutasun-adierazleei buruzko datuak ere eskaintzen ditu, baita alkohol-erabileraren patroietan izandako aldaketei eta horiek eragin dituzten arrazoiei buruzkoak ere. Jarraitutasun-adierazleei dagokienez, inkestaren datuek diote 2012an alkohola bizitzan behin gutxienez probatu duten pertsona guztien % 84k azken urtean ere edan dutela, eta noizbait kontsumitu dutenen % 74k azken hilean ere egin dutela. Taulan ikus daitekeenez, indize horiek apur bat behera egin dute azken urteotan, eta agerian uzten dute alkohol-kontsumoaren jarraitutasuna nabarmen handiagoa dela beste substantzia batzuen bano.

d) *Índices de continuidad en el consumo*

Junto a este *screening*, Euskadi y Drogas ofrece datos relativos a los indicadores de continuidad en el consumo, así como a los cambios experimentados en los patrones de uso de alcohol y a las razones que han motivado tales cambios. En lo que se refiere a los indicadores de continuidad, los datos de la encuesta señalan que, en 2012, el 84% de todas las personas que han probado alguna vez en su vida el alcohol han bebido también en el último año y que el 74% de quienes lo han consumido alguna vez lo han hecho también en el último mes. Estos índices, como se observa en la tabla, han tendido ligeramente a la baja en los últimos años, y ponen de manifiesto que la continuidad en el consumo de alcohol es notablemente más elevada que en lo que se refiere a otras sustancias.

## 19. taula / Tabla 19

**Azkenaldiko Kontsumo Indizearen (AKI) eta Egungo Kontsumo Indizearen (EKI) bilakaera alkohol-kontsumitzaileen artean. 2000-2012**

**Evolución del índice de continuidad reciente (ICR) y de continuidad actual (ICA) entre la población consumidora de alcohol. 2000-2012**

	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012
AKI / ICR	86,5	85,5	85,8	88,0	85,7	84,9	84,5
EKI / ICA	-	-	77,9	77,9	74,5	71,9	74,7

e) *Aldaketak alkoholaren kontsumo-ereduetan*

Biztanleriaren % 11,2k edateari utzi diotela eta % 34k lehen baino gutxiago edaten dutela esan dute 2012an. Guztira, noizbait alkohola edan duten pertsonen erdiak baino gehiagok kontsumoa utzi edo murriztu dute beren bizitzaren beste garai batzuekin alderatuta.

e) *Cambios en las pautas de consumo de alcohol*

En 2012, un 11,2% de la población señala haber dejado de beber y un 34% asegura beber menos que en el pasado. En total, más de la mitad de las personas que han consumido alcohol en alguna ocasión han cesado o reducido sus consumos en relación a otras épocas de su vida.

## 20. taula / Tabla 20

**Alkohola noizbait probatu duen biztanleriaren banaketa kontsumo-ereduen aldaketaren arabera. 2012**  
**Distribución de la población que ha probado el alcohol alguna vez en función de la variación en las pautas de consumo. 2012**

	<b>Abs.</b>	<b>Biztanleriaren %-a % de la población</b>	<b>Kontsumi- tzaileen %-a % de consumidores</b>
Bai, edateari utzi diot / Sí, he dejado totalmente de beber	184.871	11,2	12,9
Bai, lehen baino gutxiago edaten dut Sí, bebo menos que antes	562.937	34,1	39,3
Ez, berdin edaten dut / No, bebo mas o menos igual	631.311	38,3	44,0
Ez, lehen baino gehiago edaten dut No, ahora bebo más que antes	48.533	2,9	3,4
ED/EE / NS/NC	5.664	,3	0,4
Ez du alkoholik probatu / No ha probado el alcohol	215.626	13,1	-
Guztira / Total	1.648.942	100,0	100,0

Bilakaerari dagokionez, edateari guztiz utzi diotela esan duten orain arteko biztanleen ehunekorik handiena lortu da 2012an, baina lehen baino gehiago edaten dutela diotenen ehunekoa ere handitu egin da.

En términos evolutivos, 2012 es el año en el que un mayor porcentaje de la población señala haber dejado totalmente de beber, aunque también uno de los que el porcentaje de población que señala beber más que antes es más elevado.

## 21. taula / Tabla 21

**Biztanleriaren banaketaren bilakaera kontsumo-ereduen aldaketaren arabera. 2004-2012**  
**Evolución de la distribución de la población en función de la variación en las pautas de consumo. 2004-2012**

	<b>2004</b>	<b>2006</b>	<b>2008</b>	<b>2010</b>	<b>2012</b>
Bai, edateari utzi diot / Sí, he dejado totalmente de beber	6,0	6,0	10,3	8,5	11,2
Bai, lehen baino gutxiago edaten dut / Sí, bebo menos que antes	31,7	41,8	33,9	36,5	34,1
Ez, berdin edaten dut / No, bebo más o menos igual	48,4	44,9	44,4	43,7	38,3
Ez, lehen baino gehiago edaten dut / No, ahora bebo más que antes	2,6	2,1	3,1	2,2	2,9
ED/EE / NS/NC	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3
Ez du alkoholik probatu / No ha probado el alcohol	11,2	5,2	8,3	9,2	13,1
Guztira / Total	100,0	100,0	100	100,0	100,0

Nolanahi ere, emaitzak bi kategoría handitan taldekatuz gero –edateari utzi diotenak, gutxiago edaten dutenak edo inoiz edan ez dutenak eta berdin edo gehiago edaten dutenak–, ikusiko dugu 2004tik 2012ra bitartean aldaketa handi samarra izan dela: 2004an antzeko banaketa zuten bi talde horiek (% 48 eta % 51), gaur egun, berriz, edaten ez dutenak, edateari utzi diotenak edo gutxiago egiten dutenak gehiengo dira (% 58) berdin edo gehiago edaten dutenen aldean (% 41).

Zerk ekarri du kontsumo txikiago hori? Medikuen aholkuek, antza denez, gero eta garrantzi handiagoa dute, eta 2012an, horixe da, hain zuzen, gehien aipatutako arrazoia; haren ostean, seme-alabak izateak ekarritako ohitura-aldaketa dago. Familiaren arazoek edo presioek ere hartu dute garrantzia, eta osasun-arazoak, aldiz, gutxiagotan aipatu dituzte.

Con todo, si los resultados se agrupan en dos grandes categorías –los que han dejado de beber, beben menos o nunca han bebido y los que beben lo mismo o más- se observa entre 2004 y 2012 un cambio relativamente importante: si en 2004 los dos grupos se repartían de forma aproximadamente similar (48% y 51%) en la actualidad quienes no beben, han dejado de beber o beben menos representan una mayoría (58%) frente a quienes beben lo mismo o más (41%).

¿Y cuáles son las razones que llevan a un menor consumo? Las recomendaciones del médico parecen haber ido ganando un peso cada vez más importante y son de hecho en 2012, seguidas del cambio de hábitos por la llegada de los hijos/as, la razón más citada. Las presiones o problemas con la familia también parecen haber ido ganando peso, mientras se reduce el de quienes aducen problemas de salud.

## 22. taula / Tabla 22

### Alkohol-kontsumoa uzteko edo murrizteko aipatutako arrazoi nagusien bilakaera (arrazoi bakoitza oso edo nahiko garrantzitsutzat jotzen duten pertsonen %-a). 2004-2012 Evolución de los principales motivos aducidos para el abandono o la reducción del consumo de alcohol (% de personas que señalan cada motivo como muy o bastante importante). 2004-2012

	2004	2006	2008	2010	2012
Medikuen aholkuak / Recomendación del médico	10,3	12,7	14,4	15,0	19,5
Presioak edo arazoak familian / Presiones o problemas en la familia	2,9	4,8	3,2	6,0	8,5
Presioak edo arazoak adiskideekin / Presiones o problemas con los amigos	1,5	0,6	0,9	1,6	1,3
Bikote-harremana, ezkontza edo bikote-bizikidetz Noviazgo, matrimonio o convivencia en pareja	12,6	22,4	10,9	12,7	13,4
Haurdunaldia / Hábitos por embarazo	8,7	10,3	7,7	8,7	10,3
Seme-alabak izatea / Hábitos por llegada de los hijos	12,1	21,8	15,8	14,6	18,4
Lanean hastea edo lan-aldaketa / Comenzar a trabajar o cambio de trabajo	5,4	5,7	5,1	6,4	4,6
Osasun-arazoak / Problemas de salud	11,5	14,4	17,8	13,2	10,6
Bizilekuz aldatzea / Cambio de residencia	1,2	0,5	0,9	1,0	1,5
Laneko arazoak / Problemas en el trabajo	1,1	0,6	0,5	0,6	1,3
Lagunak aldatzea / Cambio de cuadrilla	4,5	2,3	3,3	2,2	1,8

Oharra: Ehunekoak ez dira % 100era iristen pertsona bakoitzak garrantzi-maila ezberdinak ematen dizkielako adierazitako arrazoi horiei.  
Nota: Los porcentajes no suman 100% debido a que cada persona atribuye a todos los motivos planteados diferentes grados de importancia.

## 2.2.4. Gazteen alkohol-kontsumo ohiturak

Azkenik, aurreko edizioetan bezalaxe, EAEko Mendetasunei buruzko Inkestak hainbat galdera ditu gazteek «litroak» egiteko ohiturari buruz zein alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoak ekarritako arazoek haien artean duten prebalentziari buruz. Alkoholaren kaleko kontsumoari dagokionez, 15 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 17,4k adierazi dute 2012an hilabetean behin gutxienez lagunekin kalean edaten dutela alkohola, eta % 5,1ek –ia 25.000 gazte– astero edo ia astero egiten dutela. % 47k ez dute inoiz horrelakorik egiten, eta % 21ek, berriz, urtean behin edo bitan egiten dute, asko jota.

## 2.2.4. Hábitos de consumo de alcohol por parte de la población juvenil

Finalmente, y como en las ediciones anteriores, la Encuesta sobre Adicciones en la CAPV incorpora una serie de preguntas en relación a la práctica del botellón por parte de la población juvenil y a la prevalencia de los problemas asociados a los consumos de alcohol y de otras drogas en esta población. En lo que se refiere al consumo callejero de alcohol, los datos recogidos indican que, en 2012, el 17,4% de la población de entre 15 y 34 años afirma que bebe alcohol en la calle con sus amigos/as al menos una vez al mes y el 5,1% -casi 25.000 jóvenes- que lo hace todas o casi todas las semanas. El 47% no lo hace nunca y el 21% lo hace una o dos veces al año, como máximo.

## 23. taula / Tabla 23

**15-34 urte arteko biztanleriaren banaketa kaleko alkohol-kontsumoaren maiztasunaren arabera. 2012**  
**Distribución de la población de 15 a 34 años en función de la frecuencia de consumo de alcohol en la calle. 2012**

	Abs.	Biztanleriaren %-a
Inoiz ez / Nunca	217.223	47,2
Urtean behin edo birritan / Una o dos veces al año	97.137	21,1
Hilean behin edo birritan / Una o dos veces al mes	56.658	12,3
Astero edo ia astero / Todas o casi todas las semanas	23.546	5,1
ED/EE / NS/NC	6.634	1,4
Ez du alkoholik probatu / No ha probado el alcohol	58.755	12,8
Guztira / Total	459.954	100,0

Bilakaerari dagokionez, «litroak» egiteko ohitura hori pixka bat handitu da 2012an 15-34 urte bitarteko gazteen artean. Hala, hilean behin gutxienez horretan aritzen direla dioten gazteen ehunekoak % 14,1etik % 17,4ra igaro da 2010etik, eta astero edo ia astero aritzen direnen ehunekoak, berriz, % 3,7tik % 5,1era egin du gora. «Litroak» inoiz egin ez dituztenen ehunekoak etenik gabe murriztu da, 2006ko % 57tik 2012ko % 47ra.

Desde el punto de vista evolutivo, se observa que en 2012 aumenta ligeramente la práctica del botellón entre la población de 15 a 34 años. Así, con respecto a 2010 la proporción de personas jóvenes que afirman practicarlo al menos una vez al mes pasa del 14,1% al 17,4%, mientras que el porcentaje que sostiene practicarlo todas o casi todas las semanas lo hace del 3,7% al 5,1%. Es importante por otra parte señalar que el porcentaje de quienes nunca han practicado el botellón ha ido reduciéndose de forma continuada y constante, pasando del 57% en 2006 al 47% en 2012.

## 24. taula / Tabla 24

**15-34 urte arteko biztanleriaren banaketaren bilakaera kaleko alkohol-kontsumoaren maiztasunaren arabera. 2006-2012**  
**Evolución de la distribución de la población de 15 a 34 años en función de la frecuencia de consumo de alcohol en la calle. 2006-2012**

	2006	2008	2010	2012
Inoiz ez / Nunca	57,6	52,7	50,3	47,2
Urtean behin edo birritan / Una o dos veces al año	21,0	21,0	19,3	21,1
Hilean behin edo birritan / Una o dos veces al mes	11,4	8,1	10,4	12,3
Astero edo ia astero / Todas o casi todas las semanas	5,0	5,1	3,7	5,1
Ez du alkoholik probatu / No ha probado el alcohol	3,8	7,6	13,0	12,8
ED/EE / NS/NC	1,2	5,5	3,3	1,4
Guztira / Total	100,0	100,0	100,0	100,0

Zer arazo sortzen die gazteei alkohola edateak? 15 eta 34 urte arteko biztanlerian, hamar gaztetatik bik diote erorikoak edo kolpeak jasan dituztela alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzearen ondorioz. Kopuru berak dio adiskideekin edo bikotekidearekin haserrealdiak izan dituela, eta heren batek osasun-arazo arinen berri eman du. Horretaz gain, hamarretatik batek adierazi du borrokak izan dituela ezezagunekin, eta ia % 7k senideren batekin izan dituela. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, aipatutako ia arazo guztien prebalentzia handitu egin da 2010arekin alderatuta, familiako eztabaidak eta osasun-arazoak izan ezik. Bereziki egin dute gora ikastetxeko arazoekin edo zirkulazioko istripuekin lotutakoek, poliziarekiko arazoekin eta sexu-harremanak babesik gabe izatearekin lotutakoek.

¿Qué problemas causa a la población joven el consumo de alcohol? Entre la población de 15 a 34 años, dos de cada diez jóvenes afirman que, como consecuencia de haber consumido alcohol u otras drogas, han sufrido caídas o golpes. La misma proporción afirma que ha tenido discusiones con sus amigos/as o pareja y un tercio hace referencia a problemas leves de salud. Además uno de cada diez señala que ha tenido peleas con desconocidos y casi el 7% que las ha tenido con algún familiar. Tal y como se observa en la tabla siguiente, prácticamente todos los problemas mencionados han aumentado su prevalencia con respecto a 2010, salvo las discusiones familiares y los problemas de salud. Lo han hecho de manera especial los relacionados con problemas en el centro educativo, con los accidentes de tráfico, los problemas con la policía y los relacionados con haber mantenido relaciones sexuales sin protección.

## 25. taula / Tabla 25

**Alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzeak sortutako hainbat arazoren eraginaren bilakaera 15 eta 34 urte bitartekoen artean. 2006-2012**  
**Evolución de la incidencia de diversos problemas derivados del consumo de alcohol u otras drogas entre la población de 15 a 34 años. 2006-2012**

	2006	2008	2010	2012
Borrokak ezezagunekin / Peleas con desconocido	9,2	6,5	8,9	10,0
Haserrealdiak adiskideekin edo bikotekidearekin / Mosquesos con amigos o pareja	17,8	19,4	18,8	19,9
Zirkulazio-istripuak / Accidentes de tráfico	3,3	1,4	1,8	5,0
Babesik gabeko sexu-harremanak / Relaciones sexuales sin protección	5,9	5,0	4,1	5,4
Nahi ez diren sexu-harremanak / Relaciones sexuales no deseadas	3,2	2,4	2,6	3,1
Liskarrak senideekin: Gurasoekin, anaia-arrebekin Broncas con familiares: padre, madre, hermano	10,2	8,4	10,5	6,8
Arazoak ikastetxean / Problemas en el centro escolar	1,1	1,0	1,0	2,7
Erorikoak, nahigabe egindako kolpeak / Caídas, golpes involuntarios	24,3	18,8	21,0	21,1
Osasun-arazoak: urdaileko, buruko minak Problemas de salud: dolores de estómago, de cabeza	44,3	41,5	36,1	31,2
Arazoak poliziarekin / Problemas con la policía	4,6	3,0	3,8	4,7
Botata geratzea / Quedarse tirado	5,7	4,3	5,0	5,4
Oharra: Ehunekoek ez dute % 100 osatzen pertsona berak arazo mota bat baino gehiago adieraz baitezake Nota: Los porcentajes no suman 100% debido a que una misma persona puede señalar más de un tipo de problemas.				

Egoera horietako bakoitza gutxiago edo gehiago gertatzen den jakiteaz edo gehien gertatzen direnak zein diren jakiteaz gain, izaten dituztela dioten arazo kopuruarekin lotuta gazteak nola banatzen diren eta banaketa horrek zer bilakaera izan duen jakitea ere komeni da. 2012an, gazteen erdiak baino gehiagok adierazi du ez duela arazorik izan drogak hartzearen ondorioz; gazteen % 21ek, aldiz, hiru arazo edo gehiago adierazi dituzte. Bilakaerari dagokionez, erantzun dutenak eta urtean alkohola noizbait edan dutela adierazi dutenak bakarrik hartzen baditugu kontuan, arazorik izan ez dutela diotenen kopurua handitu egin da etengabe, eta nahiko egonkor mantendu dira hiru edo gehiago izan dituztela diotenak.

Más allá de saber si cada una de estas situaciones se produce con mayor o menor frecuencia, o cuáles son las que se producen de forma más habitual, también resulta conveniente saber cómo se distribuye la población juvenil en relación al número de problemas que dicen experimentar y cómo ha evolucionado esa distribución. En 2012, más de la mitad de los jóvenes señala que no ha experimentado ningún problema derivado del consumo de drogas; por el contrario, un 21% de los jóvenes indican tres o más problemas. Desde el punto de vista evolutivo, si se tiene en cuenta únicamente a quienes han respondido y señalan haber tenido algún consumo de alcohol a lo largo del año, se observa un incremento constante de quienes señalan no haber experimentado ningún problema, mientras que se mantienen relativamente estables los que indican haber experimentado tres o más.

## 26. taula / Tabla 26

**Alkohola probatu duten 15 eta 34 urte bitarteko biztanleen banaketaren bilakaera alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzearen ondoriozko arazo kopuruaren arabera. 2006-2012**  
**Evolución de la distribución de la población de 15 a 34 años que ha probado el alcohol en función del número de problemas derivados del consumo de alcohol u otras drogas. 2006-2012**

	2006	2008	2010	2012
Arazorik ez / Ningún problema	41,4	45,3	48,0	51,7
Arazo bat / Un problema	25,6	24,2	18,9	17,3
Bi arazo / Dos problemas	13,7	12,4	11,0	9,9
Hiru arazo edo gehiago / Tres o más problemas	19,2	18,1	22,1	21,0

Adierazitako arazo horiek arazo motaren arabera sailkatuz gero, osasun-arazoan beherakada argi bat ikusiko dugu –edozean ere, ohikoenak dira oraindik–, bai eta gainerako arazoak adierazten dituzten biztanleen ehunekoa mantentzeko joera ere.

Por otro lado, si los problemas señalados se agrupan en función del tipo de problema, se observa un decremento claro de los problemas de salud –que siguen siendo en cualquier caso los más habituales– y una tendencia al mantenimiento en el porcentaje de población que refiere el resto de problemas.

## 27. taula / Tabla 27

**Alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzeak gazteen artean sortutako hainbat arazoren eraginaren bilakaera arazo motaren arabera. 2006-2012**  
**Evolución de la incidencia de diversos problemas derivados del consumo de alcohol u otras drogas entre la población juvenil por tipo de problema. 2006-2012**

	2006	2008	2010	2012
Osasun-arazoak / Problemas de salud	44,3	41,5	36,1	31,2
Istripuak / Accidentes	25,8	19,1	21,9	22,5
Harremanen arloko gatazkak / Conflictos relacionales	24,1	23,6	24,1	22,1
Sexu-portaera arriskutsuak / Conductas sexuales de riesgo	7,8	5,8	5,3	6,0
Segurtasunik ezeko eta ordena publikoko arazoak Problemas de inseguridad y orden público	11,0	8,2	10,6	11,5

Oharra: Ehunekoek ez dute % 100 osatzen pertsona berak arazo mota bat baino gehiago adieraz baitezake.  
 Nota: Los porcentajes no suman 100% debido a que una misma persona puede señalar más de un tipo de problemas.

Azkenik, non erosten eta edaten dute alkohola euskal gazteek? Gehienbat tabernetan edaten dute (edaten dutenen % 80), eta ondoren diskoteketan (% 40). Kanean (% 30), etxean (% 25) eta lonjetan (% 18) ere edaten dute.

Finalmente, ¿dónde compran y consumen alcohol los jóvenes vascos? El consumo se realiza preferentemente en los bares, donde señalan consumir alcohol el 80% de los jóvenes, seguidos de las discotecas, donde señala consumir alcohol el 40% de quienes beben. La calle (30%), el domicilio (25%) y las lonjas (18%) son también lugares en los que se producen consumos.

## 28. taula / Tabla 28

**Alkohola hainbat tokitan eskuratzen eta edaten duten gazteen ehunekoa. 2012**  
**Porcentaje de jóvenes que consumen y adquieren alcohol en diferentes espacios. 2012**

	<b>Erosketa</b>	<b>Kontsumoa</b>
Tabernetan / En bares	78,5	80,7
Diskoteketan / En discotecas	35,2	40,4
Lonjetan / En lonjas	-	18,2
Kalean / En la calle	-	30,6
Etxean / En casa	7,4	25,3
Supermerkatuetan / Supermercados	49,4	-
Saltokietan / Comercios	15,0	-

## 2.2.5. EAEko egoeraren ikuspegi konparatua


EAEko alkohol-kontsumoari buruzko datuak Espainiako Estatuko datuekin alderatuz gero (Drogei buruzko Plan Nazionalak eginiko *EDADES* inkestak emandako informazioan oinarriturik), antzeko kontsumo-mailak ikusiko ditugu bi lurraldeotan. Nolanahi ere, kontsumo esperimental eta azkenaldikoa Estatukoak baino txikixeagoak dira EAEn, baina handixeagoak egungoa eta egunerokoa.

## 2.2.5. La situación de la CAPV en perspectiva comparada

Si los datos de consumo de alcohol que se registran en la CAPV se comparan con los correspondientes al Estado español, a partir de la información que arroja la encuesta *EDADES* que realiza el Plan Nacional sobre Drogas, se observan niveles de consumo relativamente similares en ambos territorios. En cualquier caso, mientras el consumo experimental y el reciente son en la CAPV algo más bajos que en el conjunto del Estado, el consumo actual y el diario resultan algo más elevados.



## 10. grafikoa / Gráfico 10

**Alkoholaren kontsumo esperimental, azkenaldiko, egungo eta egunerokoaren tasak EAEn eta Espainian. 2011/2012****Tasas de consumo experimental, reciente, actual y diario de alcohol en España y en la CAPV. 2011/2012**

Iturriak: *Euskadi eta drogak 2012* eta *EDADES 2011*  
 Fuentes: *Euskadi y Drogas 2012* y *EDADES 2011*


Halaber, antzeko bilakaera dago bietan, baina alde handiak ere badituzte<sup>5</sup>. Kasu guztietan nolabaiteko bat-egitea ikus daiteke; hala, Estatuko eta EAEko adierazleen artean zeuden aldeak txikiagotu edo alderantzikatu egin dira (haien arabera kontsumo handiagoa zegoen EAEn).

Desde el punto de vista evolutivo, se observan evoluciones relativamente parecidas, aunque con diferencias también importantes<sup>5</sup>. En todos los casos se aprecia una cierta convergencia, atenuándose, o invirtiéndose, las diferencias que existían entre los indicadores del Estado y de la CAPV y que apuntaban a mayores tasas de consumo en la comunidad vasca.

5 Emaitzak interpretatzeko orduan kontuan hartu behar dugu erreferente gisa erabilitako bi inkestak (*EDADES* eta *Euskadi eta Drogak*), biurtekoak izan arren, ez direla urte berean egiten, txandakako urteetan baizik.

5 A la hora de interpretar estos resultados es necesario tener en cuenta que las dos encuestas utilizadas como referente –la *EDADES* y *Euskadi y Drogas*–, si bien tienen en ambos casos carácter bienal, no se realizan el mismo año, sino en años alternos.

## 11. grafikoa / Gráfico 11.

**Alkoholaren kontsumo esperimental, azkenaldiko, egungo eta egunerokoaren bilakaera Espainian eta Euskadin. 1997/98-2011/12****Evolución del consumo experimental, reciente, actual y diario de alcohol en España y en Euskadi. 1997/98-2011/1**

Iturriak: Euskadi eta drogak 1998-2012 eta EDADES 1997-2011.

Fuentes: Euskadi y Drogas 1998-2012 y EDADES 1997-2011.


Mozkorraldien prebalentziari dagokionez, bi lurraldeotan oso bestelako bilakaera izan da. Aztertutako aldiaren hasieran, azken urtean behin gutxienez mozkortu direla ziotenen ehunekoa nabarmen handiagoa zen EAEn Estatuan baino. Euskadin ehuneko hori nabarmen murriztu da (azken urtean egonkortu arren), Estatuan, aitzitik, aldaketa hori txikiagoa izan da; horrenbestez, adierazle horrek jasotzen dituen portaeren prebalentzia txikiagoa izan da Euskadin Estatuan baino 2011/2012 aldian.

En relación a la prevalencia de las borracheras, el comportamiento en ambos territorios ha sido relativamente distinto. Por una parte, al inicio del periodo analizado, el porcentaje de población que en la CAPV señalaba haberse emborrachado al menos una vez en el último año era en la CAPV sustancialmente más alto que en el conjunto del Estado. Sin embargo, mientras que en Euskadi ese porcentaje ha ido descendiendo claramente (y pese a estabilizarse en el último año), en el Estado la variación ha sido menor, de forma que en el periodo 2011/2012 la prevalencia de las conductas que recoge este indicador es en Euskadi más baja que en el conjunto del Estado.

## 12. grafikoa / Gráfico 12

### Azken urtean behin gutxienez mozkortu direla dioten biztanleen ehunekoaren bilakaera EAEn eta Espainian. 2003/04 – 2011/12

#### Evolución del porcentaje de población que señala haberse emborrachado al menos una vez en el último año en España y en la CAPV. 2003/04 – 2011/12



Iturriak: Euskadi eta drogak 2004-2012 eta EDADES 2003-2011.  
Fuentes: Euskadi y Drogas 2004-2012 y EDADES 2003-2011

Datuok egoki ulertzeko, halere, kontuan hartu behar dugu Estatuko inkesta 2011n egin dela eta autonomiakoa, berriz, 2012an; ez dira hertsiki alderagarriak, beraz. Horretaz gain, bi inkesta horien unibertsoa ezberdina dela ere gogorarazi beharra dago: Euskadiko inkesta 15-74 urte arteko biztanleriari dagokio, Estatukoa, berriz, 16-64 urte artekoari bakarrik.

En cualquier caso, para una adecuada comprensión de los datos, es necesario tener en cuenta que la encuesta estatal se realizó en el año 2011, mientras que la autonómica se ha realizado en el año 2012, por lo que no pueden considerarse estrictamente comparables. Además, debe también recordarse que el universo de ambas muestras es diferente: mientras que la encuesta vasca hace referencia a la población de 15 a 74 años de edad, la estatal recoge únicamente a la población de entre 16 y 64 años.

## 2.3. Tabako-kontsumoa EAEn

### 2.3.1. Tabako-kontsumoa apur bat murriztu da kontsumoa arautzeko araudia promulgatu ondoren

2012an, Euskadiko biztanleen % 54,4k esan dute bizitzan behin gutxienez tabakoa erre dutela; % 31k azken urtean egin dute; % 29k azken hilean erre dute tabakoa, eta % 25,7k egunero egin dute, gainera. Tabakoa da, hortaz, alkoholaren ostean, txosten honetan aztertutako guztietan gehien kontsumituriko substantzia kanabisaren eta legez kanpoko drogen aurretik.


## 2.3. El consumo de tabaco en la CAPV

### 2.3.1. Disminuye ligeramente el consumo de tabaco tras la promulgación de la normativa reguladora del consumo

En 2012, el 54,4% de la población vasca señala haber probado el tabaco al menos una vez en su vida; el 31% lo ha hecho en el último año, el 29% ha fumado tabaco en el último mes y el 25,7% lo ha hecho, además, a diario. El tabaco es por tanto, tras el alcohol, la sustancia más consumida entre todas las que se analizan en este informe, por delante del cannabis y de las drogas ilegales.

### 13. grafikoa / Gráfico 13

#### Tabakoaren kontsumo esperimental, azkenaldiko, egungo eta egunerokoaren tasak. 2012 Tasas de consumo experimental, reciente, actual y diario de tabaco. 2012



Termino absolututan, eguneroko erretzaileak 423.000 dira 2012an, Euskadin noizbait tabakoa erre dutela dioten 896.000 pertsonen erdia baino gutxienez, hortaz.

En términos absolutos, el número de consumidores diarios alcanza en 2012 las 423.000 personas, que representan algo menos de la mitad de las 896.000 personas que en toda Euskadi señalan haber consumido tabaco en alguna ocasión.

## 29. taula / Tabla 29


**Tabakoaren kontsumo esperimental, azkenaldikoa, egungoa eta egunerokoa. 2012**  
**Consumo experimental, reciente, actual y diario de tabaco. 2012**

	Abs.	Biztanleriaren %-a % de la población
Esperimental / Experimental	896.642	54,4
Azkenaldikoa / Reciente	513.910	31,2
Egunoa / Actual	483.628	29,3
Egunerokoa / Diario	423.676	25,7

EAEko mendetasunei buruzko inkestaren edizio hau lehenengoa da espazio publikoetan tabako-kontsumoa mugatzen duen araudia 2010eko abenduan promulgatu zenetik. Bilakaerari dagokionez, kontsumoko adierazle orokorrak pixka bat jaitsi dira, neurri batean araudia aldatzearen ondorioz. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, 2010 eta 2012 artean kontsumo-adierazle guztiek egin dute behera, hala kontsumo esperimentalari nola azkenaldiko, egungo eta eguneroko kontsumoari dago-kienez.

**Hainbat substantzia eskuratzea erraza edo oso erraza dela uste duten biztanleen ehunekoaren bilakaera. 1998-2012****Evolución del porcentaje de población que considera fácil o muy fácil acceder a diversas sustancias. 1998-2012**

Euskadiko biztanleek ez dute oso argi, antza denez, alkoholaren, tabakoaren edo beste droga batzuen kontsumoak gora egin ote duen azken urteetan, eta ez dute, nolahi ere, jarrera argi komunik agertzen gai horren gainean. Biztanleriaren heren batek baino gutxiagok uste du kontsumoa handitu dela (alkoholaren kasuan izan ezik), taulan ikus daitekeenez. Dena den, gutxi batzuek baino ez dute uste kontsumoa murriztu denik, tabakoaren eta, neurri txikiagoan, heroinaren kasuan izan ezik. Ildo horretatik, ehuneko handienak kontsumoa bere horretan mantendu dela uste dutenek dituzte eta, legez kanpoko drogei dagokienez, horren gaineko iritzirik ez dutenek.

La población vasca no parece tener muy claro si los consumos de alcohol, tabaco u otras drogas han aumentado en los últimos años y no muestra, en cualquier caso, una postura nítida común en relación a esta cuestión. Como se observa en la tabla, salvo en el caso del alcohol, menos de un tercio de la población considera que los consumos hayan aumentado. Sin embargo, salvo en el caso del tabaco y, en menor medida, de la heroína, son pocos quienes creen que los consumos se hayan reducido. En ese sentido, los mayores porcentajes tienden a concentrarse en aquellos que consideran que los consumos se mantienen estables y, en el caso de las drogas ilegales, en aquellos que no tienen una opinión formada al respecto.

## 62. taula / Tabla 62


**Biztanleriaren banaketa hainbat substantziaren kontsumoari buruz duten balorazioaren arabera. 2012****Distribución de la población en función de su valoración respecto al consumo de diversas sustancias. 2012**

	<b>Alkohola</b> Alcohol	<b>Tabakoa</b> Tabaco	<b>Kanabisa</b> Cannabis	<b>Estasia</b> Éxtasis	<b>Kokaina</b> Cocaína	<b>Heroina</b> Heroína
Handitu da Ha aumentado	43,9	23,4	33,3	23,1	27,5	15,3
Berdin jarraitzen du Sigue igual	40,5	30,0	31,9	19,7	21,7	18,1
Murriztu da Ha disminuido	8,2	41,3	4,4	6,3	6,2	20,0
ED/EE NS/NC	7,4	5,3	30,4	50,9	44,6	46,6
Guztira Total	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Nolanahi ere, datuek argi eta garbi erakusten dute substantzien kontsumoa handitu dela uste duten biztanleen ehunekoak behera egin duela. Horrela uste dutenak % 30 gutxiago dira alkoholaren kasuan, eta % 50etik gora gutxiago gainerako substantzietan dagokienez. Ikuspegi horretatik, pentsa liteke gizartearen pertzepzioa bat datorrela, oro har, aurreko kapituluetan ikusi ditugun kontsumo-tasen beherakadekin.

Lo que los datos sí ponen de manifiesto con claridad, en cualquier caso, es el descenso en el porcentaje de población que considera que los consumos de las diversas sustancias ha aumentado. Quienes tienen esa idea se han reducido en un 30% en el caso del alcohol y en porcentajes superiores al 50% en el caso de las demás sustancias. Desde ese punto de vista, puede pensarse que la percepción social coincide en líneas generales con las caídas en las tasas de consumo que se han puesto de manifiesto en los capítulos anteriores.

## 61. grafikoa / Gráfico 61

**Azkenaldian hainbat substantziaren kontsumoa handitu dela uste duten biztanleen ehunekoaren bilakaera. 2004-2012****Evolución del porcentaje de población que considera que ha aumentado en los últimos tiempos el consumo de diversas sustancias. 2004-2012**

Halaber, legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten eta/edo kontsumo horren ondoriozko arazoak dituzten pertsonak –bat gutxienez– ezagutzen dituzte Euskadiko biztanleen % 44,9k. % 20k kokainaren kontsumoaren ondoriozko arazoak dituzten pertsonak ezagutzen dituzte, % 8k heroína erabiltzeak ekarritako arazoak dituen pertsona bat gutxienez ezagutzen dute, eta % 43k, berriz, alkoholaren ondoriozko arazoak dituzten pertsonak.

Por otra parte, el 44,9% de la población vasca conoce a personas –al menos a una– que consumen y/o tienen problemas derivados del consumo de drogas ilegales. El 20% conoce a personas con problemas derivados del consumo de cocaína, el 8% conoce a al menos una persona con problemas derivados del uso de heroína y el 43% conocen a personas con problemas derivados del uso de alcohol.

63. taula / Tabla 63

**Biztanleriaren banaketa hainbat substantzia kontsumitzen dituzten eta/edo horien kontsumoak ekarritako arazoak dituzten pertsonen ezagutzaren arabera. 2012**  
**Distribución de la población en función del conocimiento de personas que consumen y/o tienen problemas derivados del consumo de diversas sustancias. 2012**


	<b>Legez kanpoko drogak</b> Drogas ilegales	<b>Kokaina</b> Cocaína	<b>Heroina</b> Heroína	<b>Alkohola</b> Alcohol
Ez du inor ezagutzen / No conoce a nadie	53,4	77,0	88,0	55,0
Norbait ezagutzen du / Sí conocen a alguien	44,9	20,1	8,4	43,3
Bat ezagutzen du / Conoce a uno	5,9	5,2	2,3	7,1
Bat baino gehiago ezagutzen du Conoce a más de uno	26,4	12,3	5,0	26,9
Dezente ezagutzen ditu / Conoce a bastantes	12,5	2,6	1,0	9,3
ED/EE NS/NC	1,7	3,0	3,6	1,7
Guztira Total	100,0	100,0	100,0	

Beste adierazle batzuekin gertatzen den moduan, azkenaldian murriztu egin da drogak erabiltzearen ondoriozko arazoak dituen pertsona bat baino gehiago ezagutzen duten biztanleen ehunekoa. Kasu gehienetan datuak 2008tik aurrerakoak bakarrik badira ere, legez kanpoko drogei buruzko datuek murrizteko joera hori 2004tik gutxienez izan dela erakusten dute.

Como ocurre con otros indicadores, en los últimos tiempos ha ido reduciéndose el porcentaje de la población que conoce a más de una persona con problemas derivados del uso de drogas. Aunque en la mayor parte de los casos, los datos sólo cubren el periodo que va desde 2008, los datos relativos a las drogas ilegales ponen de manifiesto que la tendencia al descenso se remonta al menos a 2004.

## 62. grafikoa / Gráfico 62

**Hainbat drogaren kontsumoaren ondoriozko arazoak dituen pertsona bat baino gehiago ezagu  
tzen dituzten biztanleen ehunekoaren bilakaera. 2004-2012**  
**Evolución del porcentaje de población que conoce a más de una persona con problemas derivados  
del consumo de diversas drogas. 2004-2012**



*Euskadi eta drogak* sortaren aurreko txosten bazuetan adierazle esparru bat proposatu da Euskadiko biztanleek drogei eta droga-mendetasunei dagokienez duten hurbiltasun-maila baloratzeko eta, era horretan, legez kanpoko drogek zer normalizazio-maila duten ere baloratzeko. Euskadiko gizartea, adierazle esparru horren arabera, lau multzo handitan banatzen da legez kanpoko drogekin duten harreman- edo hurbiltasun-mailari dagokionez. Multzorik handienean, 2012an, alde handiz gainera, drogen kontsumoak edo arazoak dituzten pertsonak ezagutzen ez dituzten eta horrelako substantziarik sekula kontsumitu ez duten pertsonak daude.

En anteriores ediciones de *Euskadi y Drogas* se ha propuesto un marco de indicadores para valorar el grado de cercanía de la población vasca en relación a las drogas y las drogodependencias y, en ese sentido, el grado de normalización de las drogas ilegalizadas en la sociedad vasca. De acuerdo a ese marco de indicadores, la sociedad vasca se dividiría en cuatro grandes grupos en relación a su nivel de contacto o cercanía con las drogas ilegales. Como se observa en la tabla, en 2012, el grupo más amplio, con diferencia, es el formado por personas que ni conocen a personas con consumos o problemas de drogas ni han consumido nunca estas sustancias.



64. taula / Tabla 64

**Biztanleriaren banaketa legez kanpoko drogekin duten hurbiltasunaren arabera. 2012**  
**Distribución de la población en función de su cercanía a las drogas ilegales. 2012**


Kategoria Categoría	Definizioa / Definición	%
Ez dute zerikusirik Ajenas	Ez dute ezagutzen legez kontrako drogak kontsumitzen dituen pertsonarik, eta ez dute inoiz legez kontrako drogarik kontsumitu No conoce a ninguna persona que consuma drogas ilegales y no ha consumido nunca ninguna droga ilegal	47,6
	Legez kontrako drogak kontsumitzen dituen pertsona bat ezagutzen dute, eta ez dute inoiz legez kontrako drogarik kontsumitu Conoce a una persona que consume drogas ilegales y no ha consumido nunca ninguna droga ilegal	4,1
Hurbilekoak Cercanas	Legez kontrako drogak kontsumitzen dituen pertsona bat baino gehiago ezagutzen dituzte, eta ez dute inoiz legez kontrako drogarik kontsumitu Conoce a más de una persona que consume drogas ilegales y no ha consumido nunca ninguna droga ilegal	13,8
	Legez kontrako drogak kontsumitzen dituzten pertsona dezente ezagutzen dituzte, eta ez dute inoiz legez kontrako drogarik kontsumitu Conoce a bastantes personas que consumen drogas ilegales y no ha consumido nunca ninguna droga ilegal	4,0
Tartean sartuta daude Implicadas	Legez kontrako drogak kontsumitzen dituen pertsona bat baino gehiago ezagutzen dituzte, eta noizbait kontsumitu dituzte legez kontrako drogak. Conoce a más de una persona que consuma drogas ilegales y ha consumido alguna vez drogas ilegales	12,6
	Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsona dezente ezagutzen dituzte, eta noizbait kontsumitu dute edo azken urtean noizbehinka kontsumitu dituzte (5 aldiz baino gutxiagotan). Conoce a bastantes personas que consumen drogas ilegales y ha consumido alguna vez o ha consumido en el último año de forma esporádica (menos de 5 ocasiones)	6,4
	Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsona dezente ezagutzen dituzte, eta azken urtean 5 aldiz baino gehiagotan kontsumitu dute legez kanpoko drogaren bat. Conoce a bastantes personas que consumen drogas ilegales y han consumido alguna droga ilegal en el último año en más de 5 ocasiones	2,2
Beste egoera batzuk Otras situacio- nes	Legez kontrako drogak kontsumitzen dituen pertsona bat ezagutzen dute, eta noizbait kontsumitu dute legez kontrako drogaren bat. Conoce a una persona que consume drogas ilegales y ha consumido alguna vez alguna droga ilegal	1,8
	Ez dute legez kanpoko drogarik kontsumitzen duen inor ezagutzen, eta noizbait kontsumitu dute legez kanpoko drogaren bat. No conoce a nadie que consuma drogas ilegales y ha consumido alguna vez alguna droga ilegal	5,8
	ED/EE / NS/NC	1,7
Guztira Total		100,0

Kategoriak multzokatuz gero, agerian gelditzen da talde nagusian legez kanpoko drogen munduarekin zerikusirik ez duten pertsonak daudela (biztanleriaren % 51), ondoren tartean sartuta daudenak (% 21) eta, azkenik, hurbilekoak (% 17,8).

Cuando se agrupan las diversas categorías, se observa claramente que el grupo principal está compuesto por las personas ajenas al mundo de las drogas ilegales (51% de la población), seguidos de los implicados (21%) y de los cercanos (17,8%).

### 63. grafikoa / Gráfico 63


#### Biztanleriaren banaketa legez kanpoko drogekin duten hurbiltasunaren arabera. 2012 Distribución de la población en función de su cercanía al mundo de las drogas ilegales. 2012



Azken urteotan euskal gizartea argi eta garbi aldentzen ari da legez kanpoko drogen mundutik, azterlan osoan agerian gelditu den moduan; izan ere, era horretako kontsumoekin zerikusirik ez duen biztanleriaren ehunekoa etenik gabe hazi da, eta bereziki handia izan da hura 2010ean eta 2012an. Horretaz gain, beste batzuen multzoa ere pixka bat handitu da; bere horretan mantendu hurbilekoena, eta beheraka jarraitu du tartean sartuta daudenen multzoak.

En los últimos años, y en consonancia con los datos que se vienen poniendo de manifiesto a lo largo de todo el estudio, se está produciendo una clara tendencia al alejamiento de la sociedad vasca del mundo de las drogas ilegales, en la medida en que el porcentaje de población que cabe considerar ajena a estas consumos no ha dejado de crecer, con un crecimiento particularmente intenso entre 2010 y 2012. También crece, ligeramente, el grupo de otros, y se mantiene estable el de los cercanos, mientras sigue descendiendo el de los implicados.

## 64. grafikoa / Gráfico 64

**Biztanleriaren banaketaren bilakaera legez kanpoko drogekin duten hurbiltasunaren arabera. 2004-2012****Evolución de la distribución de la población en función de su cercanía al mundo de las drogas ilegales. 2004-2012**

Inkestaren galderei esker, hainbat substantziaren kontsumorako hurbiltasun-maila handiagoa edo txikiagoa neurtzeaz gain, galdetutako pertsonen horietako bakoitzarekin harreman normalizatu bat zer neurritan duten zehatz daiteke. Eraginkortasunari begira, «normalizazioa» kontzeptua definitzeko orduan, substantziek honako arlo hauekin lotutako lau baldintza betetzen dituzten aztertu dugu: kontsumo esperimentalarekin, eskuragarritasunaren pertzepzioarekin, kontsumitzaile asko ezagutzearekin eta haien kontsumoari arriskuko maila txiki bat egoztearekin. Horrela bada, lau baldintzak betetzen dituzten pertsonen substantziekin harreman «normalizatu» bat dutela jo dugu; halaber, haren «normalizazio sozialaren» maila hauxe da: harreman normalizatu bat duen biztanleria osoaren ehunekoa.

Además del mayor o menor grado de cercanía al consumo de las diversas sustancias, la batería de preguntas de la encuesta permite establecer en qué medida las personas consultadas tienen una relación normalizada con cada una de ellas. En términos operativos, el concepto de 'normalización' se ha definido a partir del cumplimiento, para cada sustancia, de cuatro condiciones relacionadas con el consumo experimental, la percepción de accesibilidad, el conocimiento de un número elevado de consumidores y la atribución de un nivel bajo de riesgo a su consumo. Se ha considerado en ese sentido que las personas que cumplen las cuatro condiciones tendrían una relación 'normalizada' con cada sustancia y que el grado de 'normalización social' de la misma podría entenderse como el porcentaje de población que mantiene una relación normalizada en relación al conjunto de la población.

## 65. taula / Tabla 65

**Legez kanpoko substantzien normalizazio-maila finkatzeko kontuan harturiko irizpideak**  
**Criterios considerados para establecer el nivel de normalización de las diversas sustancias ilegales.**

Substantzia Sustancia	Irizpideak Criterios
Kanabisa Cannabis	Kanabisa noizbait kontsumitu du. Ha consumido cannabis alguna vez.
	Kanabisa eskuratzea erraza edo oso erraza dela uste du. Percepción de la accesibilidad del cannabis fácil o muy fácil.
	Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsona dezente ezagutzen ditu. Conoce a bastantes que consumen drogas ilegales.
	Ez dio arazorik egozten edo oso arazo gutxi egozten dizkio kanabisa hilean behin kontsumitzeari. Atribuye ninguno o pocos problemas al consumo de cannabis mensual.
Anfetaminak edo <i>speeda</i> Speed	Anfetaminak edo <i>speeda</i> noizbait kontsumitu ditu. Ha consumido anfetaminas, speed alguna vez.
	Anfetaminak edo <i>speeda</i> eskuratzea erraza edo oso erraza dela uste du. Percepción de la accesibilidad de las anfetaminas, speed fácil o muy fácil.
	Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsona dezente ezagutzen ditu. Conoce a bastantes que consumen drogas ilegales.
	Ez dio arazorik egozten edo oso arazo gutxi egozten dizkio kokaina hilean behin kontsumitzeari [ez dago baliokiderik substantzia honetarako] Atribuye ninguno o pocos problemas al consumo de mensual de cocaína [no existe el equivalente para esta sustancia]
Estasia Éxtasis	MDMA, estasia noizbait kontsumitu du. Ha consumido MDMA, éxtasis alguna vez.
	Estasia edo diseinuko beste droga batzuk eskuratzea erraza edo oso erraza dela uste du. Percepción de la accesibilidad del éxtasis u otras drogas de diseño fácil o muy fácil.
	Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsona dezente ezagutzen ditu. Conoce a bastantes que consumen drogas ilegales.
	Ez dio arazorik egozten edo oso arazo gutxi egozten dizkio estasia hilean behin kontsumitzeari. Atribuye ninguno o pocos problemas al consumo de mensual de éxtasis
LSDa LSD	Haluzinogenoak noizbait kontsumitu ditu. Ha consumido alucinógenos alguna vez.
	LSDa, azidoak eskuratzea erraza edo oso erraza dela uste du. Percepción de la accesibilidad del LSD, ácidos fácil o muy fácil.
	Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsona dezente ezagutzen ditu. Conoce a bastantes que consumen drogas ilegales.
	Ez dio arazorik egozten edo oso arazo gutxi egozten dizkio haluzinogenoak hilean behin kontsumitzeari. Atribuye ninguno o pocos problemas al consumo de mensual de alucinógenos

... / ...


Substantzia Sustancia	Irizpideak Criterios
Kokaina Cocaína	Kokaina noizbait kontsumitu du. Ha consumido cocaína alguna vez.
	Kokaina eskuratzea erraza edo oso erraza dela uste du. Percepción de la accesibilidad de la cocaína fácil o muy fácil.
	Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsona dezente ezagutzen ditu. Conoce a bastantes que consumen drogas ilegales.
	Ez dio arazorik egozten edo oso arazo gutxi egozten dizkio kokaina hilean behin kontsumitzeari. Atribuye ninguno o pocos problemas al consumo de mensual de cocaína
Heroína Heroína	Heroína noizbait kontsumitu du. Ha consumido heroína alguna vez.
	Heroína eskuratzea erraza edo oso erraza dela uste du. Percepción de la accesibilidad de la heroína fácil o muy fácil.
	Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten pertsona dezente ezagutzen ditu. Conoce a bastantes que consumen drogas ilegales.
	Ez dio arazorik egozten edo oso arazo gutxi egozten dizkio heroína hilean behin kontsumitzeari. Atribuye ninguno o pocos problemas al consumo de mensual de heroína

Substantzien erabileraren normalizazioak zer esan nahi duen kontzeptualizatu ondoren, agerikoa da kanabisean baino ez dagoela nolabaiteko normalizaziorik, biztanleriaren % 7k beteko bailituzke aurretik adierazitako lau baldintzak.

A partir de esa conceptualización de lo que significa la normalización del uso de las diversas sustancias, tendríamos que sólo en el caso del cannabis se puede hablar de un cierto grado de normalización, en la medida en que el 7% de la población cumpliría los cuatro requisitos antes señalados.

65. grafikoa / Gráfico 65

**Hainbat substantziarekin harreman normalizatua duen biztanleriaren ehunekoa. 2012**  
**Porcentaje de población que mantiene una relación normalizada con diversas sustancias. 2012**



Zer-nolako bilakaera izan du, denboran, harreman horrek? Kanabisarena da bilakaerarik nabarmenena, taulan ikus daitekeenez. Hala, substantzia harekin harreman normalizatua zuten Euskadiko biztanleen % 14k 2006an, baina ehuneko horrek nabarmen eta modu jarraituan egin du behera azken urteotan, eta 2012an % 7 baino ez dira. Kokainari dagokionez ere murrizketa handia egon da, baina kasu honetan abiapuntu normalizazio-mailak askoz txikiagoak ziren 2006an.

¿Cómo ha evolucionado, en el tiempo, esta relación? La evolución más notable es la que se refiere al cannabis, tal y como se observa en la tabla. Si en 2006 cabía pensar que el 14% de la población vasca tenía una relación normalizada con esa sustancia, ese porcentaje ha ido cayendo de forma clara y constante a lo largo de los últimos años, hasta el 7% de 2012. También en el caso de la cocaína se ha producido una caída importante, pero a partir de niveles de normalización que ya en 2006 eran mucho más reducidos.

#### 66. taula / Tabla 66

### Hainbat substantziarekin harreman normalizatua duen biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2006-2012

#### Evolución del porcentaje de población que mantiene una relación normalizada con diversas sustancias. 2006-2012

	2006	2008	2010	2012
Heroina / Heroína	0,2	0,2	0,2	0,1
Haluzinogenoak / Alucinógenos	0,6	0,9	0,5	0,3
Estasia / Éxtasis	0,7	1,1	0,6	0,7
Kokaina / Cocaína	2,0	2,0	1,2	1,2
Anfetaminak edo <i>speeda</i> / Speed	1,8	2,3	1,0	1,4
Kanabisa / Cannabis	14,0	12,9	9,3	7,0

#### 2.7.3. Drogei eta droga-mendetasunei buruzko politiken balorazioa

Euskadiko biztanleria oso zatituta dago, 2012an, kanabisaren legeztatzeari dagokionez. Nolabaiteko adostasuna dago, ordea, legez kanpoko gainerako drogen legeztatzeari dagokionez, biztanle gehienak substantzia haien legezko estatusa aldatzearen aurka baitaude. Hala, biztanleen % 47 kanabisa legeztatzearekin oso ados edo nahiko ados daude, eta % 45 agertzen dira, aldiz, ideia haren oso edo nahiko aurka taulan ikusitakoaren arabera. Legez kanpoko gainerako drogei dagokienez, berriz, legeztatzearen aldekoak biztanleen % 21 baino ez dira, eta aurkakoak % 73.

#### 2.7.3. La valoración de las políticas en relación a las drogas y las drogodependencias

En 2012, la población vasca se muestra claramente dividida en relación a la legalización del cannabis. Por el contrario, puede hablarse de un cierto consenso en lo que se refiere a la legalización del resto de las drogas ilegales, con una amplia mayoría de la población contraria a modificar el estatus legal de estas sustancias. Tal y como se observa en la tabla, el 47% de la población estaría muy o bastante de acuerdo con la legalización del cannabis, mientras que el 45% se muestra muy o bastante en desacuerdo con esa idea. En el caso de las demás drogas ilegales, los partidarios de la legalización representan el 21% de la población y los contrarios a esta idea el 73%.

## 67. taula / Tabla 67


**Biztanleriaren banaketa kanabisa eta legez kanpoko gainerako drogak legeztatzeari buruz duten jarreraren arabera. 2012****Distribución de la población en función de su posición respecto a la legalización del cannabis y de las demás drogas ilegales. 2012**

		<b>Kopuru absolutuak</b> Absolutos	<b>Biztanleriaren %-a</b> % de la población
Kanabisaren salmenta legeztatzea, adingabeei saltzea debekatuta Legalizar la venta de cannabis, prohibiendo la venta a menores de edad	Oso edo nahiko ados Muy o bastante de acuerdo	778.946	47,2
	Oso edo nahiko aurka Muy o bastante en desacuerdo	751.211	45,6
	ED/EE / NS/NC	118.785	7,2
	Guztira / Total	1.648.942	100,0
Droga guztien salmenta legeztatzea, orain alkohola eta tabakoa dauden moduan Legalizar la venta de todas las drogas, tal y como están ahora el alcohol o el tabaco	Oso edo nahiko ados Muy o bastante de acuerdo	346.715	21,0
	Oso edo nahiko aurka Muy o bastante en desacuerdo	1.203.326	73,0
	ED/EE / NS/NC	98.900	6,0
	Guztira / Total	1.648.942	100,0

Argi dago, beraz, kanabisa legeztatzearen aldekoak gero eta gutxiago direla euskal biztanlerian. Izan ere, kanabisaren salmenta legeztatzearen aldekoen edo oso aldekoen ehunekoa murriztu da % 58tik (2007) gaur egungo % 47ra. Legez kanpoko drogei dagokienez, murrizketa xumeagoa izan da, eta nolabaiteko gorakada ere badago 2012an; halere, epe luzean legeztatzearen aldekoak murriztu direla ikusten da.

Parece claro que el apoyo a la legalización del cannabis está decreciendo entre la población vasca. En efecto, el porcentaje de personas favorables o muy favorables a legalizar la venta de cannabis, prohibiendo su adquisición a los menores de edad, ha caído desde el 58% de 2007 hasta el 47% actual. En lo que se refiere a las drogas ilegales, la reducción ha sido más suave y se produce incluso un cierto repunte en 2012, aunque en el largo plazo se observa, en cualquier caso, una cierta tendencia a la pérdida de apoyo a la idea de la legalización.

## 66. grafikoa / Gráfico 66


**Kanabisa eta legez kanpoko drogak legezkatzearen aldeko biztanleen ehunekoaren bilakaera. 2004-2012****Evolución de la distribución de la población en función de su cercanía al mundo de las drogas ilegales. 2004-2012**

Azkenik, euskal biztanleriak droga-mendetasunen esparruko zenbait neurri eta jarduerari buruz duen iritzia biltzen du hurrengo taulak. Kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeak eta droga-kontsumoaren ondorioei buruzko informazioa emateak lortu dute babes handien; eta txikiena, berriz, medikuak heroína emateak, kanabisa norberak kontsumitzeko landatzea baimentzeak, eta delituak egiten dituzten drogen mendekoak espetxeratu beharrean tratamendu-programetan parte har dezaten ahalbidetzeak.

Finalmente, la tabla siguiente recoge la opinión de la población vasca en relación a diversas medidas y actuaciones en el ámbito de las drogodependencias. Permitir el uso terapéutico del cannabis e informar sobre los efectos de los consumos de drogas son las medidas que obtienen un mayor apoyo, mientras las que concitan mayor rechazo serían la administración médica de heroína, la autorización del cultivo de cannabis para el autoconsumo y la sustitución de la prisión por la participación en programas de tratamiento para las personas drogodependientes que delinquen.



## 67. grafikoa / Gráfico 67

**Biztanleriaren banaketa drogen arloko politikei buruzko hainbat neurriren gainean duten jarreraren arabera. 2012****Distribución de la población en función de su posición respecto a diversas medidas relativas a la política de drogas. 2012**

Ez dago esaterik, bilakaera ikusita, neurri horien babesa handitzen ari denik. Zenbait kasutan 2000tik babesa pixkanaka galtzen ari direla ikusten da (delitugileei espetxealdiaz ez beste tratamendu batzuk jartzea, kanabisaren erabilera terapeutikoa, higie-ne baldintzak dituzten kontsumo-aretoak sortzea), eta beren horretan mantendu dira, berriz, kanabisa norberak kontsumitzeko landatzea eta tabakoaren eta alkoholaren publizitatea debekatzea.

No puede decirse que, en términos evolutivos, esté creciendo el apoyo a las diversas medidas planteadas. En algunos casos –tratamiento sustitutivo de penas de prisión en el caso de las personas delincuentes, uso terapéutico del cannabis, administración médica de heroína, creación de salas de consumo higiénico- se observa desde mediados de los años 2000 un proceso paulatino de pérdida de apoyos mientras que en el caso del autocultivo del cannabis y la prohibición de la publicidad del tabaco y el alcohol puede hablarse de estabilidad.

68. taula / Tabla 68

**Droga-politikaren arloko hainbat neurriren oso edo nahiko alde agertzen den biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2002-2012****Evolución del porcentaje de población que se muestra muy o bastante favorables a diversas medidas relativas a la política de drogas. 2002-2012**

	2002	2004	2006	2008	2010	2012
Alkoholaren eta tabakoaren publizitatea guztiz debekatzea Prohibir totalmente la publicidad de alcohol y tabaco	56,9	65,9	56,4	61,0	62,1	59,9
Espetxea ez den beste tratamendu batzuk ahalbidetzea drogak lortzeko delitu egiten dutenentzat Facilitar a las personas que cometan delitos para conseguir drogas un tratamiento en lugar de que tengan que ir a prisión	82,4	85,8	74,8	81,7	69,5	61,5
Kanabisaren erabilera terapeutikoa ahalbidetzea minbizia eta beste gaixotasun batzuk artatzeko Permitir el uso terapéutico del cannabis en el tratamiento del cáncer y otras enfermedades	77,3	89,9	91,1	89,2	89,2	82,2
Sendagileek heroína ematea beste tratamendu batzuk baliagarri izan ez zaizkien heroína-hartzaileei Administración médica de heroína a los consumidores que han fracasado en otros tratamientos	–	–	60,0	65,4	57,4	50,3
Gutxieneko higie-ne baldintzak dituzten kontsumo-lokalak irekitzea drogazaleentzat Abrir locales donde las personas drogodependientes puedan consumir en condiciones mínimas de higiene	63,5	80,3	64,4	72,4	63,4	54,1
Kanabisa norberak kontsumitzeko landatzea ahalbidetzea Permitir el cultivo de cannabis para el autoconsumo	38,1	54,4	46,5	54,9	54,7	52,1
Ondorio kaltegarririk ez izateko drogak nola kontsumitu azaltzea Informar sobre cómo consumir drogas sin que perjudique	83,6	88,0	68,7	72,2	65,7	68,3

Drogen munduarekiko hurbiltasun- edo inplikazio-mailak nolabaiteko harremana omen du aztertutako egoera horien gainean biztanleek hartzen duten jarrerarekin. Ildo horretatik, tartean sartuta daudenak askoz aldekoagoak dira zerikusirik ez dutenak baino hauei dagokienez: kanabisa eta legez kanpoko drogak legezztatzea, espetxealdiaren ordezkotratamendua, kanabisaren erabilera terapeutikoa, sendagileek heroína ematea, kontsumo-aretoak irekitzea edo kanabisa norberak kontsumitzeko landatzea. Hiru taldeen artean ez dago alde handirik, ordea, alkoholaren eta tabakoaren publizitatea debekatzearen gainean.

Arriskuaren pertzepzioari dagokionez, bestalde, oso egoera bitxia dago: tartean sartuta daudenek hurbilekoek baino gutxiagotan egotzen diete arrisku-maila handia kontsumo jakin batzuei –lasaiga-

El grado de cercanía o de implicación en el mundo de las drogas parece tener una cierta relación con el posicionamiento de las personas en relación a algunas de las diversas situaciones consideradas. En ese sentido, los implicados son mucho más favorables que los ajenos a la legalización del cannabis y de las drogas ilegales, al tratamiento en lugar de las penas de prisión, al uso terapéutico del cannabis, a la administración médica de heroína, a la apertura de salas de consumo o al autocultivo del cannabis. Por el contrario, no hay diferencias grandes entre los tres grupos en lo que se refiere a la prohibición de la publicidad del alcohol y el tabaco.

En lo que se refiere a la percepción del riesgo, la situación es muy curiosa: los implicados atribuyen en menor medida que los cercanos un nivel elevado de riesgo a ciertos consumos (tomar tranquilizan-

riak/lo egiteko pilulak hilean behin edo gutxiagotan hartzea, 5 edo 6 kaña/kopa asteburuan edatea, kanabisa hilean behin edo gutxiagotan erretzea, kanabisa astean behin edo gehiagotan erretzea, haluzinogenoak (azidoak, tripiak, LSDa) astean behin edo gehiagotan kontsumitzea, baina neurri berean edo handiagoan egozten dizkiete arrisku handiak beste jokabide batzuei –lasaigarriak/lo egiteko pilulak astean behin edo gehiagotan hartzea, estasia hilean behin edo gehiagotan kontsumitzea, kokaina hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzea, haluzinogenoak hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzea, heroina hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzea edo tabako-pakete bat egunero erretzea–.

tes/pastillas para dormir una vez o menos al mes, tomarse 5 ó 6 cañas/copas el fin de semana, fumar cannabis una vez o menos al mes, fumar cannabis una vez por semana o más, consumir alucinógenos (ácidos, tripis, LSD) una vez por semana o más), pero atribuyen en la misma, o en incluso mayor, medida riesgos elevados a otras conductas (tomar tranquilizantes/pastillas para dormir una vez por semana o más, consumir éxtasis una vez o menos al mes, consumir cocaína una vez o menos al mes, consumir alucinógenos una vez o menos al mes, consumir heroína una vez o menos al mes o fumar un paquete diario de tabaco).

## 69. taula / Tabla 69

**Arriskuaren pertzepzioa eta droga-mendetasunen arloko politikekiko jarrera legez kanpoko drogetarako hurbiltasun-mailaren arabera. 2012**

**Percepción del riesgo y posición en relación a las políticas sobre drogodependencias en función del nivel de cercanía a las drogas ilegales. 2012**

		Ez dute zerikusirik Ajenas	Hurbilekoak Cercanas	Tartean sartuta daude Implicadas	Beste batzuk Otras
Honen oso edo nahiko alde Muy o bastante a favor de	Kanabisaren salmenta legeztatzea, adingabeei saltzea debekatuta Legalizar la venta de cannabis, prohibiendo la venta a menores de edad	30,7	51,4	79,4	57,7
	Droga guztien salmenta legeztatzea, orain alkohola eta tabakoa dauden moduan / Legalizar la venta de todas las drogas, tal y como están ahora el alcohol o el tabaco	16,4	20,9	30,3	25,6
	Alkoholaren eta tabakoaren publizitatea guztiz debekatzea Prohibir totalmente la publicidad de alcohol y tabaco	59,4	62,1	60,9	56,0
	Espetxea ez den beste tratamendu batzuk ahalbidetzea drogak lortzeko delitu egiten dutenentzat Facilitar a las personas que cometan delitos para conseguir drogas un tratamiento en lugar de que tengan que ir a prisión	56,4	62,2	71,6	65,7
	Kanabisaren erabilera terapeutikoa ahalbidetzea minbizia eta beste gaixotasun batzuk artatzeko / Permitir el uso terapéutico del cannabis en el tratamiento del cáncer y otras enfermedades	73,7	89,9	95,3	84,3
	Sendagileek heroína ematea beste tratamendu batzuk baliagarri izan ez zaizkien heroína-hartzaileei / Administración médica de heroína a los consumidores que han fracasado en otros tratamientos	42,5	56,2	61,9	55,8
	Gutxieneko higie-ne baldintzak dituzten kontsumo-lokalak irekitzea drogazaleentzat / Abrir locales donde las personas drogodependientes puedan consumir en condiciones mínimas de higiene	44,4	56,6	74,3	57,3
	Kanabisa norberak kontsumitzeko landatzea ahalbidetzea Permitir el cultivo de cannabis para el autoconsumo	34,2	59,8	84,7	62,7
	Ondorio kaltegarriak ez izateko drogak nola kontsumitu azaltzea Informar sobre cómo consumir drogas sin que perjudique	59,4	72,9	84,5	72,1

... / ...

		Ez dute zerikusirik Ajenas	Hurbilekoak Cercanas	Tartean sartuta daude Implicadas	Beste batzuk Otras
Arazo asko edo dezentegozten dizkie Atribuye muchos o bastantes problemas	Lasaigarriak/lo egiteko pilulak hilean behin edo gutxiagotan hartzea Tomar tranquilizantes/pastillas para dormir una vez o menos al mes	40,5	37,8	20,6	25,4
	5-6 kaña/kopa asteburuan edatea Tomarse 5 ó 6 cañas/copas el fin de semana	50,2	37,4	18,4	27,6
	Kanabisa hilean behin edo gutxiagotan erretzea Fumar cannabis una vez o menos al mes	54,3	40,0	8,3	26,3
	Lasaigarriak/lo egiteko pilulak astean behin edo gehiagotan hartzea Tomar tranquilizantes/pastillas para dormir una vez por semana o más	68,2	73,0	59,0	64,9
	Kanabisa astean behin edo gehiagotan erretzea Fumar cannabis una vez por semana o más	74,1	72,0	43,3	69,8
	Estasia hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzea Consumir éxtasis una vez o menos al mes	75,9	77,0	64,1	70,5
	Kokaina hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzea Consumir cocaína una vez o menos al mes	80,0	81,9	67,6	77,9
	Haluzinogenoak (azidoak, LSDa) hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzea Consumir alucinógenos (ácidos, LSD) una vez o menos al mes	82,3	86,8	79,0	83,4
	Heroina hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzea Consumir heroína una vez o menos al mes	82,4	87,9	85,1	85,7
	Estasia astean behin edo gehiagotan kontsumitzea Consumir éxtasis una vez por semana o más	83,2	92,8	89,4	88,4
	Tabako-pakete bat egunero erretzea Fumar un paquete diario de tabaco	89,2	90,6	87,1	84,1
	Haluzinogenoak (azidoak, LSDa) astean behin edo gehiagotan kontsumitzea Consumir alucinógenos (ácidos, LSD) una vez por semana o más	40,5	37,8	20,6	25,4



## **3. DROGEN KONTSUMOA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ALDEAK**

---

### **3. CONSUMOS DE DROGAS Y DIFERENCIAS GENERACIONALES**



### 3. DROGEN KONTSUMOA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ALDEAK

#### 3.1. Sarrera

Drogen kontsumoa edo portaerazko mendetasunak ez dira gizarte osoan neurri berean agertzen, baizik eta aldatzen direla adinaren, sexuaren, errentaren edo heziketa-mailaren arabera. Horrela bada, ezinbestekoa da datu epidemiologikoak aldagaien arabera bereiztea kontsumitzaileen profila, kontsumo-ereduak eta zergatiak ezagutzeko, baita arriskuaren barruko taldeak zehazteko eta mendetasunen inguruko pertzepzio sozialak hobeto ulertzeko ere. Aurreko *Euskadi eta drogak* txostenetan agerian gelditu da hainbat drogaren kontsumoak lotura argia duela generoaren eta, batez ere, adinaren aldagaiekin. Zentzu horretan, orain arte egindako azterlanek bi elementu nabarmendu dituzte: bate-tik, gazteetan substantzia gehienek kontsumo handiagoa dagoela baina, bestetik, gazteen eta helduen kontsumoa pixkanaka elkartzen ari dela (gazteen kontsumoaren murrizketatik zein beste adin-talde batzuen hazkundeagatik), eta gero eta handiagoa da helduen garrantzia orain dela gutxi arte gazteenak baino ez ziren substantzien kontsumoan.

Horregatik guztiagatik, funtsezkoa da droga-kontsumoan dauden belaunaldien arteko aldeak azterzea Euskadiko droga-kontsumoaren errealitatea ezagutzeko. Horrenbestez, atal honetan *Euskadi eta drogak 2012* inkestaren datuak adinaren ikuspegitik aztertuko ditugu; hots, euskal gizartean ikus

### 3. CONSUMOS DE DROGAS Y DIFERENCIAS GENERACIONALES

#### 3.1. Introducción

El consumo de drogas o las adicciones comportamentales no se presentan de manera uniforme en toda la sociedad, sino que varían en función de la edad, el sexo, la renta o el nivel educativo. Desagregar los datos epidemiológicos en virtud de distintas variables resulta, en este sentido, imprescindible para conocer el perfil de las personas consumidoras, sus pautas de consumo y motivaciones, pero también para identificar grupos de riesgo y para comprender mejor las percepciones sociales en torno a las adicciones. En las ediciones anteriores de *Euskadi y Drogas* se ha puesto de manifiesto en qué medida el consumo de las diversas drogas se relaciona claramente con variables como el género y, muy fundamentalmente, la edad. En ese sentido, en los diversos estudios realizados hasta la fecha se han ido poniendo de manifiesto dos elementos: de una parte, un consumo más elevado de la mayor parte de las sustancias por parte de las personas jóvenes pero, por otra, una progresiva convergencia entre los consumos juveniles y los adultos (debido tanto a la reducción en los consumos juveniles como al incremento en otros grupos etarios), de forma que el peso de las personas adultas en consumos hasta hace poco considerados como exclusivamente juveniles es cada vez mayor.

Por todas estas razones, el análisis de los consumos de drogas desde el punto de vista de las diferencias generacionales resulta esencial para conocer la realidad de los consumos de drogas en Euskadi. Con esa finalidad, el objetivo de este apartado es examinar los datos de la encuesta *Euskadi y Drogas 2012*



daitezkeen belaunaldien arteko antzekotasunak eta aldeak deskribatzen eta interpretatzen saiatuko gara. Hartarako, lortutako emaitzak hiru adin-talde handitan banatuko dira: 15-34 urte, 35-55 urte eta 55-74 urte. Talde horiek, eta ez beste batzuk, arrazoi hauengatik hautatu dira: lehenik eta behin, biztanle gazteen, helduen edo adin ertainekoen eta nagusien artean gaur egun dauden aldeak nahiko ongi islatzen dituztelakoan. Gainera, hiru adin-talde aukeratu beharrean bi hautatu izan bagenu, errealtatearen oso azterketa sinplista ekarriko zukeen, eta lau hautatzeak, berriz, adierazgarritasun txikiko emaitzak eragingo zituzkeen gizartean oso gutxi zabaldua dauden kontsumo-ereduak aztertzeko orduan.

Honelakoa da kapituluaren antolaketa: Lehenik, inkestan aintzat hartutako substantzien kontsumoarekin lotutako aldagai nagusiak azaltzeko azterketa bat egin dugu. Lau kontsumo mota bereizi dira: esperimentalak, azkenaldikoa, maizko edo ohikoa eta problematikoa edo intentsua. Horretaz gain, kontsumo horietako batzuk jarraitzeko eta uzteko hainbat jarraibide edo eredu ere aztertu ditugu, baita drogen fenomenoarekin lotuta dauden pertzepzioak eta iritziak ere. Kapitulu honetan erabilitako adierazle guztien definizioak sarrerako kapituluaren daude. Azkenik, kapituluaren azken atalean azalpen-azterketa bat ere egingo dugu, khi-karratu frogan eta aukera-arrazoen (talde batzuek beste batzuen gainean duten arrisku erlatiboa ezagutzeko erabiltzen den neurria) kalkuluan oinarrituta, adinaren aldagaiak drogen kontsumoan duen eraginaren inguruan.

desde la perspectiva de la edad, es decir, tratando de describir e interpretar las similitudes y diferencias generacionales observables en la sociedad vasca. A tal fin, se dividirán los resultados obtenidos según tres grandes grupos etarios: de 15 a 34 años, de 35 a 55 años y de 55 a 74. La selección de estos grupos y no otros obedece principalmente a los siguientes motivos: en primer lugar, puede pensarse que reflejan relativamente bien las diferencias generacionales que existen actualmente entre la población joven, adulta o de mediana edad y mayor. Además, el hecho de haber escogido dos en lugar de tres grupos de edad hubiera derivado en un análisis extremadamente simplista de la realidad y haber seleccionado cuatro habría provocado unos resultados escasamente representativos en aquellos casos en los que se abordan pautas de consumo muy poco extendidas socialmente.

La organización de este capítulo es la siguiente. En primer lugar se ha realizado un análisis descriptivo de las principales variables relacionadas con el consumo de las diferentes sustancias consideradas en la encuesta. Los consumos se han dividido en cuatro tipos (experimentales, recientes, frecuentes o habituales y problemáticos o intensos). Asimismo también se analizan diferentes pautas de continuidad y abandono relacionadas con algunos de esos consumos, así como las distintas percepciones y opiniones relacionadas con el fenómeno de las drogas. La definición de cada uno de los indicadores utilizados en este capítulo puede consultarse en el capítulo introductorio. Este análisis descriptivo se completa, en el último apartado de este capítulo, con un análisis explicativo, basado en la prueba del Chi-cuadrado y cálculo de las Odds Ratio (medida utilizada para conocer el riesgo relativo que tienen unos grupos sobre otros), sobre el impacto de la variable edad en el consumo de drogas.

### 3.2. Belaunaldien arteko aldeak droga kontsumoari dagokionez: egungo egoera eta adierazle nagusien bilakaera

#### 3.2.1. Kontsumo esperimentalak eta kontsumitzen hasteko adina

Hiru adin-taldeek (gazteak, helduak eta adinekoak) aztertutako drogen kontsumo esperimentalari dagokionez duten portaera aintzat hartutako substantziaren arabera da, argi eta garbi: alkoholari dagokionez, oso antzeko tasak daude; tabakoari dagokionez, gazteek gutxiago kontsumitu dute, eta legez kanpoko drogei dagokionez, kontsumo esperimentaleko tasak, ia beti, handiagoak dira gazteen taldean beste bi taldeetan baino. Legez kanpoko kontsumo esperimentalaren kontsumoari dagokionez, ordea, antzeko prebalentzia dago gazteen eta helduen taldeetan, eta 55 urtetik gorako taldeak baino ez du alde argirik beste bi taldeetiko. Psikofarmakoen kasuan, berriz, erabilera esperimentalaren prebalentzia adinean aurrera joan ahala handitzen da, eta ausazko jokoei dagokionez, bestalde, gazteek askoz gutxiago parte hartzen dute helduek eta adinekoek baino.

### 3.2. Diferencias generacionales en los consumos de drogas: situación actual y evolución de los principales indicadores

#### 3.2.1. Los consumos experimentales y la edad de inicio en los consumos

El comportamiento que mantienen los tres grupos de edad –personas jóvenes, adultas y mayores– en relación al consumo experimental de las diversas drogas analizadas depende claramente del tipo de sustancia considerada: en el caso del alcohol las tasas son muy similares; en el caso del tabaco, son las personas jóvenes las que en menor medida han accedido a ese consumo, y en el caso de las drogas ilegales las tasas de consumo experimental son, casi siempre, mayores en el caso del grupo juvenil que en los otros dos grupos. Por lo que se refiere al consumo experimental de las sustancias ilegales, sin embargo, se observa que la prevalencia es similar en el grupo de jóvenes y en el de adultos y que sólo las personas mayores de 55 años se diferencian con claridad de los otros dos grupos. En el caso de los psicofármacos, la prevalencia del uso experimental crece claramente con la edad, mientras que en el caso de los juegos de azar las personas jóvenes registran una participación mucho menor que las adultas y mayores.

## 70. taula / Tabla 70

### Kontsumo esperimentalaren tasa substantzien eta adin-taldearen arabera. 2012 Tasa de consumo experimental por sustancias y grupos de edad. 2012

	15-34	35-54	55-74	Guztira
Alkohola / Alcohol	87,2	87,8	85,4	86,9
Tabakoa / Tabaco	45,3	63,4	50,0	54,4
Kanabisa / Cannabis	39,2	35,3	8,1	28,3
Legez kanpoko besteren bat / alguna otra ilegal	12,1	10,7	2,4	8,6
Anfetaminak edo <i>speeda</i> / Speed	9,8	8,1	1,2	6,5
Estasia / Éxtasis	3,8	2,4	0,4	2,2
LSDa / LSD	3,4	3,4	0,9	2,7
Kokaina / Cocaína	7,6	6,9	1,5	5,5
Basea, <i>crack</i> / Base, crack	0,5	0,3	0,0	0,2
Heroina / Heroína	0,4	1,0	0,5	0,7

... / ...

... / ...

	15-34	35-54	55-74	Guztira
Beste opiazeo batzuk / Otros opiáceos	0,6	0,5	0,0	0,4
Arnastekoak / Inhalables	1,0	0,6	0,0	0,5
Sorgin zorrotzak ( <i>mongiak</i> ) / Monguis	3,5	1,7	0,2	1,7
Ketamina / Ketamina	1,4	0,5	0,0	0,6
Legez kanpoko edozer (kanabisa barne) Cualquier ilegal (con cannabis)	39,7	36,2	8,3	28,9
Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe Psicofármaco con o sin receta	12,1	21,3	29,1	21,1
Apustu edo ausazko jokoak* / Juegos de apuestas o azar*	39,9	61,7	62,5	55,9

\*Apustu edo ausazko jokoei dagokionez azken 12 hilabeteetako kontsumoa aipatzen da, baina gainerako substantzietan bizitzan noizbait.

\*A diferencia del resto de sustancias en las que el consumo se refiere a alguna vez en la vida, en el caso de la práctica de los juegos de apuestas o azar la tasa se corresponde con los últimos 12 meses.

Bilakaerari helduz gero, beherakada argia dago substantzia guztien kontsumo esperentalaren tasetan, bereziki nabaria, batez ere, gazteen legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez:

- Alkoholaren kasuan, kontsumo esperentalaren tasa murriztu egin da hiru adin-taldeetan 2000tik aurrera. 2010arekin alderatuta, halarere, bere horretan mantendu da gazteetan, eta pixka bat baino ez da murriztu beste bi taldeetan. Halaz ere, alkohola probatu duten gazteen ehunekoa, 2006 eta 2012 bitartean, % 96tik % 87ra igaro da.
- Tabakoari dagokionez, epe laburrean beherakada argia gertatu da gazteen eta helduen artean, baina oso apala da murrizketa adinekoen artean. Epe ertainean, baina, kontsumo esperentalaren tasen nolabaiteko murrizketa gertatu da hiru taldeetan. Gazteetan, esaterako, hirutik bik probatua zuten tabakoa 1992an; proportzio hori % 45era jaitsi da 2012an, ordea.
- Kanabisaren kasuan, kontsumo esperentalaren murrizketa biziki argia da gazteen artean, 2006an hasitako joera sendotuta. Talde horren kontsumo esperentalaren tasa, izan ere,

En términos evolutivos, se detecta con claridad un descenso en las tasas de consumo experimental de todas las sustancias, particularmente marcado en todo caso en lo que se refiere al consumo de drogas ilegales por parte del grupo de población más joven:

- En el caso del alcohol, la tasa de consumo experimental ha descendido para los tres grupos de edad desde el año 2000. En relación a 2010, sin embargo, se ha mantenido estable en el caso de los jóvenes y ha descendido sólo ligeramente para los otros dos grupos. Con todo, entre 2006 y 2012, el porcentaje de jóvenes que han probado el alcohol ha pasado del 96% al 87%.
- En el caso del tabaco, se produce en el corto plazo una caída clara en el caso de los jóvenes y los mayores, mientras que en el caso de los adultos el descenso es muy reducido. En los tres grupos se produce en cualquier caso, en el medio plazo, una cierta reducción de las tasas de consumo experimental. En lo que se refiere a los jóvenes, por ejemplo, si en 1992 habían probado el tabaco dos de cada tres, en 2012 la proporción es del 45%.
- En el caso del cannabis, la reducción del consumo experimental de las personas más jóvenes es clarísima, reforzándose la tendencia iniciada en 2006. De hecho, la tasa de consumo expe-

aldi osoko txikiena da 2012an; horrenbestez, agerian gelditzen da gazteak neurri txikiagoan hasten direla kanabisa kontsumitzen azken urteotan. Helduetan ere nolabaiteko murrizketa dago, baina apur bat hazi da adinekoen artean, ziur aski kanabisa beste garai batzuetan probatu zuten baina gaur egun kontsumitzen ez duten pertsonak sartzen ari direlako talde horretan. Nolanahi ere, gazteen eta helduen kontsumo esperimentalak parekatu dira ia 2012an.


rimental de este grupo es en 2012 la más baja de todo el periodo, lo que pone de manifiesto que la incorporación de personas jóvenes a los consumos de cannabis se ha ido ralentizando de forma notable en los últimos años. En el caso de los adultos también se observa una cierta reducción, mientras que la tasa ha crecido ligeramente entre los mayores, probablemente debido a que se van incorporando a ese grupo personas que probaron el cannabis en otras épocas pero que no lo consumen en la actualidad. En cualquier caso, los consumos experimentales de jóvenes y adultos se han prácticamente equiparado en 2012.




- Antzeko egoera dago legez kanpoko drogei dagokienez: kanabisaz bestelako legez kanpoko drogaren bat probatua zuten 35 urtetik beherako pertsonen % 25ek 2006an, baina % 12 baino ez ziren 2012an. Kanabisaren kasuan bezalaxe, gazteen eta helduen kontsumo esperimentalaren tasetan alde oso txikiak daude gutxienez 2008tik aurrera.
- La situación es similar en el caso de las drogas ilegales: si en 2006 habían al menos probado alguna droga ilegal distinta del cannabis el 25% de las personas menores de 35 años, en 2012 el porcentaje es del 12%. Como en el caso del cannabis, desde al menos 2008, las diferencias en las tasas de consumo experimental de jóvenes y adultos son muy reducidas.


68. grafikoa / Gráfico 68

**Hainbat substantziaren kontsumo esperimentalaren tasaren bilakaera adin-taldearen arabera. 1992-2012**

**Evolución de las tasas de consumo experimental de diversas sustancias por grupos de edad. 1992-2012**







Logikoa denez, adin-taldea zenbat eta urte guxtiagokoa izan, txikiagoa izango da hainbat drogaren lehen kontsumoaren batez besteko adina, substantzia guztietan.

Por razones lógicas, la edad media del primer contacto con el consumo de las diversas drogas tiende a ser más baja, para todas las sustancias, cuanto menor es el grupo de edad.

71. taula / Tabla 71

**Hainbat substantzia kontsumitzen hasteko batez besteko adina adin-taldearen arabera EAEn. 2012**


**Edad media de inicio en el consumo de diversas sustancias por grupos de edad en la CAPV. 2012**

	15-34	35-54	55-74	Guztira Total
Alkohola / Alcohol	15,7	16,3	17,5	16,5
Tabakoa / Tabaco	16,3	16,8	18,0	17,0
Kanabisa / Cannabis	17,1	18,6	25,8	18,6
Espetxea ez den beste tratamendu batzuk ahalbidetzea drogak lortzeko delitu egiten dutenentzat Facilitar a las personas que cometan delitos para conseguir drogas un trata- miento en lugar de que tengan que ir a prisión	62,3	65,6	54,8	61,5
Kanabisaren erabilera terapeutikoa ahalbidetzea minbizia eta beste gaixotasun batzuk artatzeko Permitir el uso terapéutico del cannabis en el tratamiento del cáncer y otras enfermedades	87,2	86,4	71,4	82,2
Sendagileek heroína ematea beste tratamendu batzuk baliagarri izan ez zaiz- kien heroína-hartzaileei Administración médica de heroína a los consumidores que han fracasado en otros tratamientos	51,6	56,4	40,1	50,3
Gutxieneko higiene-baldintzak dituzten kontsumo-lokalak irekitzea drogazaleentzat Abrir locales donde las personas drogodependientes puedan consumir en condiciones mínimas de higiene	58,0	58,9	43,5	54,1
Kanabisa norberak kontsumitzeko landatzea ahalbidetzea Permitir el cultivo de cannabis para el autoconsumo	64,0	59,1	30,8	52,1
Ondorio kaltegarririk ez izateko drogak nola kontsumitu azaltzea Informar sobre cómo consumir drogas sin que perjudique	76,4	70,2	58,0	68,3

### 3.3. Droga-kontsumoaren eta gazteen arteko lotura estatistikoa

Aurreko epigrafeetan gazteen, helduen eta adinikoen kontsumo-tasak azaldu ditugu kontsumo esperimentalei, azkenaldikoei, maizkoei eta problematikoei dagokienez, baita talde bakoitzaren jarraitzeko edo uzteko indizeei dagokienez ere; halaber, adierazle horien bilakaera ere aztertu dugu adin-talde bakoitzean.

Drogen kontsumoari dagokionez adinen arteko aldean gainera azterketa bukatzeko, hainbat estatistika-probaren emaitzak aurkeztu ditugu epigrafe honetan; era horretan, 2012an gazteen eta gainerako taldeen artean ikusitako ezberdintasunak estatistikoki adierazgarriak diren berretsi nahi dugu, baita gaztea izatea eta kontsumo jakin batzuk zer neurritan dauden lotuta ere.

Genero-ezberdintasunen kasuan gertatutako moduan, ezberdintasun estatistikoki adierazgarriak daude aztertutako adierazle gehienetan: izan ere, aztertutako 28 adierazletatik 5etan baino ez du khi-karratu frogak adierazgarritasun estatistikoko maila ez-nahikorik eman. Hortaz, begien bistakoa da lotura egon badagoela drogen kontsumoen eta txosten honetan aztertutako ohituren eta pertsonen adinaren artean.

### 3.3. Relación estadística entre el consumo de drogas y las personas jóvenes

En los epígrafes precedentes se han descrito las tasas de consumo de las personas jóvenes, adultas y mayores, en lo que se refiere a los consumos experimentales, recientes, frecuentes o problemáticos, así como en lo que se refiere a los índices de continuidad o de abandono de cada grupo, y a la manera en la que todos esos indicadores han ido evolucionando con el tiempo para cada uno de estos tres grupos de edad.

Para terminar el análisis de las diferencias de edad en lo que se refiere a los consumos de drogas, en este último epígrafe se presentan los resultados de una serie de pruebas estadísticas orientadas a confirmar si las diferencias que, en 2012, se observan entre las personas jóvenes y el resto de los grupos resultan estadísticamente significativas y qué fuerza tienen las asociaciones o relaciones que se detectan entre el hecho de ser joven y unos consumos determinados.

Como sucede en el caso de las diferencias de género, puede hablarse de diferencias estadísticamente significativas en la mayor parte de los indicadores analizados: en efecto, sólo en 5 de los 28 indicadores analizados la prueba del Chi-cuadrado no arroja un nivel suficiente de significatividad estadística. Resulta obvia pues la relación que existe entre los consumos de drogas y los hábitos analizados en este informe y la edad de las personas.

89. taula / Tabla 89

**Kontsumoko aldagaien eta adin-talde gaztearen arteko lotura**  
**Relación entre las variables de consumo y grupo de edad joven**

			Adina: (15-34 urte/35-74 urte) Edad (15-34 años/35-74 años)			
			Khi karra- tua <sup>2</sup> Chi- cuadrado <sup>2</sup>	Aukera- arrazoiak Odds ratio	KI: % 951 IC: 95% <sup>1</sup>	
					Behekoa Inferior	Goikoa Superior
Kontsumoa bizitzan zehar Consumos a lo largo de la vida	I1	Alkoholaren kontsumoa bizitzan zehar Consumo de alcohol a lo largo de la vida	✗	--	--	--
	I2	Tabakoaren kontsumoa bizitzan zehar Consumo de tabaco a lo largo de la vida	✓	0,57+	0,48	0,68
	I3	Kanabisaren kontsumoa bizitzan zehar Consumo de cannabis a lo largo de la vida	✓	1,85+	1,52	2,24
	I4	Legez kanpoko beste drogaren baten kontsumoa bizitzan zehar Consumo de alguna otra droga ilegal a lo largo de la vida	✓	1,53+	1,13	2,07
	I5	Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe kontsumitzea bizitzan zehar Consumo de psicofármacos con o sin receta a lo largo de la vida	✓	0,37+	0,29	0,47
	I6	Jokoa azken urtean Juego en el último año	✓	0,35+	0,29	0,42
Maizko edo ohiko kontsumoak Consumos frecuentes o habituales	I7	Alkoholaren kontsumoa egun edo asteburu gehienetan Consumo de alcohol la mayoría de días o fines de semana	✗	--	--	--
	I8	Alkohola egunero kontsumitzea Consumo de alcohol diario	✓	0,14+	0,09	0,22
	I9	Ohiko tabako-kontsumoa Consumo habitual de tabaco	✓	1,79+	1,38	2,31
	I10	Kanabisa gutxienez astero kontsumitzea azken urtean Consumo al menos semanal de cannabis en el último año	✓	3,04+	1,75	5,30
	I11	Legez kanpoko drogaren baten egungo kontsumoa (kanabisa izan ezik) Consumo actual de alguna droga ilegal (sin cannabis)	✓	4,15+	1,34	12,86
	I12	Medikuaren errezetarekin edo gabeko psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa Consumo reciente de psicofármacos con o sin receta	✓	0,56+	0,35	0,88
	I13	Jokoa astean behin gutxienez Juego al menos semanal	✓	0,38+	0,30	0,48



			Adina: (15-34 urte/35-74 urte) Edad (15-34 años/35-74 años)			
			Khi karra- tua <sup>2</sup> Chi- cuadrado <sup>2</sup>	Aukera- arrazoiak Odds ratio	KI: % 951 IC: 95% <sup>1</sup>	
					Behekoa Inferior	Goikoa Superior
Kontsumo intentsuak eta problematikoak Consumos intensos o problemáticos	I14	Alkoholaren gehiegizko edo arriskuko kontsumoa lanegunetan Consumo excesivo o de riesgo de alcohol en días laborables	✗	--	--	--
	I15	Alkoholaren gehiegizko edo arriskuko kontsumoa asteburuetan Consumo excesivo o de riesgo de alcohol en fines de semana	✓	4,02 <sup>+</sup>	3,03	5,31
	I16	Alkoholismo-susmoa (CAGE testa) Sospecha de alcoholismo (test CAGE)	✓	2,44 <sup>+</sup>	1,54	3,87
	I17	12 mozkorraldi baino gehiago urtean Más de 12 borracheras al año	✓	11,58 <sup>+</sup>	5,26	25,51
	I18	Drogen kontsumoarekin loturiko hiru arazo edo gehiago (gazteak bakarrik) Tres o más problemas asociados consumo drogas (sólo jóvenes)	--	--	--	--
	I19	Kaleko alkohol-kontsumoa aste guztietan edo ia guztietan (gazteak bakarrik) Consumo de alcohol en la calle todas o casi todas las semanas (sólo jóvenes)	--	--	--	--
	I20	20 zigarro baino gehiagoko eguneko kontsumoa Consumo diario de más de 20 cigarrillos	✓	0,10 <sup>+</sup>	0,04	0,24
	I21	Kanabisaren eguneroko kontsumoa (gutxienez 4 egun asteko azken hilabeteetan) Consumo diario de cannabis (al menos 4 días/semana en último mes)	✓	2,79 <sup>+</sup>	1,39	5,61
	I22	Medikuaren errezetarik gabeko psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa Consumo reciente de psicofármacos sin receta	✗	--	--	--
	I23	Jokalari aktiboa Jugador activo	✓	0,65 <sup>+</sup>	0,49	0,85
	I24	Arriskuaren barruko jokalaria (txikia, apala edo gehiegizkoa) Jugador de riesgo (bajo, moderado o excesivo)	✗	--	--	--
	I25	Interneten erabilera problematikoa edo arriskuaren barrukoa (gazteak bakarrik) Uso problemático o de riesgo de internet (sólo jóvenes)	--	--	--	--
I26	Drogen polikontsumoa Policonsumo de drogas	✓	6,38 <sup>+</sup>	3,10	13,13	

			Adina: (15-34 urte/35-74 urte) Edad (15-34 años/35-74 años)			
			Khi karra- tua <sup>2</sup> Chi- cuadrado <sup>2</sup>	Aukera- arrazoia Odds ratio	KI: % 95 IC: 95% <sup>1</sup>	
					Behekoa Inferior	Goikoa Superior
Uztea eta jarraitutasuna Abandono y continuidad	I27	Alkoholaren kontsumoa uztea edo kontsumo txikiagoa / Cesación del consumo o menor consumo de alcohol	✓	0,52 <sup>+</sup>	0,43	0,63
	I28	Tabakoaren kontsumoari uztea Abandono del consumo de tabaco	✓	0,30 <sup>+</sup>	0,22	0,40
	I29	Kanabisaren azkenaldiko kontsumoa Continuidad reciente en el consumo de cannabis	✓	4,56 <sup>+</sup>	3,02	6,89
	I30	Legez kanpoko beste droga batzuen azkenaldiko kontsumoa / Continuidad reciente en el consumo de otras ilegales	✓	4,13 <sup>+</sup>	1,77	9,60
Drogekiko hurbiltasuna Cercanía drogas	I31	Legez kanpoko drogen kontsumoetako inplikazioa	✓	2,22 <sup>+</sup>	1,79	2,74

<sup>1</sup> Konfiantza-bitartean 1 balioa beheko eta goiko tartean artean dagoenean, horrek esan nahi du ziurgabetasuna dagoela loturaren adierazgarritasunari dagokionez, eta izan litezkeen emaitzetako bat da 1, taldeen artean ezberdintasun adierazgarriak ez dagoela adierazten duena.

<sup>2</sup> Khi karratua frogaren emaitzak  $p < 0,05$ erako (✓) Aldagaien artean ikusitako ezberdintasunak estatistikoki adierazgarriak direla adierazten du. (✗) Lotura adierazgarriak ez dagoela adierazten du.

<sup>+</sup> 1,25en gainetik edo 0,80ren azpitik dauden balioek eragin handia dutela jotzen da, bai maila empirikoan bai maila teorikoan.

<sup>1</sup> Aquellos intervalos de confianza en los que el valor 1 se sitúa entre la horquilla inferior y superior indican que existe incertidumbre en cuanto a la significatividad de esa relación en tanto que el 1 sería uno de los resultados posibles, que indica que no existen diferencias significativas entre los grupos.

<sup>2</sup> Resultados de la prueba Chi-Cuadrado para  $p < 0,05$ : (✓) Indica que las diferencias observadas entre las variables son estadísticamente significativas. (✗) Expresa que no hay relación significativa.

<sup>+</sup> Se considera que valores por encima de 1,25 ó por debajo de 0,80 representan un efecto importante tanto a nivel empírico como teórico

Zer-nolako lotura du drogen kontsumoak gaztea izatearekin? Batetik, antza denez, gaztea izateak hainbat ohitura eta kontsumotatik babesten du, bereziki esperimentalen kasuan. Zehazki:

- Gazteek tabakoa probatua izateko % 43 aukera gutxiago dituzte, bizitzan noizbait psikofarmakoak kontsumitu izateko % 63 aukera gutxiago eta legez kanpoko jokoren batean jokatu izateko % 65 aukera gutxiago.
- Halaber, jokalaria aktiboa izateko % 35 aukera gutxiago dituzte, astero ausazko jokoren batean aritzeko % 42 aukera gutxiago eta alkohola eguneroko kontsumitzeko % 85 aukera gutxiago.

¿En qué sentido se relacionan los consumos de drogas con el hecho de ser una persona joven? Por una parte, parece que el hecho de ser joven protege de ciertos hábitos y consumos, especialmente en el caso de los experimentales. En concreto:

- las personas jóvenes tienen un 43% menos de probabilidades de haber probado el tabaco, un 63% menos de haber consumido psicofármacos alguna vez en la vida y un 65% menos de haber jugado a algún juego ilegal:
- las personas jóvenes tienen un 90% menos de probabilidades de fumar más de 20 cigarrillos al día; también tienen un 35% menos de probabilidades de ser jugador activo, un 42% menos de jugar a algún juego de azar todas las semana y un 85% menos de ser consumidor diario de alcohol;

Aitzitik, hauetan gutxienez ez dago alderik: alkoholaren kontsumo esperimentalean, alkoholaren asteburuetako ohiko kontsumoan, lanegunetako gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoan, errezetarik gabeko psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoan eta gehiegizko jokoan. Gainerako kasuetan gaztea izatea arrisku-faktore bat da edo lotuta dago kontsumo handiagoekin gutxienez. Horrela bada, gazteek:

- Tabakoa ohiko moduan erretzeko 1,79 aldiz aukera gehiago dituzte.
- Astean behin gutxienez kanabisa kontsumitzeko hiru aldiz aukera gehiago dituzte.
- Azken hilabetea kanabisa ez den legez kanpoko drogaren bat kontsumitu izateko lau aldiz aukera gehiago dituzte.
- CAGE testaren arabera alkoholismo-arriskua izateko 2,4 aldiz aukera gehiago dituzte.
- Azken urtean hilabetean behin gutxienez mozkortu izateko 11 aldiz aukera gehiago dituzte.
- Kanabisa astean behin gutxienez kontsumitu izateko 2,7 aldiz aukera gehiago dituzte.
- Drogen polikontsumitzailea izateko sei aldiz aukera gehiago dituzte.
- Alkoholaren kontsumoa uzteko edo murrizteko aukeren erdia, eta tabakoaren kontsumoa utzi izateko % 70 aukera gutxiago dituzte.
- Legez kanpoko drogen munduan sartuta dagoela joa izateko 2,2 aldiz aukera gehiago dituzte.

Por el contrario, no hay diferencias en lo que se refiere al consumo al menos experimental de alcohol, en el consumo habitual de alcohol los fines de semana, en el consumo excesivo o de riesgo en días laborables, en el consumo reciente de psicofármacos sin receta y en lo que se refiere al juego excesivo. En el resto de los casos, el hecho de ser joven actúa como factor de riesgo o se relaciona al menos con consumos más elevados. En ese sentido, las personas jóvenes:

- tienen una probabilidad 1,79 veces mayor de consumir tabaco de forma habitual;
- una probabilidad tres veces mayor de consumir cannabis al menos una vez por semana;
- cuatro veces más probabilidades de haber consumido alguna droga ilegal distinta del cannabis en el último mes;
- una probabilidad 2,4 veces mayor de presentar riesgos de alcoholismo de acuerdo al test CAGE;
- una probabilidad 11 veces mayor de haberse emborrachado al menos una vez al mes durante el último año;
- una probabilidad 2,7 veces mayor de ser consumidor al menos semanal de cannabis;
- una probabilidad seis veces mayor de ser policonsumidor de drogas;
- la mitad de probabilidades de haber cesado o reducido el consumo de alcohol y un 70% menos de probabilidades de haber abandonado el consumo de tabaco;
- una probabilidad 2,2 veces mayor de haber sido considerado como 'implicado' en el mundo de las drogas ilegales.

## **4. DROGEN KONTSUMOA ETA GENEROA**

---

## **4. CONSUMOS DE DROGAS Y GÉNERO**



## 4. DROGEN KONTSUMOA ETA GENEROA

### 4.1. Sarrera

Genero-ikuspegia sartzeak izugarri aberastu ditu droga-mendetasunei buruzko azterketa epidemiologikoak. Hala, analisisiek sakontasun handiagoa hartu dute emakumeek eta gizonek drogen kontsumo-eredu ezberdinak eta drogei eta haien arriskuei buruzko iritzi ezberdinak eduki ditzaketela jotzean, bai eta batzuek zein besteek gizartean betetzen duten eginkizunarekin portaera edo pertzepzio horiek lotuta daudela jotzean ere; horri esker, drogen kontsumoa gizartearen fenomeno gisa hobeto ulertzeaz gain, talde bakoitzaren errealitatera gehiago egokitzen diren politikak planteatu daitezke. Horregatik, hain zuzen, gaur egun datu epidemiologikoak sexuaren arabera bereizten dira, eta generoari buruzko interpretazioa gaineratzen da datu horien beharrezko irakurketako bat delakoan. Horrela bada, *Euskadi eta drogak* serie osoan drogen kontsumoan ikusten diren ezberdintasunak hoberen azaltzen dituen faktoreetako bat izan da sexua, adinarekin batera.

Kapitulu honen egitura aurrekoaren oso antzekoa da (kontsumoaren ezberdintasunak adinaren arabera aztertzeke zen). Atalik handienez sexua oinarri hartuta lau kontsumo mota (esperimentala, azkenaldikoa, maizkoa edo ohikoa eta problematikoa edo intentsua) aztertu dira, bai eta haiekin lotutako jarraitzeke eta uzteke ereduak zein drogen kontsumoarekin eta droga-mendetasunekin lotutako pertzepzioak eta iritziak ere. Amaitzeko, analisi horren osagarri, azalpen-azterketa bat ere egingo dugu kapituluaren azken atalean, khi-karratu frogan eta aukera-arrazoien (talde batzuek beste batzuen

## 4. CONSUMOS DE DROGAS Y GÉNERO

### 4.1. Introducción

La introducción de la perspectiva de género ha supuesto un importante enriquecimiento de los estudios epidemiológicos sobre drogodependencias. El hecho de considerar que mujeres y hombres pueden tener distintas pautas de consumo de drogas, u opiniones diferentes sobre las drogas y sus riesgos, y que tales comportamientos o percepciones están relacionados con el papel que unas y otros desempeñan en la sociedad, dota de mayor profundidad a los análisis, permitiendo no sólo comprender mejor el consumo de drogas como fenómeno social, sino también plantear políticas más ajustadas a la realidad de cada grupo. Tal es así que hoy día lo más habitual es desagregar por sexo los datos epidemiológicos e incorporar la interpretación en clave de género como una de las lecturas necesarias de esos datos. De hecho, a lo largo de la serie completa Euskadi y Drogas, el sexo ha demostrado ser junto con la edad uno de los factores que mejor explican las diferencias que pueden observarse en el consumo de drogas.

La estructura de este capítulo es muy similar a la del capítulo previo destinado a analizar las diferencias en el consumo en base a la edad. La mayor parte de él se centra en el análisis descriptivo en base al sexo de cuatro tipos de consumo (experimentales, recientes, frecuentes o habituales y problemáticos o intensos), de las distintas pautas de continuidad y abandono asociadas a ellos y de las percepciones y opiniones relacionadas con el consumo de drogas y las drogodependencias. Este análisis se completa, en el último apartado de este capítulo, con un análisis explicativo, basado en la prueba del Chi-cuadro

gainean duten arrisku erlatiboa ezagutzeko erabiltzen den neurria) kalkuluan oinarrituta, generoaren aldagaiak drogen kontsumoan duen eraginaren inguruan.

#### **4.2. Genero-ezberdintasunen eragina droga-kontsumoetan eta mendetasunekin lotutako portaera problematikoetan: egungo egoera eta bilakaeraren datuak**

##### 4.2.1. Kontsumo esperimentalak eta hasteko adina

Oro har, gizonen kontsumo esperimental handiagoak izaten dituzte aztertutako substantzia guztietan, psikofarmakoen erabilerari dagokionez izan ezik (lasaigarriak, lo egiteko pilulak eta antidepressiboak –errezetarekin edo gabe–). Bi sexuen arteko ezberdintasunak, dena den, aldatu egiten dira aztertutako substantziaren arabera: drogen edo legezko ohituren kasuan aldea ez ba oso handia (gizonen alkohol-kontsumoa emakumeena halako 1,1 da, tabakoarena halako 1,2 eta ausazko jokoetako parte-hartzea halako 1,1), baina kanabisaren eta legez kanpoko gainerako drogen kasuan gizonen kontsumo esperimentalaren tasa emakumeena baino nabarmen handiagoa da (1,6 aldiz handiagoa kanabisari dagokionez, eta 2,4 aldiz handiagoa legez kanpoko gainerako drogen kasuan). Psikofarmakoen kasuan, aldiz, gizonen kontsumo-tasa emakumeena baino txikiagoa da.

Horrenbestez, erabilera esperimentalei dagokienez, nolabaiteko bat etortzea dago gizon eta emakumeen artean drogen eta legezkatutako ohituren kasuan, baina ez da horrela gertatzen legez kanpoko substantzien erabilerari dagokionez, nabarmen handiagoa baita gizonen artean.

y cálculo de las Odds Ratio (medida utilizada para conocer el riesgo relativo que tienen unos grupos sobre otros), sobre el impacto del género en diversas pautas de consumo de drogas.

#### **4.2. El impacto de las diferencias de género en los consumos de drogas y en los comportamientos problemáticos relacionados con las adicciones: situación actual y datos de evolución**

##### 4.2.1. Los consumos experimentales y la edad de inicio

En general, los hombres tienden a tener para todas las sustancias analizadas consumos experimentales más altos, salvo en lo que se refiere al uso de los psicofármacos (tranquilizantes, somníferos y anti-depresivos con o sin receta). Las diferencias que se producen entre ambos sexos difieren en cualquier caso en función del tipo de sustancia analizada: si en el caso de las drogas o hábitos legales la diferencia no es muy elevada (el consumo masculino de alcohol multiplica por 1,1 el femenino, el de tabaco por 1,2 y la participación en juegos de azar por 1,1), en el caso del cannabis y las demás drogas ilegales la tasa de consumo experimental masculino es sensiblemente más alta que la femenina (1,6 veces mayor en el caso del cannabis y 2,4 veces mayor en el caso de las demás drogas ilegales). En el caso de los psicofármacos, por el contrario, la tasa de consumo masculina es superior a la femenina.

En lo que se refiere a los usos experimentales, por tanto, puede hablarse de cierta convergencia entre hombres y mujeres en el caso de las drogas y los hábitos legalizados, pero no así en lo que se refiere al uso de las sustancias ilegalizadas, que sigue siendo sustancialmente mayor entre los hombres.

## 90. taula / Tabla 90

**Hainbat substantziaren kontsumo esperimentalaren tasa sexuaren arabera. 2012**  
**Tasa de consumo experimental de diversas sustancias por sexo. 2012**

	<b>Gizonak</b> Hombres	<b>Emakumeak</b> Mujeres	<b>Guztira</b> Total	<b>G/E ratioa</b> Ratio h/m
Alkohola / Alcohol	90,8	83,0	86,9	1,1
Tabakoa / Tabaco	59,6	49,2	54,4	1,2
Kanabisa / Cannabis	34,8	21,8	28,3	1,6
Legez kanpoko besteren bat / Alguna otra ilegal	12,2	5,0	8,6	2,4
Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe Psicofármaco con o sin receta	14,9	27,2	21,1	0,5
Apustu edo ausazko jokoa* Juegos de apuestas o azar*	57,4	54,3	55,9	1,1

\* Apustu edo ausazko jokoei dagokienez azken 12 hilabeteetako kontsumoa aipatzen da, baina gainerako substantzietan bizitzan noizbait.  
 \* A diferencia del resto de sustancias en las que el consumo se refiere a alguna vez en la vida, en el caso de la práctica de los juegos de apuestas o azar la tasa se corresponde con los últimos 12 meses.

Substantzia horiek kontsumitzen hasteko adinari dagokionez, gizonak, oro har, lehenago hasten dira horrelakoak kontsumitzen emakumeak baino, kanabisaren bestelako legez kanpoko drogen kasuan izan ezik. Termino erlatiboetan alkoholean dago alderik handiena, baina hilabeteetako alderik handiena, halere, kontsumo berankorrenean dago, psikofarmakoenean.

En lo que se refiere a la edad de inicio en el consumo de estas sustancias, hay que señalar que en general, salvo en el caso de las drogas ilegales distintas del cannabis, los hombres se inician en el consumo de las diversas sustancias antes que las mujeres. En términos relativos, la mayor diferencia se da en el caso del alcohol, si bien la mayor diferencia en meses se produce en el consumo de inicio más tardío, el de los psicofármacos.

## 91. taula / Tabla 86

**Hainbat substantzia kontsumitzen hasteko batez besteko adina sexuaren arabera. 2012**  
**Edad media de inicio en el consumo de diversas sustancias por sexo. 2012**

	<b>Gizonak</b> Hombres	<b>Emakumeak</b> Mujeres	<b>Guztira</b> Total
Alkohola / Alcohol	15,8	17,3	16,5
Tabakoa / Tabaco	16,8	17,2	17,0
Kanabisa / Cannabis	18,2	19,3	18,6
Legez kanpoko besteren bat / Alguna otra ilegal	20,1	19,5	19,9
Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe Psicofármacos con o sin receta	36,6	39,3	38,3



Nola aldatu dira denboran zehar genero-aldeak substantzien kontsumo esperimentalei dagokionez?

Alkoholari dagokionez, aldeak nahiko egonkor mantendu dira (taulan ikus dezakegu), baina 2000tik izandako murrizketa handixeagoa izan da emakumeen artean. Hala eta guztiz ere, bi sexuen arteko ratioa edo aldea egonkor mantendu da; horrenbestez, ez dago esaterik bien kontsumo esperimentaletan hurbilketa bat egon denik, baizik eta gizonen kontsumo esperimental handixeago bat mantendu dela denboran.

¿Cómo han variado a lo largo del tiempo las diferencias de género en lo que se refiere a los consumos experimentales de las diversas sustancias?

En el caso del alcohol, puede decirse que las diferencias se han mantenido relativamente estables, como se observa en la tabla, si bien la reducción experimentada desde 2000 ha sido en el caso de las mujeres algo mayor. Con todo, la ratio o diferencia entre ambos sexos se ha mantenido estable, por lo que no puede hablarse de acercamiento entre los consumos experimentales de uno y de otro sexo, sino del mantenimiento a lo largo del tiempo de un consumo experimental masculino ligeramente mayor.

92. taula / Tabla 92

**Alkoholaren kontsumo esperimentalaren 1 tasaren bilakaera sexuaren arabera. 2000-2012**  
**Evolución de la tasa de consumo experimental de alcohol por sexo. 2000-2012**

	<b>Gizonak Hombres</b>	<b>Emakumeak Mujeres</b>	<b>Guztira Total</b>	<b>G/E ratioa Ratio h/m</b>
2000	97,4	93,8	95,6	1,04
2002	96,5	91,9	94,2	1,05
2004	94,0	83,8	88,8	1,12
2006	98,2	91,3	94,8	1,08
2008	95,9	87,5	91,7	1,10
2010	94,0	87,7	90,8	1,07
2012	90,8	83,0	86,9	1,09
Ald. %	-6,8	-11,4	-9,1	--

Tabakoari dagokionez datu gehiago daude, eta 1992tik aurreragoko bilakaera-serie bat dugu. Datuen azterketak hainbat gauza interesgarri jartzzen ditu agerian: batetik, 1990eko hamarkadan gizonen eta emakumeen kontsumo esperimentalak elkartzeko prozesu argia ikus daiteke; hala, 1994ko 1,8ko ratiotik (gizonen kontsumoa emakumeena halako 1,8 da) 2004ko 1,2ko batera igaro da. Bat etortze hori aldi horretan emakumeen kontsumo-tasak handitzeagatik zein gizonenak murrizteagatik gertatu da. Elkartze hori murriztu egin da 2004tik aurrera eta, 2008tik, berriro hurbildu dira kontsumoak; izan


En el caso del tabaco, la disponibilidad de datos es mayor y la serie evolutiva se remonta al año 1992. El análisis de los datos pone de manifiesto algunos hechos de interés: por una parte se observa a lo largo de toda la década de los años 90 un proceso claro de convergencia entre los consumos experimentales masculinos y femeninos, pasando en 1994 de una ratio de 1,8 (el consumo masculino multiplica por 1,8 el femenino) a una ratio de 1,2 en 2004. Esa convergencia se debe tanto al incremento de las tasas de consumo femeninas como al decremento en ese periodo de las masculinas. A partir de 2004 la

ere, gizonetan kontsumo esperimentalak nolabait teko murrizketa izan badu ere, emakumeen artean 2010 eta 2012 bitartean bakarrik murriztu da, eta murrizketa oso apala izan da, gainera.

convergencia va reduciéndose y, desde 2008, vuelven a acercarse los consumos ya que, mientras en el caso de los hombres el consumo experimental se reduce con cierta fuerza, en el caso de las mujeres sólo lo hace entre 2010 y 2012 y de forma muy moderada.

73. grafikoa / Gráfico 73


### Tabakoaren kontsumo esperimentalaren tasaren bilakaera sexuaren arabera. 1992-2012 Evolución de la tasa de consumo experimental de tabaco por sexo. 1992-2012



Gizonen eta emakumeen kontsumo esperimentalaren bilakaera alkoholarenaren antzekoa da. Bestetik, emakumeen kontsumoaren hazkundera, epe luzean, gizonena baino handiagoa izan da (zehazki, substantzia hori bizitzan noizbait kontsumitu duten emakumeen ehunekoa % 30 baino gehixeago handitu da 1992 eta 2012 artean, baina txikiagoa da hazkundera gizonetan, % 17,9). Grafikoan ikus dezakegu, hala ere, kontsumo-tasek antzeko bilakaera izan dutela, eta kasu honetan, tabakoarekin ez bezala, ezin dugu bat etortzea egon denik esan, aldeak aski egonkor mantendu baitira, gorabeherekin; 1,8-1,4 gizon kontsumitzaile emakume kontsumitzaile bakoitzeko, urtearen arabera.

La evolución del consumo experimental de cannabis de hombres y mujeres se asemeja a la del alcohol. Por una parte, en el largo plazo, el crecimiento de los consumos femeninos ha sido superior al de los masculinos (concretamente, el porcentaje de mujeres que han consumido esta sustancia alguna vez en la vida se ha incrementado algo más de un 30% entre 1992 y 2012, mientras que en los hombres este aumento es inferior, del 17,9%). Sin embargo, como se observa en el gráfico, las tasas de consumo han evolucionado de una forma muy similar y tampoco en este caso, a diferencia del tabaco, puede hablarse de convergencia, manteniéndose las diferencias relativamente estables, con ciertos altibajos, con entre 1,8 y 1,4 hombres consumidores por cada mujer consumidora, dependiendo del año.

## 74. grafikoa / Gráfico 74

**Kanabisaren kontsumo esperimentalaren tasaren bilakaera sexuaren arabera. 1992-2012**  
**Evolución de la tasa de consumo experimental de cannabis por sexo. 1992-2012**



Genero-aldeen ikuspegitik, kanabisaren bestelako legez kanpoko drogen kontsumo esperimentalak bi ezaugarri nagusi ditu: batetik, gizonen eta emakumeen arteko aldeak nabarmen handiagoak dira alkoholaren, tabakoaren edo kanabisaren kasuan baino. Bestetik, bi taldeen kontsumoak elkartzeko prozesu bat dagoela ikus daiteke; bereziki argia izan da 1990eko bigarren erdialdean –4tik 2ra igaro da ratioa-. Halere, prozesu hori egonkortu egin da 2000tik aurrera.

Desde el punto de vista de las diferencias de género, el consumo experimental de las drogas ilegales distintas del cannabis se caracteriza por dos aspectos: por una parte, las diferencias entre hombres y mujeres son notablemente más elevadas que en el caso del alcohol, el tabaco o el cannabis. Por otra, se observa un proceso de convergencia entre los consumos de ambos grupos, especialmente claro en la segunda mitad de los años 90 –la ratio pasa del 4 al 2- que, sin embargo, se estabiliza a partir del año 2000.

75. grafikoa / Gráfico 75

**Kanabisaren bestelako legez kanpoko drogen kontsumo esperimentalaren tasaren bilakaera sexuaren arabera. 1992-2012**

**Evolución de la tasa de consumo experimental de drogas ilegales distintas del cannabis por sexo. 1992-2012**



Kanabisaren bestelako legez kanpoko edozer drogen kontsumoa aztertu beharrean kanabisaren ostean gehien kontsumituriko legez kanpoko bi substantziak –speeda eta kokaina– aztertuz gero, aurreko grafikoa adierazitako datuak berres-ten dira. Aldeak, epe luzean, murriztu dira, baina egonkor mantendu dira –bizpahiru gizon kontsumi-tzaile emakume bakoitzeko– 2004tik aurrera.

Si en lugar del consumo de cualquier droga ilegal distinta del cannabis se analiza el de las dos sus-tancias ilegales más consumidas tras el cannabis –el speed y la cocaína– se confirman los datos señalados en el gráfico anterior. Las diferencias, en el largo plazo, se han reducido, si bien se mantienen esta-bles –con entre dos y tres consumidores por cada consumidora– desde 2004.

88. taula / Tabla 88

**Speedaren (anfetaminak) eta kokainaren kontsumo-tasaren bilakaera sexuaren arabera. 1992-2012**  
**Evolución de la tasa de consumo de speed y cocaína por sexo .1992-2012**

	Gizonak / Hombres		Emakumeak / Mujeres		G/E ratioa / Ratio h/m	
	Anfetaminak edo <i>speeda</i> Speed	Kokaina Cocaína	<i>Speeda</i> Speed	Kokaina Cocaína	<i>Speeda</i> Speed	Kokaina Cocaína
1992	5,5	5,3	1,6	1,4	3,4	3,9
1994	7,3	5,6	0,9	1,9	8,1	3,0
1996	7,4	6,3	1,5	1,7	5,1	3,6
1998	6,8	6,8	3,5	2,2	1,9	3,1
2000	7,4	6,5	4,3	3,2	1,7	2,0
2002	10,0	8,9	5,7	5,1	1,7	1,7
2004	14,5	14,0	7,8	5,9	1,8	2,4
2006	12,1	11,4	5,5	4,8	2,2	2,4
2008	13,1	12,9	4,2	4,4	3,1	2,9
2010	9,2	9,4	4,5	4,1	2,1	2,3
2012	9,7	7,9	3,4	3,1	2,8	2,6

Psikofarmakoei buruzko analisia –medikuaren errezetarekin eta gabe– bereziki garrantzitsua da genero-ikuspegitik; izan ere, gaurkoz, aztertutako substantzietan bakarra da emakumeen kontsumo-hunekoa gizonenak baino handiagoak dituenak. Jarraian erakutsitako taularen arabera, errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumoa gutxiengo batena da, baina handitu egin da urteetan, batez ere emakumeen artean. Azterketaren azken urtean errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumo esperimentalerako kalkulaturiko ratioak dio substantzia horiek noizbait kontsumitu dituen gizon bakoitzeko 1,7 emakume daudela.

Errezetadun psikofarmakoen kontsumo esperimentalak, bestalde, neurri handiagoan murriztu da emakumeen artean gizonetan baino; era horretako kontsumoen aldea, dena den, mantendu egin da sexuen artean, aztertutako urteetan psikofarmakoekin esperimentatu duten emakumeak bikoitza baitira gizonekin alderatuta.

El análisis relativo a los psicofármacos –con y sin receta médica– resulta especialmente relevante desde una perspectiva de género ya que, hoy por hoy, es la única sustancia de las analizadas en la que los porcentajes de consumo femenino son mayores que los masculinos. Según la tabla que se muestra a continuación, el consumo de psicofármacos sin receta es minoritario, aunque ha aumentado a lo largo de los años, sobre todo entre las mujeres. Hay que decir que, en el último año de análisis, la ratio calculada para el consumo experimental de psicofármacos sin receta indica que hay 1,7 mujeres que han experimentado con estas sustancias por cada hombre que también las ha consumido en algún momento.

Por otro lado, el consumo experimental de psicofármacos con receta ha disminuido en mayor medida entre las mujeres que entre los hombres; sin embargo, las diferencias en este tipo de consumo entre sexos se mantienen, ya que, a lo largo de los años analizados, las mujeres que experimentan con los psicofármacos son el doble en número, en comparación con los hombres.

89. taula / Tabla 89

**Psikofarmakoen kontsumo esperimentalaren tasaren bilakaera sexuaren arabera. 2006-2012**  
**Evolución de la tasa del consumo experimental de psicofármacos por sexo. 2006-2012**

	Errezetarekin / Con receta			Errezetarik gabe / Sin receta		
	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Ratioa Ratio	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Ratioa Ratio
2006	14,7	30,0	2,0	1,1	1,6	1,4
2008	13,9	23,5	1,7	1,9	1,9	1,0
2010	15,4	28,2	1,8	2,0	2,1	1,0
2012	13,6	26,3	1,9	1,9	3,1	1,7
Ald. % / % Var.	-7,2	-12,6	--	70,3	98,7	--

## 4.2.2. Azkenaldiko kontsumoak

Azkenaldiko kontsumoek (inkestaren aurreko hamabi hilabeteetan eginda) aztertutako substantzien kontsumo ustez maizago edo, gutxienez, denboran berriago bat adierazten dute, oro har. Kontsumo esperimentalen kasuan bezala, gizonen azkenaldiko kontsumo-tasak handiagoak dira gizonetan emakumetan baino, psikofarmakoetan izan ezik. Aldeak, nolahi ere, alkoholaren eta, batez ere, kanabisaren eta kanabisaren bestelako legez kanpoko drogen azkenaldiko kontsumoan baino ez dira handiak.

## 4.2.2. Los consumos recientes

Los consumos recientes (realizados en los doce meses previos a la encuesta) indican en general un consumo presumiblemente más frecuente o, al menos, más reciente en el tiempo de las distintas sustancias consideradas. Como en el caso de los consumos experimentales, las tasas de consumo reciente masculinas son más elevadas que las femeninas, salvo en el caso de los psicofármacos. Las diferencias, en cualquier caso, sólo son importantes en el caso del uso reciente del alcohol y, sobre todo, del cannabis y de las drogas ilegales distintas del cannabis.

90. taula / Tabla 90

**Hainbat substantziaren azkenaldiko kontsumoaren tasa sexuaren arabera. 2012**  
**Tasa de consumo reciente de diversas sustancias por sexo. 2012**

	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Ratioa Ratio	G/E ratioa Ratio h/m
Alkohola / Alcohol	80,6	66,4	73,5	1,2
Tabakoa / Tabaco	33,3	29,1	31,2	1,1
Kanabisa / Cannabis	8,8	3,7	6,3	2,4
Legez kanpoko besteren bat / Alguna otra ilegal	2,2	0,4	1,3	5,5
Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe Psicofármaco con o sin receta	7,3	16,6	12,0	0,4
Apustu edo ausazko jokoak / Juegos de apuestas o azar	57,4	54,3	55,9	1,1

Hainbat substantziaren azkenaldiko kontsumoak adierazten dituzten pertsonen barneko osakerari dagokionez, emakumeak gutxiengo argia dira legez kanpoko drogetan (hala kanabisean nola legez kanpoko gainerako substantzietan). Psikofarmakoei dagokienez emakumeak dira gehiengoa, eta jokoaren, alkoholaren eta tabakoaren kasuan gutxiengo % 40 baino gehiago dira.

En lo que se refiere a la composición interna del colectivo de personas que refieren consumos recientes de diversas sustancias, las mujeres constituyen una minoría clara en el caso de las drogas ilegales (tanto del cannabis como del resto de las sustancias ilegales). En el caso los psicofármacos constituyen el grupo mayoritario, mientras que en el caso del juego, el alcohol y el tabaco su peso supera el 40% de todo el colectivo.

#### 91. taula / Tabla 91

### Azken 12 hilabeteetan hainbat substantzia kontsumitu dituzten pertsonen banaketa sexuaren arabera. 2012

#### Distribución de las personas que han consumido diversas sustancias a lo largo de los últimos 12 meses por sexo. 2012

	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Guztira Total
Alkohola / Alcohol	54,7	45,3	100,0
Tabakoa / Tabaco	54,7	45,3	100,0
Kanabisa / Cannabis	67,1	32,9	100,0
Legez kanpoko besteren bat / Alguna otra ilegal	78,9	21,1	100,0
Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe / Psicofármaco con o sin receta	32,6	67,4	100,0
Apustu edo ausazko jokoak / Juegos de apuestas o azar	58,6	41,4	100,0
Guztira / Total	49,9	50,1	100,0

Bilakaeraren ikuspegitik, alkoholaren eta tabakoaren kontsumo-tasen antzeko beherakada gertatu da, 2006tik, emakumeen zein gizonen artean; horrenbestez, beren horretan mantendu dira gizon/emakume ratioa zein emakumeek kontsumitzaileetan duten presentzia. Kanabisari dagokionez, gorabeherak nabarmenagoak dira, baina ezin da inola ere adierazi emakumeek pisu handiagoa dutenik kontsumitzaileen artean, ezta substantzia horren kontsumo-tasak elkartu direnik ere, funtsean gizonen ohitura baita oraindik.

Desde el punto de vista evolutivo, en el caso del alcohol y del tabaco se produce tanto entre hombres como entre las mujeres, desde 2006, un descenso relativamente similar de las tasas de consumo, manteniéndose por tanto constantes la ratio hombres/mujeres y la presencia de mujeres en el colectivo consumidor. En el caso del cannabis, los altibajos son más acusados, pero no puede en cualquier caso hablarse de un incremento claro del peso de las mujeres en el colectivo consumidor ni tampoco de un acercamiento en las tasas de consumo de esta sustancia, que sigue siendo un hábito fundamentalmente masculino.

92. taula / Tabla 92

**Hainbat substantziaren azkenaldiko tasen, gizonen/emakumeen arteko ratioaren, kontsumitzaile guztien artean emakumeek duten proportzioaren bilakaera. 1992-2012**

**Evolución de las tasas de consumo reciente, de la ratio entre hombres y mujeres y de la proporción de mujeres consumidoras en relación al total de las personas consumidoras de diversas sustancias. 1992-2012**

		1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012
Alkohola Alcohol	Gizonen tasa / Tasa hombres	--	--	--	--	88,4	86,0	84,5	89,3	85,8	83,8	80,6
	Emakumeen tasa / Tasa mujeres	--	--	--	--	77,1	75,0	68,1	77,4	71,5	70,4	66,4
	G/E ratioa / Ratio H/M	--	--	--	--	1,1	1,1	1,2	1,2	1,2	1,2	1,2
	Emakume kontsumitzaileen %-a % mujeres consumidoras	--	--	--	--	46,7	46,7	44,9	46,5	45,6	45,7	45,3
Tabakoa Tabaco	Gizonen tasa / Tasa hombres	--	--	--	--	--	--	--	--	42,0	39,7	33,3
	Emakumeen tasa / Tasa mujeres	--	--	--	--	--	--	--	--	34,4	32,6	29,1
	G/E ratioa / Ratio H/M	--	--	--	--	--	--	--	--	1,2	1,2	1,1
	Emakume kontsumitzaileen %-a % mujeres consumidoras	--	--	--	--	--	--	--	--	45,1	45,1	45,3
Kanabisa Cannabis	Gizonen tasa / Tasa hombres	9,1	8,5	7,4	--	11,2	15,4	16,7	17,5	16,5	13,5	8,8
	Emakumeen tasa / Tasa mujeres	3,9	2,5	2,4	--	5,6	9,1	7,4	10,4	7,6	7,3	3,7
	G/E ratioa / Ratio H/M	2,3	3,5	3,1	--	2,0	1,7	2,3	1,7	2,2	1,8	2,4
	Emakume kontsumitzaileen %-a % mujeres consumidoras	30,7	22,2	25,0	--	33,7	37,3	31,0	37,3	31,5	35,2	32,9
Legez kanpoko drogak ilegales	Gizonen tasa / Tasa hombres	3,2	2,7	1,9	--	4,1	4,7	6,4	6,2	6,2	3,3	2,2
	Emakumeen tasa / Tasa mujeres	,8	,1	,4	--	1,7	2,1	2,5	2,6	1,3	1,2	0,4
	G/E ratioa / Ratio H/M	3,9	19,2	4,5	--	2,4	2,3	2,6	2,4	4,6	2,7	5,2
	Emakume kontsumitzaileen %-a % mujeres consumidoras	20,6	5,3	20,0	--	29,8	30,8	28,1	29,3	18,0	27,0	21,1
Psikofarmakoak Psico-fármacos	Gizonen tasa / Tasa hombres	--	--	--	--	--	--	--	10,8	10,3	9,2	7,3
	Emakumeen tasa / Tasa mujeres	--	--	--	--	--	--	--	20,8	19,0	16,0	16,6
	G/E ratioa / Ratio H/M	--	--	--	--	--	--	--	1,9	1,8	1,7	2,3
	Emakume kontsumitzaileen %-a % mujeres consumidoras	--	--	--	--	--	--	--	65,8	64,9	63,5	67,4

Gauza bera esan dezakegu legez kanpoko gainerako drogei buruz: azkenaldiko kontsumo-tasek oso antzeko beharakada izan dute gizonetan zein emakumeetan, eta 2012an izan den emakume kontsumitzaileen ehuneko txikia (% 21) aldi osoaren batez bestekoaren oso antzekoa da (% 23); hortaz, legez

Lo mismo cabe decir del resto de las drogas ilegales: las tasas de consumo reciente caen de forma muy similar tanto para hombres como para mujeres y el bajo porcentaje de mujeres consumidoras que se registra en 2012 (21%) es muy similar al promedio de todo el periodo (23%), con lo que puede decirse que



kanpoko drogen azkenaldiko kontsumoa, oraindik ere, funtsean gizonen ohitura bat dela esan dezakegu. Psikofarmakoen kontsumoan ere ez da aldaketa nabarmenik izan; hala, hiru kontsumitzailetatik bi emakumeak dira, azken urteetan bezalaxe.

#### 4.2.3. Ohiko edo maizko kontsumoak

Aurreko atalean ikusi dugu gizonen, substantzia guztietan (psikofarmakoetan izan ezik) emakumeek baino kontsumo esperimental edo azkenaldiko kontsumo handiagoa izaten dutela; halaber, jakin dugu aldeak txikiagoak direla legezko drogetan legez kanpokoetan baino, eta, kontsumo esperimentalen kasuan gutxienez, legezko drogen kasuan aldeak egonkor mantendu direla denboran; legez kanpoko kasuan, berriz, elkartzeko nolabaiteko prozesu bat gertatu da 1990eko hamarkadan, baina ez da gero, oro har, mantendu; horrenbestez, oraindik oso alde handiak daude gizon eta emakumeen artean substantzien kontsumoari dagokionez. Genero-ikuspegitik drogen kontsumoaren azterketan are gehiago aurreratzeko, jarraian gizonen eta emakumeen arteko aldeak aztertuko ditugu substantzia guztien maizko edo ohiko kontsumoei dagokienez.

Hurrengo taulan 2012ko maizko edo ohiko kontsumoei buruzko datuak daude; bertan ikusiko dugunez, emakumeen kontsumo-tasak askoz txikiagoak dira gizonenak baino, psikofarmakoetan, berriro ere, izan ezik. Hala, ratioak tabakoaren ohiko kontsumoaren 1,2ren eta kanabisaren bestelako legez kanpoko drogen oraingo kontsumoaren 5,6aren artean daude. Kontsumo esperimentaletan eta azkenaldikoetan gertatu den moduan, alde txikiak legezko substantzien kontsumoan daude (tabakoa, jokoa, alkohola), eta handienak, aldiz, legez kanpoko drogetan. Alkoholaren kasuan, berriz, zenbat eta kontsumo sarriago, orduan eta alde handiagoak daude: ia asteburu guztietako kontsumoan gizonak/emakumeak ratioa 1,8koa da, eta alkoholaren eguneroko kontsumoan, berriz, 2,4koa.

el consumo reciente de drogas ilegales sigue siendo un hábito eminentemente masculino. Tampoco hay cambios apreciables en el caso del consumo de psicofármacos, en cuyo caso dos de cada tres consumidores son, como en los últimos años, mujeres.

#### 4.2.3. Los consumos frecuentes o habituales

En el punto anterior ha podido observarse que los hombres tienden a haber realizado consumos experimentales o recientes de todas las sustancias analizadas, salvo los psicofármacos, en mayor medida que las mujeres; que las diferencias son menores en el caso de las drogas legales que en el de las ilegales; y que, al menos en el caso de los consumos experimentales, mientras en el caso de las drogas legales las diferencias se han mantenido estables a lo largo del tiempo, en el de las ilegales se produjo a mediados de los años 90 un cierto proceso de convergencia que después, en líneas generales, no se ha mantenido, persistiendo por tanto diferencias aún muy importantes entre hombres y mujeres en lo que se refiere al consumo de las diferentes sustancias. Para avanzar un paso más en el análisis del consumo de drogas desde la perspectiva del género, se explorarán a continuación las diferencias entre hombres y mujeres en lo que se refiere a los consumos frecuentes o habituales de las diferentes sustancias.

La tabla siguiente, con datos relativos a los consumos frecuentes o habituales en 2012, pone de manifiesto tasas de consumo femenino mucho menores que en el caso de los hombres, salvo nuevamente en el caso de los psicofármacos, con ratios que oscilan entre el 1,2 del consumo habitual de tabaco y el 5,6 del consumo actual de drogas ilegales distintas del cannabis. Como ocurría con los consumos experimentales y recientes, las diferencias más pequeñas se dan en los consumos de sustancias legales (tabaco, juego, alcohol) y las mayores en el caso de las drogas ilegales. También cabe señalar que en el caso del alcohol las diferencias son mayores cuanto más frecuente es el consumo: si en el caso del consumo casi todos los fines de semana la ratio hombres/mujeres es de 1,8 en el caso del consumo diario de alcohol la relación es de un 2,4.

93. taula / Tabla 93

**Maizko edo ohiko kontsumoa egiten duten pertsonen ehunekoak talde bakoitzeko biztanleria osoarekiko eta sexuaren arabera. 2012**

**Porcentaje de personas que realizan diversos consumos frecuentes o habituales por sexo en relación al conjunto de la población de cada grupo. 2012**

	<b>Gizonak Hombres</b>	<b>Emakumeak Mujeres</b>	<b>Ratioa Ratio</b>	<b>G/E ratioa Ratio h/m</b>
Kontsumoa asteburu gehienetan Consumo la mayoría de los fines de semana	23,2	13,2	18,1	1,8
Alkoholaren eguneroko kontsumoa Consumo diario de alcohol	17,3	7,1	12,2	2,4
Egungo tabako-kontsumoa Consumo actual de tabaco	31,9	26,7	29,3	1,2
Kanabisa gutxienez astero kontsumitzea azken urtean Consumo al menos semanal de cannabis en el último año	4,0	1,5	2,8	2,6
Legez kanpoko beste drogaren baten egungo kontsumoa (kanabisa gabe) Consumo actual de otra droga ilegal (sin cannabis)	1,2	0,2	0,7	5,6
Medikuaren errezetarekin edo gabeko psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa Consumo reciente de psicofármaco con o sin receta	7,3	16,6	12,0	0,4
Apustu edo ausazko jokoak astero gutxienez Juegos de apuestas o azar al menos semanalmente	26,1	18,7	22,4	1,4

Generoaren ikuspegitik, berriro ere, psikofarmakoen kontsumoa nabarmendu beharra dago. Batetik, azkenaldiko kontsumo-tasa askoz handiagoa da emakumeentzat (gizonenaren bikoitza) eta, bestetik, maizko kontsumoaren bigarren substantzia da bolumenari dagokionez, tabakoak baino ez baitu bolumen handiagorik.

Hurrengo taulan adierazitako kontsumo bakoitza 2012an egin duten pertsonen banaketa ageri da sexuaren arabera. Psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoaren kasuan baino ez dira emakumeak gehiengo kontsumitzaileen artean (10etik 7). Gainerako kasuetan gizonak dira beti gehiengo, baina alde oso argiak daude: gizonak dira ohiko erretzaileen % 54,7; atean behin gutxienez diruarekin jokatzeko dutenen % 58,1 eta asteburu gehienetan edaten dutenen % 63,7. Kanabisaren astean behingo kontsumoari dagokionez, gizonak hamarretik zazpi dira, eta ia % 85 dira legez kanpoko drogen oraingo kontsumoari dagokionez.

Nuevamente merece la pena destacar, desde el punto de vista del género, el consumo de psicofármacos. Por una parte, se observa una tasa de consumo reciente mucho mayor para las mujeres, que dobla a la de los hombres y, por otra, cabe destacar el hecho de que sea la segunda sustancia por volumen de consumo frecuente, por debajo sólo del tabaco.

La siguiente tabla recoge, para 2012, la distribución por sexo del conjunto de personas que realizan cada uno de los consumos señalados. Sólo en el caso del consumo reciente de psicofármacos la mayor parte de las personas consumidoras son mujeres (7 de cada 10). En el resto de los casos los hombres son siempre mayoritarios, si bien con diferencias muy claras: son hombres el 54,7% de los fumadores habituales, el 58,1% de quienes juegan con dinero al menos una vez a la semana y el 63,7% de quienes beben la mayoría de fines de semana; en el caso del consumo semanal de cannabis los hombres son siete de cada diez y en el caso del consumo actual de drogas ilegales casi alcanzan el 85%.

## 94. taula / Tabla 94

**Maizko edo ohiko hainbat kontsumo egiten dituzten 15-74 urte bitarteko biztanleen banaketa sexuaren arabera. 2012****Distribución por sexo de la población de 15 a 74 años que realiza diversos consumos frecuentes o habituales. 2012**

	<b>Gizonak Hombres</b>	<b>Emakumeak Mujeres</b>	<b>Guztira Total</b>
Alkoholaren kontsumoa asteburu gehienetan Consumo de alcohol la mayoría de los fines de semana	63,7	36,3	100,0
Alkoholaren eguneroko kontsumoa Consumo diario de alcohol	70,8	29,2	100,0
Egungo tabako-kontsumoa Consumo actual de tabaco	54,4	45,6	100,0
Kanabisa gutxienez astero kontsumitzea azken urtean Consumo al menos semanal de cannabis en el último año	72,2	27,8	100,0
Legez kanpoko beste drogaren baten egungo kontsumoa (kanabisa gabe) Consumo actual de otra droga ilegal (sin cannabis)	84,7	15,3	100,0
Medikuaren errezetarekin edo gabeko psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa Consumo reciente de psicofármaco con o sin receta	30,5	69,5	100,0
Apustu edo ausazko jokoak astero gutxienez Juegos de apuestas o azar al menos semanalmente	58,1	41,9	100,0
Guztira / Total	49,9	50,1	100,0

Jarraian, maizko edo ohiko kontsumo horien prebalentziak gizonen eta emakumeen kasuan zer bilakaera izan duen aztertuko dugu. Alkoholaren asteburuetakoa maizko kontsumoari dagokionez (asteburu gehienetan edaten duten pertsonak), bilakeararen datuek agerian uzten dute kontsumo-tasak nabarmen handitu direla 2000 eta 2006 bitartean, hala gizonetan nola, oso bereziki, emakumeetan. Urte horretatik aurrera gizonen tasak egonkortu dira, eta emakumeen artean, berriz, kontsumo hori nabarmen murriztu da.

<sup>1</sup> Konfiantza-bitarteetan 1 balioa beheko eta goiko tarteen artean dagoenean, horrek esan nahi du ziurgabetasuna dagoela loturaren adierazgarritasunari dagokionez, eta izan litezkeen emaitzetako bat da 1, taldeen artean ezberdintasun adierazgarriak ez dagoela adierazten duena.

<sup>2</sup> Khi karratua frogaren emaitzak  $p < 0,05$ erako (●) Aldagaien artean ikusitako ezberdintasunak estatistikoki adierazgarriak direla adierazten du. (○) Lotura adierazgarriak ez dagoela adierazten du.

+ 1,25en gainetik edo 0,80ren azpitik dauden balioek eragin handia dutela jotzen da, bai maila enpirikoan bai maila teorikoan.

<sup>1</sup> Aquellos intervalos de confianza en los que el valor 1 se sitúa entre la horquilla inferior y superior indican que existe incertidumbre en cuanto a la significatividad de esa relación en tanto que el 1 sería uno de los resultados posibles, que indica que no existen diferencias significativas entre los grupos.

<sup>2</sup> Resultados de la prueba Chi-Cuadrado para  $p < 0,05$ : (●) Indica que las diferencias observadas entre las variables son estadísticamente significativas. (○) Expresa que no hay relación significativa.

+ Se considera que valores por encima de 1,25 ó por debajo de 0,80 representan un efecto importante tanto a nivel empírico como teórico



**5. EAE-KO DROGA KONTSUMOARI BURUZKO  
BALDINTZA ZAILE SOZIOEKONOMIKOAK,  
ETA HEZKUNTZAKO ETA OSASUNEKO  
BALDINTZATZAILEAK**

---

**5. DETERMINANTES SOCIOECONÓMICOS,  
EDUCATIVOS Y DE SALUD RESPECTO AL  
CONSUMO DE DROGAS EN LA CAPV**



## 5. EAE-KO DROGA KONTSUMOARI BURUZKO BALDINTZATZAILE SOZIOEKONOMIKOAK, HEZKUNTZAKOAK ETA OSASUNEKOAK

### 5.1. Sarrera

Kapitulu honetan azterlanean zehaztutako kontsumo motak eta jarraitzeko eta uzteko ereduak aztertuko ditugu biztanleen egoera sozioekonomikoaren, hezkuntza-mailaren eta osasun-egoeraren arabera ikusitako ezberdintasunak oinarri hartuta. Aurreko bi kapituluetan egin dugun moduan, lehenik, azterketa deskriptibo bat egingo dugu, lortutako maiztasunen behaketan oinarriturik batez ere. Aldi berean, analisi horrekin batera, aldagaien artean lotura estatistikoko adierazgarriak hauteman ditugun kasuetan, azalpen-azterketa bat ere egingo dugu khi-karratu froga eta aukera-arrazoien kalkulu erabiliz.

Bestetik, nabarmendu beharra dago galdetutako pertsonen estatus ekonomikoa biltzeko modua 2012an aldatu zela, ondorioz ez dago taldeen portaerari buruzko bilakaera-daturik.

### 5.2. Ezberdintasun sozioekonomikoen eragina droga-kontsumoetan eta mendetasunekin lotutako portaera problematikoetan

#### 5.2.1. Kontsumo esperimentalak eta kontsumitzen hasteko adina

Hurrengo taulan ikusiko dugunez, goi-mailako talde sozioekonomiko bateko pertsonak legezko eta legez

## 5. DETERMINANTES SOCIOECONÓMICOS, EDUCATIVOS Y DE SALUD RESPECTO AL CONSUMO DE DROGAS EN LA CAPV

### 5.1. Introducción

En este capítulo se abordan los diferentes tipos de consumo y pautas de continuidad y abandono, que han sido definidas en este estudio, en función de las diferencias observadas en base a la situación socioeconómica, el nivel de educación y el estado de salud de la población. Al igual que en los dos capítulos precedentes, en primer lugar, se ha realizado un análisis descriptivo basado fundamentalmente en la observación de las frecuencias obtenidas. A su vez, este análisis ha sido complementado con otro explicativo a partir de la utilización de la prueba del Chi-cuadrado y del cálculo de las Odds Ratio en aquellos casos en los que se han detectado relaciones estadísticamente significativas entre las variables.

Cabe señalar, por otra parte, que, al haber variado la forma en la que en 2012 se recoge el estatus socioeconómico de las personas consultadas, no se dispone de datos evolutivos sobre el comportamiento de los diferentes grupos.

### 5.2. El impacto de las diferencias socioeconómicas en los consumos de drogas y en los comportamientos problemáticos relacionados con las adicciones

#### 5.2.1. Los consumos experimentales y la edad de inicio

En general, como se observa en la tabla siguiente, las personas pertenecientes a un grupo socioeco-

kanpoko drogen kontsumo esperimantal handixea-  
goak izaten dituzte, oro har, gainerako bi taldeek  
baino. Psikofarmakoei dagokienez, alde oso txikiak  
daude hiru taldeen artean baina, edozelan ere, era-  
bilera esperimentalaren prebalentzia handiagoa da  
talde sozioekonomiko baxuenean daudenen artean,  
baina ez erdi-mailako taldearen aldean. Apustu edo  
ausazko jokoen praktikari dagokionez, azken urtean  
behin gutxienez parte hartzeko tasak nabarmen  
txikiagoak dira erdi-mailako taldean dauden per-  
sonenak baino, eta goi-mailako taldean daudenen  
tasen oso antzekoak. Nolanahi ere, alkoholaren eta  
kanabisaren kasuan baino ezin da joera argi batez  
hitz egin; hots, zenbat eta talde sozioekonomiko  
handiagoa izan, orduan eta handiagoak dira kon-  
sumo esperimantaleko tasak.

nómico alto tienden a registrar consumos experi-  
mentales de drogas legales e ilegales algo más altos  
que los otros dos grupos. En el caso de los psico-  
fármacos, las diferencias son mínimas entre los tres  
grupos pero, en todo caso, la prevalencia del uso  
experimental es más elevada que entre quienes se  
sitúan en el grupo socioeconómico bajo, aunque  
no en relación al grupo medio. En lo que se refiere  
a la práctica de los juegos de apuestas o azar, sus  
tasas de participación al menos una vez a lo largo  
del último año son sensiblemente más bajas que las  
que corresponden a las personas agrupadas en el  
grupo medio y muy similares a las correspondientes  
al grupo alto. En todo caso, debe señalarse que sólo  
en el caso del alcohol y del cannabis cabe hablar de  
una tendencia clara, en el sentido de que cuanto  
más alto el grupo socioeconómico, más elevadas  
son las tasas de consumo experimental.

## 104. taula / Tabla 104

**Hainbat substantziaren kontsumo esperimentalaren tasak talde sozioekonomikoaren arabera. 2012****Tasas de consumo experimental de diversas sustancias por grupo socioeconómico. 2012**

	I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)	Guztira Total
Alkohola / Alcohol	92,4	88,1	84,1	86,9
Tabakoa / Tabaco	53,0	47,0	51,5	54,4
Kanabisa / Cannabis	32,5	28,3	26,4	28,3
Legez kanpoko besteren bat / Alguna otra ilegal	9,5	7,9	8,4	8,6
Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe Psicofármaco con o sin receta	22,0	22,9	20,6	21,1
Apustu edo ausazko jokoak* Juegos de apuestas o azar*	54,7	63,6	55,7	55,9
*Apustu edo ausazko jokoei dagokienez azken 12 hilabeteetako kontsumoa aipatzen da, baina gainerako substantzietan bizitzan noizbait. *A diferencia del resto de sustancias en las que el consumo se refiere a alguna vez en la vida, en el caso de la práctica de los juegos de apuestas o azar la tasa se corresponde con los últimos 12 meses.				

Aztertutako substantziekin izandako lehen harre-  
manari dagokionez, kontsumitzen hasteko batez  
besteko adina handixea da I. eta II. talde  
sozioekonomikoetako pertsonen artean, gutxienez  
legez kanpoko drogei dagokienez; halere, aldeak  
oso txikiak dira ia kasu guztietan.

En lo que se refiere a la toma del primer contacto  
con las sustancias analizadas, la edad media de inicio  
en el consumo tiende a ser algo más elevada entre  
las personas de los grupos socioeconómicos I y II,  
al menos en lo que se refiere a las drogas ilegales,  
si bien, en casi todos los casos, las diferencias son  
muy pequeñas.

105. taula / Tabla 105

**Hainbat substantzia kontsumitzen hasteko batez besteko adina talde sozioekonomikoaren arabera. 2012**

**Edad media de inicio en el consumo de diversas sustancias por grupo socioeconómico. 2012**

	I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)	Guztira Total
Alkohola / Alcohol	16,4	16,3	16,5	16,5
Tabakoa / Tabaco	17,2	17,3	16,9	17,0
Kanabisa / Cannabis	19,8	17,9	18,0	18,6
Legez kanpoko besteren bat / alguna otra ilegal	21,1	18,8	19,4	19,9
Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe Psicofármaco con o sin receta	38,8	38,6	38,1	38,3

Hasteko batez besteko adina aztertu beharrean adin goiz samarrean –15 urte baino lehen legezko drogetan eta kanabisean; 18 baino lehenago legez kanpoko gainerako drogetan; eta 25 baino lehenago psikofarmakoen kontsumoan– kontsumitzen hasi diren pertsonen proportzioa aztertzen badugu, ordea, ikusiko dugu erdi-mailako talde sozio ekonomikoan daudela kontsumorik goiztiarrenak.

Sin embargo, si en lugar de analizar la edad media de inicio se analiza la proporción de personas que se han iniciado a unas edades relativamente tempranas –antes de los 15 años en el caso de las drogas legales y el cannabis; antes de los 18, en el del resto de drogas ilegales; y, antes de los 25, en el caso del consumo de psicofármacos–, lo que se observa es una cierta tendencia a que sea el grupo socioeconómico medio el que en mayor medida ha realizado consumos precoces.



## 106. taula / Tabla 106

**Hainbat substantzia kontsumitzen 15 urte baino lehenago\* hasitako pertsonen ehunekoa substantziak noizbait probatu dituzten pertsonekin lotuta, talde sozioekonomikoaren arabera. 2012**  
**Porcentaje de personas iniciadas antes de los 15 años\* en el consumo de diversas sustancias en relación a todas las personas que han probado alguna vez cada sustancia, por grupo socioeconómico. 2012**

	I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)	Guztira Total
Alkohola / Alcohol	17,3	22,2	17,8	18,2
Tabakoa / Tabaco	16,9	22,3	19,8	19,2
Kanabisa / Cannabis	11,0	18,6	13,8	13,5
Legez kanpoko besteren bat / Alguna otra ilegal	25,3	34,8	27,0	27,0
Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe Psicofármaco con o sin receta	15,3	18,3	14,6	15,3

\* Alkohol, tabako eta kanabisean proportzioek, kontsumitzen hasi diren pertsona guztietatik, 15 urte baino lehenago hasi direnen pisu erlatiboa islatzen dute; legez kanpoko gainerako drogetan, berriz, 18 urte baino lehenago kontsumitzen hasi direnen ehunekoa hartu dugu eta, psikofarmakoetan, azkenik, kontsumitzen 25 urte baino lehenago hasi diren pertsonena.

\* Para el alcohol, el tabaco y el cannabis las proporciones reflejan entre todas aquellas personas que se han iniciado en su consumo, el peso relativo de aquellas cuya edad de inicio ha sido menor a 15 años; en el caso del resto de drogas ilegales se ha cogido el porcentaje de quienes se han iniciado antes de los 18 años y, en el de los psicofármacos, el de aquellas cuya edad de inicio ha sido inferior a 25 años.

## 5.2.2. Ohiko edo maizko kontsumoak

Sarrerako kapituluan adierazi dugun moduan, kontsumo esperimentalek oso balio erlatiboa dute drogei eta mendetasunei buruzko azterketa epidemiologikoen esparruan; izan ere, oso kontsumo berriak eta intentsuak zein hasierako eta/edo oso aspaldiko batzuk bil baititzakete. Aztertutako substantzia edo ohiturekin izandako lehen harreman bat gutxienez izan dela erakusten dute horrelakoek, baina ez dago zehazterik alderik dagoen ohiko kontsumoei, intentsuei edo problematikoei dagokienez. Horrenbestez, kontsumo esperimental horiekin batera, ohiko edo maizkotzat har daitezkeenak ere aztertu behar dira, azken horiek substantzia haiekiko ohiko harreman bat iradokitzen baitute, baina ez ezinbestean problematikoa edo intentsua.

Ohiko kontsumo haiei dagokienez, talde sozioekonomikoen portaera aztertutako substantzia edo ohitura motaren arabera aldatzen da, nonbait:

## 5.2.2. Los consumos frecuentes o habituales

Los consumos experimentales tienen, como se ha señalado en el capítulo introductorio, un valor muy relativo en el ámbito de los estudios epidemiológicos sobre drogas y adicciones, en la medida en que pueden recoger tanto consumos muy recientes e intensos, como consumos apenas iniciales y/o muy antiguos. Muestran ciertamente la existencia de al menos un primer contacto con las diferentes sustancias o hábitos analizados, pero no permiten establecer si hay diferencias en lo que se refiere a los consumos habituales, intensos o problemáticos. Interesa por tanto analizar, junto a esos consumos experimentales, los que pueden considerarse habituales o frecuentes, y que denotan un contacto habitual con esas sustancias, si bien no necesariamente problemático o intenso.

En lo que se refiere a esos consumos habituales, el comportamiento de los diversos grupos socioeconómicos parece variar en función del tipo de sustancia o hábito considerado:

- Alkoholaren kasuan, goi-mailako talde sozioekonomikoek gehiagotan izaten dute ohiko kontsumo bat (dela jaiegun edo asteburu gehiengotan, dela egunero) beste bi taldeek baino; azken bi hauetan, bestalde, ez dago alde handirik.
- Tabakoaren kasuan alderantziz gertatzen da: ohiko kontsumoaren tasak nabarmen handiagoak dira behe-mailako talde sozioekonomikoen artean, eta beste bi taldeen arteko aldeak, berriz, txikiak dira.
- Legez kanpoko drogei dagokienez (kanabisa barne), harreman linealagoa dagoela ematen du: zenbat eta egoera sozioekonomiko handiagoa izan, orduan eta ohiko kontsumo-tasa txikiagoak; hala, talde sozioekonomiko baxuenak dira, bi kasuetan, kontsumo-tasarik handienak dituztenak.
- Psikofarmakoei dagokienez (medikuaren errezetarekin edo errezetarik gabe erabilia), aldeak txikiak dira, eta, nolana ere, ez adierazgarriak.
- Apustu edo ausazko jokoetan astean behin gutxienez aritzearen kasuan, erdiko talde sozioekonomikoak du prebalentziarik handiena, eta goi-mailako taldeen barruan dauden pertsonak, berriz, ohitura mota hori gutxien dutenak; orobat, oso alde handia dago beste bi taldeen aldean.
- en el caso del alcohol, los grupos socioeconómicos altos tienden a consumir de forma habitual (ya sea la mayoría de festivos o fines de semana, ya sea a diario) con bastante más frecuencia que los otros dos grupos, entre los cuales no hay por otra parte grandes diferencias;
- en el caso del tabaco ocurre al contrario: las tasas de consumo habitual son significativamente más elevadas entre los grupos socioeconómicos bajos, mientras las diferencias entre los otros dos grupos son pequeñas.
- En el caso de las drogas ilegales, incluyendo el cannabis, la relación parece ser más lineal: cuanto mejor es la posición socioeconómica, menores son las tasas de consumo habitual, siendo los grupos socioeconómicos más bajos aquellos que, en ambos casos, registran tasas de consumos más elevadas.
- En lo que respecta a los psicofármacos, usados con receta o sin receta médica, las diferencias son pequeñas y, en cualquier caso, no significativas.
- En el caso de la práctica al menos semanal de los juegos de apuestas o azar, es el grupo socioeconómico medio el que registra una prevalencia más alta de participación, y son sin duda las personas que se agrupan dentro de los grupos altos las que en menor medida mantienen este tipo de hábito, con una diferencia muy importante en relación a los otros dos grupos.

## 107. taula / Tabla 107

**Hainbat substantziaren maizko edo ohiko kontsumo-tasak talde sozioekonomikoaren arabera. 2012****Tasas de consumos frecuentes o habituales de diversas sustancias por grupo socioeconómico. 2012**

	<b>I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)</b>	<b>III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)</b>	<b>IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)</b>	<b>Guztira Total</b>
Kontsumoa asteburu gehienetan Consumo la mayoría de los fines de semana	21,2	18,6	16,5	18,1
Alkoholaren eguneroko kontsumoa Consumo diario de alcohol	15,8	10,4	10,8	12,2
Ohiko tabako-kontsumoa Consumo habitual de tabaco	21,1	20,7	28,8	25,7
Kanabisa gutxienez astero kontsumitzea azken urtean Consumo al menos semanal de cannabis en el último año	1,9	2,3	3,2	2,8
Legez kanpoko beste drogaren baten egungo kontsumoa (kanabisa gabe) Consumo actual de otra droga ilegal (sin cannabis)	0,2	0,6	1,0	0,7
Medikuaren errezetarekin edo gabeko psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa Consumo reciente de psicofármaco con o sin receta	11,2	12,2	12,5	12,0
Apustu edo ausazko jokoak astero gutxienez Juegos de apuestas o azar al menos semanalmente	16,5	27,3	24,6	22,4

Taula honetan, biztanleria osoaren gainean, talde bakoitzetik adierazitako kontsumo horiek egiten ez dituztenen alderantzizko ehunekoa dago jasota (hau da, alkohola sekula probatu ez duten edo gaur egun beren burua abstemiotzat jotzen dutenak; erretzen ez dutenak, aurretik erre arren; azken 12 hilabeteetan kanabisa kontsumitu ez dutenak, eta aldi berean apustu edo ausazko ezein jokotan aritu ez direnak).

La tabla siguiente recoge, a la inversa, el porcentaje sobre la población total de cada grupo que no realiza los consumos señalados (es decir, las personas que o nunca ha probado el alcohol o se declaran abstemias en la actualidad; las que no fuman, aunque hayan fumado anteriormente; las que no han consumido cannabis en los últimos 12 meses; y las que no han jugado a ningún juego de apuestas o azar en el mismo período).

108. taula / Tabla 108

**Hainbat substantziaren ohiko kontsumorik egiten ez duten pertsonen ehunekoa talde sozioekonomikoaren arabera. 2012**  
**Porcentaje de personas que no realizan consumos habituales de diversas sustancias por grupo socioeconómico. 2012**

	<b>I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)</b>	<b>III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)</b>	<b>IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)</b>	<b>Guztira Total</b>
Ez dute alkoholik probatu/ abstemioak No han probado el alcohol/abstemias	16,5	23,0	28,7	24,4
Ez dute erretzen / No fuman	72,7	73,6	66,2	68,8
Ez dute kanabisa kontsumitu azken urtean No han consumido cannabis en el último año	94,6	95,1	93,3	93,7
Ez dute jokatu azken urtean No han jugado en el último año	45,3	36,4	44,1	44,0

Bigarren taularen datuak oso antzekoak dira. Alkoholaren kasuan, abstemio kopuru txikiena goi-mailako talde sozioekonomikoaren artean dago; hala, handitzeko joera ere ikus daiteke talde sozioekonomikoa apaldu ahala. Kanabisari eta, funtsean, tabakoari dagokienez, talderik baxuenak dira abstemio-proportzio txikiena dutenak. Azken urteko ausazko jokoen praktikari dagokionez, azkenik, gutxien erdi-mailako taldearenak dira gutxien jokatzen dutenak.

Los datos que ofrece esta segunda tabla son muy similares. En el caso del alcohol, el menor grado de abstinentes se da entre los grupos socioeconómicos altos, observándose, de hecho, una tendencia hacia su aumento en la medida que el grupo socioeconómico resulta menos favorecido. En el caso del cannabis y, fundamentalmente, del tabaco son los grupos más bajos aquellos que tienen una menor proporción de abstinentes. En lo que respecta, por último, a la práctica de los juegos de azar a lo largo del último año, la menor participación se produce entre las personas incluidas dentro del grupo socioeconómico medio.

5.2.3. Kontsumo intentsuak eta problematikoak

Erabilera esperimentalak, baita maizko edo ohiko erabilerak ere, baino gehiago, jakin beharra dago zer-nolako aldeak dauden talde sozioekonomikoaren artean kontsumo intentsuak erakusten dituzten adierazleei dagokienez. Hurrengo taulan hainbat adierazle ageri dira, zeinek, aztertutako substantzia edo ohituretarako, intentsu edo problematikotzat har daitezkeen erabilerak edo kontsumoak bil-tzen dituzten, betiere kontuan harturiko hiru talde sozioekonomikoetan duten prebalentziari jarraiki.

5.2.3. Los consumos intensos y problemáticos

Más allá de los usos experimentales e incluso de los usos frecuentes o habituales, interesa saber en qué medida existen diferencias entre los diversos grupos socioeconómicos en lo que se refiere a los indicadores que denotan consumos intensos. La tabla siguiente agrupa los diversos indicadores que, para las diferentes sustancias o hábitos analizados, recogen usos o consumos que pueden considerarse intensos o problemáticos, de acuerdo a su prevalencia en cada uno de los tres grupos socioeconómicos considerados.

109. taula / Tabla 109

**Hainbat substantziaren kontsumo intentsu edo problematikoaren tasak talde sozioekonomikoaren arabera. 2012**
**Tasas de consumos intensos o problemáticos de diversas sustancias por grupo socioeconómico. 2012**

	I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)	Guztira Total
Alkoholaren gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa lanegunetan Consumo excesivo o de riesgo de alcohol días laborables	1,0	2,9	3,0	2,4
Alkoholaren gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa asteburuetan Consumo excesivo o de riesgo de alcohol fines de semana	10,4	12,5	11,5	11,4
Alkoholismo-susmoa (CAGE testa) Sospecha de alcoholismo (test CAGE)	3,4	2,4	3,6	3,5
12 mozkorraldi baino gehiago azken urtean Más de 12 borracheras en el último año	2,8	2,4	1,8	2,2
Drogen kontsumoarekin loturiko hiru arazo edo gehiago* Tres o más problemas asociados consumo drogas*	18,5	18,4	16,3	17,7
Kaleko alkohol-kontsumoa aste guztietan edo ia guztietan* Consumo alcohol en la calle todas/ casi todas las semanas*	4,6	7,7	4,6	5,1
20 zigarro baino gehiagoko eguneko kontsumoa Consumo diario de más de 20 cigarrillos	1,7	0,5	1,8	1,6
Kanabisaren eguneroko kontsumoa azken hilean Consumo diario de cannabis en el último mes	1,5	2,0	1,7	1,7
Drogen polikontsumoa Policonsumo de drogas	1,6	1,7	2,1	1,9
Medikuaren errezetarik gabeko psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa Consumo reciente de psicofármacos sin receta	1,1	1,5	1,1	1,1
Jokalari aktiboa / Jugador/ activo/a	16,9	27,3	24,8	22,6
Arriskuaren barruko edo gehiegizko jokalaria Jugador/a de riesgo o excesivo/a	2,0	4,5	2,9	2,8
Interneten arriskuaren barruko erabilera edo problematikoa Uso de riesgo o problemático de internet	3,7	1,9	2,8	3,0

\* Proporzio horiek gazteei bakarrik dagozkie, 15-34 urte bitarteko pertsonen egindako galderetan oinarrituta ateratako adierazleak baitira.

\* Las proporciones se refieren exclusivamente a personas jóvenes, dado que se trata de indicadores extraídos a partir de preguntas formuladas a personas con edades comprendidas entre los 15 y los 34 años.


Aurreko taulatik atera daitekeen lehen ondorioa hau da: aztertutako adierazle kopuru handi batean, erabilera intentsu edo problematikoen prebalentziarik handiena erdiko eta behe-mailako talde sozioekonomikoetako pertsonen artean izaten da. IV. eta V. taldeei dagokienez, joera hori aztertutako hamahiru adierazletik bostetan ikusten da (gehiagizko edo arriskuaren barruko kontsumoa lanegunetan, alkoholismo-susmoa, egunean 20 zigarro baino gehiago erretzea, egunero kanabisa kontsumitzea eta polikontsumoa). Bost adierazletan ere baditu tasa handiagoak III. taldeak beste bi taldeek baino. Kasu honetan hauexek dira: as-teburuetako gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa, alkoholaren kaleko kontsumoa ia as-tero, psikofarmakoen azkenaldiko eta errezetarik gabeko kontsumoa, joko aktiboa azken urtean eta arriskuaren barruko edo gehiegizko jokia. Nolanahi ere, Interneten erabilera problematikoari eta, neurri txikiagoan, urtean 12 mozkorraldi edo gehiago izateari edo alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin lotutako hiru arazo edo gehiago nozitzeari dagokienez, kontsumo-tasak handiagoak dira I. eta II. taldeetako pertsonen artean. Azkenik, lotura bat dago, itxuraz, kanabisaren eguneko kontsumo eta polikontsumoaren eta nolabaiteko gizar-te-desabantaila baten artean, tasak handitzen baitira aztertutako talde sozioekonomikoa apaldu ahala.

Nolanahi ere, nabarmendu beharreko daturik garrantzitsuena da ez dagoela eredu komun bat, antza denez, ezberdintasun sozioekonomikoen ikuspegitik kontsumo intentsu edo problematikoe-tan dauden aldeak azaltzeko: horrela bada, kasu bakar batean handitzen da aztertutako arriskuaren barruko portaeraren prebalentzia –urtean hamabi mozkorraldi baino gehiago– talde sozioekonomikoaren maila handitu ahala.


La primera conclusión que cabe extraer de la tabla anterior es que, en una muy buena parte de los indicadores analizados, la mayor prevalencia de usos intensos o problemáticos se da entre las personas pertenecientes a los grupos socioeconómicos medios y bajos. En el caso de los grupos IV y V esta tendencia se observa en cinco de los trece indicadores analizados (consumo excesivo o de riesgo en días laborables, sospecha de alcoholismo, consumo diario de más de 20 cigarrillos, consumo diario de cannabis y policonsumo). También son cinco los indicadores en los que el grupo III presenta tasas superiores al resto de los otros dos grupos. En este caso se trata del consumo excesivo o de riesgo en fines de semana, consumo de alcohol en la calle prácticamente semanal, consumo reciente y sin receta de psicofármacos, juego activo durante el último año y de juego de riesgo o excesivo. Sin embargo, en lo que se refiere al uso problemático de internet y, en menor medida, a emborracharse 12 o más veces al año o a sufrir tres o más problemas distintos asociados al consumo de alcohol y otras drogas las tasas de consumo son superiores entre las personas integradas en los grupos I y II. Se puede destacar, por último, el hecho de que parece existir alguna asociación gradual entre el consumo diario de cannabis y el policonsumo y cierta desventaja social, ya que estas tasas aumentan a medida que el grupo socioeconómico analizado es más bajo.

En cualquier caso, el dato más importante que cabe destacar es la aparente ausencia de un patrón común que explique las diferencias en los consumos intensos o problemáticos desde la perspectiva de las diferencias socioeconómicas: de hecho sólo en un caso la prevalencia de la conducta de riesgo analizada –más de doce borracheras al año– aumenta a medida que el grupo socioeconómico analizado es más elevado.


## 78. grafikoa / Gráfico 78

**Hainbat substantziaren kontsumo intentsu edo problematikoaren tasak talde sozioekonomikoaren arabera. 2012****Tasas de consumos intensos o problemáticos de diversas sustancias por grupo socioeconómico. 2012**


**Drogen kontsumoarekin loturiko hiru arazo edo gehiago**  
 Tres o más problemas asociados consumo drogas




**Kaleko alkohol-kontsumoa aste guztietan edo ia guztietan**  
 Consumo alcohol en la calle todas/ casi todas las semanas



**20 zigarro baino gehiagoko eguneroko kontsumoa**  
 Consumo diario de más de 20 cigarrillos




**Kanabisaren eguneroko kontsumoa azken hilean**  
 Consumo diario de cannabis en el último mes






**Drogen polikontsumoa**  
Policonsumo de drogas




**Medikuaren errezetarik gabeko psikofarmakoaren azkenaldiko kontsumoa**  
Consumo reciente de psicofármacos sin receta




**Jokalari aktiboa**  
Jugador/ activo/a



**Arriskuaren barruko edo gehiegizko jokalaria**  
Jugador/a de riesgo o excesivo/a



**Interneten arriskuaren barruko erabilera edo problematikoak**  
Uso de riesgo o problemático de internet



#### 5.2.4. Kalteen eta onuren balorazioa eta kontsumoa uztea

I. eta II. taldeko pertsonak, hots, gizartean egoera hobea duten taldeek, antza denez, alkohola edaten jarraitzeko tasa handiagoak dituzte gainerako taldeek baino. Hain zuzen, Egungo Kontsumoko Indizea aztertzen badugu (azken hilean edan duten pertsonen ehunekoa alkohola probatu duten guztien aldean), ikusiko dugu eskala sozioekonomikoan zenbat eta egoera hobea izan, orduan eta handiagoa izango dela indize hori. Talde horretan ere bada txikiagoa alkohol-kontsumoa murriztu edo utzi duten pertsonen proportzioa. Datu horiek bat datoz alde aurretik talde sozioekonomiko horretan ikusi ditugun alkohol-kontsumo handiagoekin.

Takakoari dagokionez, aitzitik, uzteko tasa txikiak IV. eta V. taldeetako pertsonen artean gertatzen dira; halere, goi-mailako talde sozioekonomikoen barruan dago azken urtean erretzeari uzten saiatu diren erretzaileen ehunekorik txikiena.

Legez kanpoko drogen kasuan lotura garbiago bat dago, antza, jarraitutasun-indizeen (Kontsumoko Indizeak) eta talde sozioekonomikoaren artean. Kanabisari dagokionez lotura garbia dago; Azkenaldiko Kontsumoko Indizean (AKI) zein Egungo Kontsumoko Indizean (EKI) jarraitutasuna handitzen da aztertutako talde ekonomikoaren maila apaldu ahala. Legez kanpoko gainerako drogei dagokionez, Egungo Kontsumoko Indizeak (EKI) kanabisaren ildo beretik jarraitzen du, baina Azkenaldiko Kontsumoko Indizeari (AKI) dagokionez, handiagoa da III. taldean gainerakoetan baino.

#### 5.2.4. La valoración de los perjuicios y beneficios y el abandono de los consumos

Las personas de los grupos I y II, es decir, los grupos socialmente más favorecidos, parecen tender a tener tasas de continuidad en el consumo de alcohol algo más elevadas que los otros dos grupos. Efectivamente, si se analiza el índice de continuidad actual (el porcentaje de personas que han bebido en el último mes respecto a todas las que han probado el alcohol) se observa que éste es más elevado cuando mejor es la posición en la escala socioeconómica. También resulta más baja en este grupo la proporción de personas que han reducido o eliminado sus consumos de alcohol. Estos datos coinciden con los consumos de alcohol más elevados que se han observado previamente en este grupo socioeconómico.

En el caso del tabaco, por el contrario, las tasas de abandono más bajas se dan entre las personas de los grupos IV y V, si bien el porcentaje más bajo de personas fumadoras que han intentado dejar de fumar durante el último se registra entre las personas integradas dentro de los grupos socioeconómicos altos.

En el caso de las drogas ilegales parece existir una relación algo más clara entre los índices de continuidad y el grupo socioeconómico. En el caso del cannabis la relación es clara y tanto en el caso del índice de continuidad reciente (ICR) como en el del actual (ICA) la continuidad aumenta a medida que el grupo económico considerado es más bajo. En el caso de las demás drogas ilegales, el índice de consumo actual (ICA) se mueve en el mismo sentido que en el caso del cannabis, mientras que en lo que se refiere al índice de consumo reciente (ICR) es más elevado en el grupo III que en el resto.

110. taula / Tabla 110

**Kontsumoa jarraitzeko eta uzteko adierazleak hainbat substantziari dagokienez talde sozioekonomikoaren arabera. 2012**

**Indicadores de continuidad y abandono en el consumo en relación a diversas sustancias por grupo socioeconómico. 2012**

	<b>I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)</b>	<b>III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)</b>	<b>IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)</b>	<b>Guztira Total</b>
Alkoholaren AKI / ICR alcohol	% 88,6	% 82,5	% 82,6	% 84,5
Alkoholaren EKI / ICA alcohol	% 79,4	% 77,3	% 71,7	% 74,7
Alkoholaren kontsumoa uztea edo murriztea Cese o reducción del consumo de alcohol	% 47,8	% 55,4	% 54,2	% 52,2
Tabakoaren AKI / ICR tabaco	% 51,9	% 49,0	% 61,0	% 57,3
Tabakoaren EKI / ICA tabaco	% 48,0	% 49,0	% 57,3	% 53,9
Tabakoa erretzeari uzteko tasa Tasa de abandono de tabaco	% 48,5	% 48,6	% 39,3	% 42,7
Azken urtean erretzeari uzten saiatu diren erre- tzaileak / Fumadores/as que han intentado de- jarlo en el último año	% 18,7	% 33,9	% 26,5	% 25,1
Kanabisaren AKI / ICR cannabis	% 16,5	% 17,4	% 25,3	% 22,1
Kanabisaren EKI / ICA cannabis	% 9,4	% 10,6	% 18,9	% 15,4
Legez kanpoko beste droga batzuen AKI ICR otras ilegales	% 5,5	% 27,5	% 18,9	% 15,2
Legez kanpoko beste droga batzuen EKI ICA otras ilegales	% 2,0	% 7,7	% 11,7	% 8,2

Talde sozioekonomikoetako pertsonen alkoholaren eta tabakoaren kontsumoak dakartzan kalteei eta onurei buruz emandako balorazioari dagokionez, ez dago alde handirik. Alkoholaren kasuan, berriz, erdiko talde sozioekonomikoak egozten dizkio onura gutxien haren kontsumoari, eta tabakoari dagokionez, aldiz, ikuspegi positiboxeagoa du talde honek kontsumoaren gainean.

En cuanto a la valoración que las personas de los diferentes grupos socioeconómicos refieren acerca de los perjuicios y beneficios que tienen los consumos de alcohol y de tabaco, no puede hablarse de grandes diferencias. En el caso del alcohol es el grupo socioeconómico medio el que en menor medida atribuye beneficios a su consumo, mientras que en el caso del tabaco las principales diferencias se refieren a una visión algo más positiva de su consumo por parte de este grupo.

111. taula / Tabla 111

**Azken hilabeteetan alkohola eta tabakoa kontsumitu dituzten pertsonen banaketa kontsumo bakoitzari egotzitako kalte eta onuren arabera, talde sozioekonomikoaren arabera. 2012**  
**Distribución de las personas que han consumido alcohol y tabaco durante el último mes por atribución de perjuicios y beneficios a cada consumo, grupo socioeconómico. 2012**

Alkohola / Alcohol			Tabakoa / Tabaco		
I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)	I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)
<b>Kalteak bakarrik / Sólo perjuicios</b>					
9,7	7,6	9,4	29,8	37,1	39,5
<b>Kalte gehiago onura baino / Más perjuicios que beneficios</b>					
19,5	21,8	19,3	44,6	42,7	39,6
<b>Kalte adina onura / Tantos perjuicios como beneficios</b>					
40,2	41,3	38,8	16,2	9,9	13,9
<b>Onura gehiago kalte baino / Más beneficios que perjuicios</b>					
16,3	15,1	15,2	2,5	1,7	1,0
<b>Onurak bakarrik / Sólo beneficios</b>					
7,1	3,4	6,8	0,2	4,0	0,2
<b>ED/EE / NS/NC</b>					
7,2	10,7	10,4	6,7	4,6	5,8
<b>Kalteak bakarrik edo kalte gehiago / Sólo perjuicios o más perjuicios</b>					
29,2	29,4	28,7	74,4	79,8	79,1
<b>Onurak bakarrik edo onura gehiago / Sólo beneficios o más beneficios</b>					
23,4	18,5	22,0	2,7	5,7	1,2
<b>Guztira / Total</b>					
100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

### 5.2.5. Arriskua hautematea, politiken balorazioa eta legez kanpoko drogetarako hurbiltasun-maila

Hainbat substantziaren kontsumoari Euskadin egoztitako larritasunari dagokionez, goi-mailako talde sozioekonomikoko pertsonak pertzepzio lasaia goa izaten dute, oro har, kontsumoei leporatutako larritasunaren gainean, batez ere tabakoari dagokionez. Orobat, legez kanpoko drogei dagokienez, dirudienez lotura garbia dago haien larritasunaren pertzepzioaren eta egoera sozialaren artean; horrela bada, talde sozioekonomikoa zenbat eta maila handiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da haien kontsumoa Euskadin nahiko edo oso larria dela uste dutenen ehunekoa.

### 5.2.5. La percepción del riesgo, la valoración de las políticas y el grado de cercanía a las drogas ilegales

En lo que se refiere a la gravedad atribuida al consumo en Euskadi de diferentes sustancias, las personas pertenecientes al grupo socioeconómico alto tienen, en general, una percepción más laxa sobre la gravedad atribuida a los diferentes consumos y, especialmente, en lo tocante al consumo de tabaco. Asimismo, en lo que se refiere a las drogas ilegales, parece existir una relación clara entre percepción de su gravedad y la posición social, de tal forma que cuanto más alto es el grupo socioeconómico más reducido es el porcentaje de quienes consideran que su consumo en Euskadi es bastante o muy grave.

## 112. taula. Hainbat substantziaren kontsumoa Euskadin oso edo nahiko larritzat jotzen duen biztanleriaren ehunekoa talde sozioekonomikoaren arabera. 2012

Tabla 112. Porcentaje de la población que considera muy o bastante grave el consumo de diversas sustancias en Euskadi por grupo socioeconómico. 2012

	I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)	Guztira Total
Alkohola / Alcohol	51,6	53,1	54,2	53,2
Tabakoa / Tabaco	53,9	62,8	58,9	57,8
Kanabisa / Cannabis	56,8	60,8	63,3	61,0
Legez kanpoko drogak / Ilegales	64,5	66,1	70,9	68,5
Jokoa / Juego	49,1	55,8	54,1	52,6

Legez kanpoko drogen eskuragarritasunaren ikuspegitik, antzeko egoera dago substantzia guztietarako: eskuragarritasun-mailarik txikiak erdi-mailako pertsonen artean daude, baina I. eta II. (beheko maila) eta IV. eta V. (goiko maila) taldeetakoek oso antzeko eskuragarritasun-mailak dituzte substantzia horiei dagokienez.

Desde el punto de vista de la accesibilidad de las drogas ilegales, la situación es similar para todas las sustancias: los niveles de accesibilidad más bajos se dan entre las personas de la clase media, mientras que las pertenecientes a los grupos I y II (bajo) y IV y V (alto) registran niveles de accesibilidad a estas sustancias muy similares.

113. taula / Tabla 113

**Legez kanpoko hainbat substantzia 24 orduko epearen barruan eskuratzea erraza edo oso erraza dela uste duten biztanleen ehunekoa talde sozioekonomikoaren arabera. 2012**  
**Porcentaje de la población que considera relativamente fácil o muy fácil acceder a determinadas sustancias ilegales en un plazo de 24 horas por grupo socioeconómico. 2012**

	I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)	Guztira Total
Kanabisa / Cannabis	51,6	53,1	54,2	53,2
Heroina / Heroína	53,9	62,8	58,9	57,8
Kokaina / Cocaína	56,8	60,8	63,3	61,0
LSDa / LSD	64,5	66,1	70,9	68,5
Speeda edo anfetamina / Speed	49,1	55,8	54,1	52,6
Estasia eta beste diseinu-droga batzuk Éxtasis u otras drogas de diseño	32,1	29,5	30,0	30,5

Ez dirudi, bestalde, lotura garbirik dagoenik egoera sozioekonomikoaren eta legez kanpoko drogekiko hurbiltasun-mailaren artean. Legez kanpoko drogen kontsumoaren munduan tartean sartuta dauden pertsonen ehunekoa nahiko antzekoa da hiru taldeetan; zerikusirik ez duten pertsonen proportzioa, baina, handixeagoa da talde sozioekonomikorik apalenaren barruan eta, erdiko talde sozioekonomikoaren barruan, berriz, gehixeago dira hurbilekotzat hartutako pertsonak.

No parece, por otra parte, que exista una relación clara entre la situación socioeconómica y el grado de cercanía en relación a las drogas ilegales. El porcentaje de personas implicadas en los consumos de drogas ilegales es relativamente similar en los tres grupos, mientras que dentro del grupo socioeconómico bajo la proporción de personas ajenas es algo más elevada y, entre las del grupo socioeconómico medio, algo mayor el de las clasificadas como cercanas.

114. taula / Tabla 114

**Biztanleriaren banaketa drogen kontsumoarekiko hurbiltasunari dagokionez talde sozioekonomikoaren arabera. 2012**  
**Distribución de la población en relación a la cercanía a los consumos de drogas por grupo socioeconómico. 2012**

	I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)	Guztira Total
Ez dute zerikusirik / Ajenas	48,9	47,6	54,1	51,7
Hurbilekoak / Cercanas	16,3	21,7	17,6	17,8
Tartean sartuta daudenak / Implicadas	20,9	22,5	21,2	21,2
Bestelako egoerak / Otras situaciones	13,9	8,2	7,2	9,4

Azkenik, alde adierazgarriker ere ez dago droga-mendetasunen arloko jardun-politiken aurrean duten jarrerari dagokionez. Planteatutako neurrien aurrean ez dute hain aldeko jarrerarik behe-mailako taldekoek, baina aldeak, edozelan ere, oso txikiak dira.

Por último, tampoco se observan diferencias significativas en lo que se refiere a la posición frente a las políticas de actuación en materia de drogodependencias. Sí se observa, en general, una postura algo menos favorable a las medidas planteadas por parte de los grupos menos acomodados, pero las diferencias resultan en casi todos los casos reducidas.

## 115. taula / Tabla 115

### Droga-mendetasunen arloko hainbat neurriekin oso edo nahiko ados agertzen diren biztanleen ehunekoa. 2012

#### Porcentaje de población que se muestra muy o bastante de acuerdo con diversas medidas en el ámbito de las drogodependencias. 2012

	I. eta II. taldea (goi-mailakoa) Grupo I y II (alto)	III. taldea (erdi-mailakoa) Grupo III (medio)	IV. eta V. taldea (behe-mailakoa) Grupo IV y V (bajo)	Guztira Total
Kanabisaren salmenta legezkatzea, adingabeei saltzea debekatuta / Legalizar la venta de cannabis, prohibiendo la venta a menores de edad	48,0	51,5	45,9	47,2
Droga guztien salmenta legezkatzea, orain alkohola eta tabakoa dauden moduan Legalizar la venta de todas las drogas, tal y como están ahora el alcohol o el tabaco	20,9	19,9	21,6	21,0
Alkoholaren eta tabakoaren publizitatea guztiz debekatzea / Prohibir totalmente la publicidad de alcohol y tabaco	61,8	62,5	58,6	59,9
Espetxea ez den beste tratamendu batzuk ahalbidetzea drogak lortzeko delitu egiten dutenentzat / Facilitar a las personas que cometen delitos para conseguir drogas un tratamiento en lugar de que tengan que ir a prisión	68,3	67,6	57,5	61,5
Kanabisaren erabilera terapeutikoa ahalbidetzea minbizia eta beste gaixotasun batzuk artatzeko Permitir el uso terapéutico del cannabis en el tratamiento del cáncer y otras enfermedades	84,5	87,1	80,0	82,2
Sendagileek heroína ematea beste tratamendu batzuk baliagarri izan ez zaizkien heroína-hartzaileei / Administración médica de heroína a los consumidores que han fracasado en otros tratamientos	55,9	52,9	47,5	50,3
Gutxieneko higiene-baldintzak dituzten kontsumo-lokalak irekitzea drogazaleentzat Abrir locales donde las personas drogodependientes puedan consumir en condiciones mínimas de higiene	57,6	53,8	52,5	54,1
Kanabisa norberak kontsumitzeko landatzea ahalbidetzea / Permitir el cultivo de cannabis para el autoconsumo	51,6	54,3	51,7	52,1
Ondorio kaltegarriker ez izateko drogak nola kontsumitu azaltzea / Informar sobre cómo consumir drogas sin que perjudique	69,2	71,5	67,5	68,3

### 5.3. Hezkuntza-mailaren eta kontsumo-mailen arteko lotura

#### 5.3.1. Kontsumo esperimentalak

Maila sozioekonomikoaren kasuan gertatzen zen moduan, kontsumo esperimentalak hezkuntza-aldeen ikuspegitik aztertuz gero, ikusiko dugu unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen substantzia guztiak, farmakoak izan ezik, gehiagotan probatu dituztela, oro har. Alkoholen eta tabakoaren kasuan nahiko alde txikiak daude, baina legez kanpoko drogei dagokienez, aldiz, alde garbiak eta agerikoak daude; halere, talde haien adin-osaera ezberdinagatik izan daiteke. Legez kanpoko drogekin gertatu ez bezala, ez da hezkuntza-mailarekin lotutako alderik ikusten azken urtean ausazko edo apustu bidezko jokoren batean aritu izanarekin.

### 5.3. La relación entre el nivel educativo y los niveles de consumo

#### 5.3.1. Los consumos experimentales

Como ocurría en el caso del nivel socioeconómico, al analizar los consumos experimentales desde el punto de vista de las diferencias educativas se observa que las personas con estudios universitarios tienen a haber probado las diferentes sustancias, salvo los fármacos, con mayor frecuencia. Si en el caso del alcohol y el tabaco las diferencias son reducidas, en el caso de las drogas ilegales las diferencias son claras y notorias, si bien pueden deberse a la diferente composición etaria de cada uno de estos grupos. A diferencia de lo que ocurre con las drogas ilegales, no se observan diferencias relacionadas con el nivel educativo en el hecho de haber practicado en el último año algún tipo de juego de azar o apuestas.

116. taula / Tabla 116

#### Hainbat substantziaren kontsumo esperimentalaren tasa hezkuntza-mailaren arabera. 2012 Tasa de consumo experimental de diversas sustancias por nivel educativo. 2012

	<b>Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak</b> Sin estudios o estudios primarios	<b>Bigarren mailako ikasketak</b> Estudios secundarios	<b>Unibertsitateko ikasketak</b> Estudios universitarios	<b>Guztira Total</b>
Alkohola / Alcohol	79,4	89,8	93,3	86,9
Tabakoa / Tabaco	50,8	56,5	56,0	54,4
Kanabisa / Cannabis	14,7	32,1	42,5	28,3
Legez kanpoko besteren bat / Alguna otra ilegal	6,0	9,3	11,2	8,6
Psikofarmakoak errezetarekin edo gabe Psicofármaco con o sin receta	23,6	19,1	21,0	21,1
Apustu edo ausazko jokoen* Juegos de apuestas o azar*	55,6	56,4	55,3	55,9

\* Apustu edo ausazko jokoei dagokienez azken 12 hilabeteetako kontsumoa aipatzen da, baina gainerako substantzietan bizitzan noizbait.  
 \* A diferencia del resto de sustancias en las que el consumo se refiere a alguna vez en la vida, en el caso de la práctica de los juegos de apuestas o azar la tasa se corresponde con los últimos 12 meses.



## 5.3.2. Ohiko edo maizko kontsumoak

Unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak egun eta/edo asteburu gehienetan gehiagotan edaten dute ikasketarik gabeko edo lehen ikasketak dituzten pertsonak baino, bai eta bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak baino gehiagotan ere, baina eguneroko kontsumo-tasak oso antzekoak dira hiru taldeetan. Antzekoak ere badira tabakoaren ohiko kontsumo-tasak, eta legez kanpoko drogen kasuan, azkenik, kontsumorik handienak bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak dira. Psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa handiagoa da ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, baita ausazko jokoetan asteen behin gutxienez parte hartzea ere. Ez dago esaterik, beraz, joera komun edo orokorra dagoenik hezkuntza-maila ohiko edo maizko kontsumoekin lotu ahal izateko.

## 5.3.2. Los consumos frecuentes o habituales

Las personas con estudios universitarios beben la mayoría de los días y/o de los fines de semana con mayor frecuencia que las personas sin estudios o con estudios primarios y también con mayor frecuencia que las personas con estudios secundarios, pero las tasas de consumo diario resultan muy similares en los tres grupos. También son similares las tasas de consumo habitual de tabaco, mientras que en el caso de las drogas ilegales los consumos más elevados corresponden a las personas con estudios secundarios. El consumo reciente de psicofármacos es más elevado en las personas sin estudios o con estudios primarios, así como la participación al menos semanal en juegos de azar. No puede decirse, por tanto, que exista una tendencia común o general en virtud de la cual el nivel educativo se relacione con los diversos consumos habituales o frecuentes.

117. taula / Tabla 117

**Hainbat substantziaren ohiko kontsumoa egiten duten pertsonen ehunekoa hezkuntza-mailaren arabera. 2012**  
**Porcentaje de personas que realizan consumos habituales de diversas sustancias por nivel educativo. 2012**

	<b>Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak</b> Sin estudios o estudios primarios	<b>Bigarren mailako ikasketak</b> Estudios secundarios	<b>Unibertsitateko ikasketak</b> Estudios universitarios	<b>Guztira Total</b>
Kontsumoa asteburu gehienetan Consumo la mayoría de los fines de semana	10,2	21,1	24,6	18,1
Alkoholaren eguneroko kontsumoa Consumo diario de alcohol	12,3	12,4	11,6	12,2
Ohiko tabako-kontsumoa Consumo habitual de tabaco	26,0	26,4	24,0	25,7
Kanabisa gutxienez astero kontsumitzea azken urtean / Consumo al menos semanal de cannabis en el último año	2,8	3,4	1,5	2,8
Legez kanpoko beste drogen baten egungo kontsumoa (kanabisa gabe) / Consumo actual de otra droga ilegal (sin cannabis)	0,4	1,1	0,4	0,7
Medikuaren errezetarekin edo gabeko psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa / Consumo reciente de psicofármaco con o sin receta	15,8	9,7	10,3	12,0
Apustu edo ausazko jokoak astero gutxienez Juegos de apuestas o azar al menos semanalmente	23,6	22,7	20,3	22,4

### 5.3.3. Kontsumo problematikoak edo intentsuak

